

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
FAMILIEI LAGUNTZEKO ERAKUNDE
ARTEKO IV. PLANA
2018-2022 ALDIRAKO**

Familietan inbertitzea, hartzaroan inbertitzea

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Aurkibidea

1. AURKEZPENA.....	3
1.1. Aurrekariak	3
1.2. Planaren egitura	7
1.3. Plana egiteko erabilitako metodologia	8
2. ESPARRU KONTZEPTUALA ETA ARAUEMAILEA.....	10
2.1. Esparru kontzeptuala: Familia eta Haurtzaroaren Aldeko Euskal Ituna	10
2.2. Erreferentziako esparru juridikoa, eskumenen esparrua eta jardun-arloen mugaketa	13
2.3. Beste estrategia, plan eta araudi batzuekiko koherentzia	17
3. OINARRIZKO DIAGNOSTIKOA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FAMILIEN, HAURREN ETA NERABEEN EGOERA	24
4. PLANAREN OINARRI DIREN PRINTZPIOAK	36
4.1. Euskal Autonomia Erkidegoan Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Planaren izaera eta ezaugarriak	36
4.2. Jardun-printzipioak	39
5. JARDUN ARDATZAK ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK.....	44
5.1. Jardun-ardatzak	44
5.2. Helburu estrategikoak	45
6. GARATU BEHARREKO EKINTZAK	48
6.1. Sarrera	48
6.2. 1. ardatza: Gazteen emantzipazioa eta familia berrien sorrera erraztea	49
6.3. 2. ardatza: Bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioa eta seme-alabak zaintzeko ardura partekatua erraztea	55
6.4. 3. ardatza: Familiei laguntzea	60
6.5. 4. ardatza: Haurren eta nerabeen ongizatea sustatzea	64
6.6. 5. ardatza: Euskal Autonomia Erkidegoan familiaren eta haurtzaroaren arloko politiken lidergoa, ebaluazioa eta gobernantza sustatzea	79
7. EGUTEGIA ETA MEMORIA EKONOMIKOA.....	84
7.1. Sarrera	84
7.2. Gizarte Politiketako Sailburuordetzari dagozkion jardunak garatzeko aurreikusitako gastuaren kuantifikazioa	84
7.3. Gizarte Politiketako Sailburuordetzari dagozkion jardunen egutegia finkatzea	87
8. PLANAREN INPAKTUA ETA EBALUAZIO SISTEMA.....	92
8.1. Inpaktuaren adierazleak	92
8.2. Gauzatzeko-mailaren adierazleak.....	93
8.3. Ebaluazio- eta jarraipen-sistema.....	100
9. GOBERNANTZA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN FAMILIEI LAGUNTZEKO ERAKUNDE ARTEKO IV. PLANA KUDEATZEKO EGITURAK.....	101

1. Aurkezpena

1.1. Aurrekariak

Familiei laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legearen 27. artikulua Eusko Jaurlaritzari esleitzen dizkion eskumenen artean dago “foru-aldundiekin eta udalekin koordinaturik, Euskal Autonomia Erkidegoko familia-politikaren eta familiarentzako gizarte-zerbitzuen plangintza orokorra egitea lehentasunak ezartzeko, lurraldeen arteko desorekak saihesteko eta gutxieneko babes-mailak bermatzeko”. Artikulu horretan bertan Eusko Jaurlaritzari beste eskumen hau ere esleitzen zaio: “Familiei Laguntzeko Erakundearen Arteko Plana onartzea, garatzea eta ebaluatzea”.

Eskumen horiek baliatzean, Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Plan hau prestatzea sustatu du Eusko Jaurlaritzako Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak. Edonola ere, plana sartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko familiari eta haurtzaroari buruzko politikak berriro orientatzeko eta sustatzeko esparru zabalago baten barruan. Ildo horretan, hauek dira Plan honen aurrekari zuzenenak:

- 2016ko udazkenean onartu zen Eusko Jaurlaritzaren XI. Legegintzaldirako Gobernu Programa, eta programa horretan honako neurri hauek hartu ziren aintzat familiaren eta haurtzaroaren arloan:
 - Aldaketa demografikorako eta euskal gizartea gaztetzeko erakunde arteko estrategia sustatzea.
 - Seme-alabak dituzten familientzako laguntzak % 50 gehitzea.
 - Ardura partekaturako eta kontziliaziarako laguntza ekonomikoen, pizgarri fiskalen eta neurri eraginkorren sistema hobetzea, lan-arloan zein zaintzaren eta etxebizitzaren arloan.
 - Etxeko lanak eta zaintza-lanak gizonen eta emakumeen artean banatzeko sentsibilizazio- eta prestakuntza-neurriak sustatzea, eta kontziliaziarako eta adin txikikoen zaintzarako beste laguntza-sistema batzuk aztertzea.
 - Hezkuntza Sailarekin elkarlanean, Haurreskolen zerbitzuak eta hurrei zuzendutako arreta hobetzea eta gurasoen lan-ordutegietara egokitzea, 2 urteko haurrak eskolaratzeko eskari osoari erantzunez.
 - Eskolaz kanpoko eta komunitate-aisialdiko programak zabal daitezen sustatzea.
 - Lanaren eta familia-bizitzaren kontziliazioa erraztuko duten neurriak negoziazio kolektiboan txerta daitezen sustatzea.

- Lan-ordutegiak malgutzeko planak sustatuko dituzten eta, antolamenduereduan, telelana txertatuko duten enpresetarako sari- eta aintzatespen-sistema bat aztertzea, Lan eta Justizia Sailarekin elkarlanean.
- 2017ko urtarrilean argitaratu zen Euskal Autonomia Erkidegoan Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Planaren (2011-2015) ebaluazio-txostena¹. Planaren ebaluazio-txosten horrek alderdi hauek nabarmendu zituen:
 - Ugalkortasunak eta haurtzaroak euskal egitura demografikoan duen pisua murriztea, eta familia-osaeran eta lehen jaiotzako adinean izan den atzerapena eta emakume bakoitzeko seme-alaben batez besteko kopurua murriztea.
 - Europako testuinguruan familia-politikek gero eta garrantzi handiagoa izatea eta euskal familia-politikek duten defizita, Europar Batasunaren osotasuneko politikei dagokienez —arlo horretako gastu publikoa ez da ia iristen gure inguruneko herrialdeek, arlo horretako politketan eta haien Barne Produktu Gordinari dagokionez, egiten duten batez besteko gastuaren heren batera—.
 - Gizarte-politiken arloko beste ikusmolde edo paradigma bat gero eta gehiago nagusitzea —inbertsio soziala—, gizarte-garapeneko Europako erakundeen paradigma hegemoniko gisa konfiguratu dena. Paradigma berri hori familiaren eta haurtzaroaren arloko esku-hartze publikoa ulertzeko beste modu bat da —gizartearen osotasunaren epe luzerako kohesioari begira, haurren garapen kognitibo eta emozional egokia eta ongizatea funtsezkotzat jotzen den heinean—.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren zati handi batek familiako eta laneko ardurak bateragarri egiteko dituen zailtasunak areagotzea —edo zailtasunak jarraitzea—, eta biztanle ugariaren familia-proiektuak gauzatzeko eragozpen handiak egoten jarraitzea.
 - Familia-bizitza eta lana bateragarri egiteko laguntzen ezagutza eta erabilera txiki samarra eta desorekatua izatea, sexuaren ikuspuntutik edo estatus sozioekonomikotik.
 - Inpaktuari eta ondorioei dagokienez, ebaluazio-txostenak nabarmentzen du Familiei Laguntzeko III. Planak inpaktu txikia izan zuela —Euskal Autonomia Erkidegoan familia-politikaren arloan oinarritzko lurzorua

¹ Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Planak (2011-2015) guztira 169 ekintza planteatzen zituen, 15 helburutan eta lau jardun-ildo estrategikotan bilduta: familien autonomia sustatzen eta laguntzen duten zerbitzuak, neurriak eta politikak; Familien ahalduntzea, sentsibilizazio soziala, prebentzioa eta familiaren balore soziala bultzatzera zuzendutako ekintza politikoan eta sozialen sustapena eta hedapena; Familiei laguntzeko politiken eta parte-hartze sozialaren sail arteko eta erakunde arteko koordinazioa; eta Paradigma eta jardura esparru berriak familiei laguntzeko neurrietan eta politketan. Onartutako dokumentuan, Planaren neurrien gauzatzeko-mailaren jarraipen-sistema bat jasotzen zen, eta sistema horrek barnean hartzen zituen, halaber, haren jarraipena eta ebaluazioa egiteko planifikatutako lau ekintza.

mantentzeaz harantzago—, eta horretan eragina izan zutela garaiko ekonomia- eta aurrekontu-egoera negatiboak zein Euskal Autonomia Erkidegoan familiaren eta haurtzaroaren arloko politikei dagozkien erakunde-esparruaren konplexutasunak eta politika horiek sustatzeko nolabaiteko lidergo politiko eta instituzionalaren gabeziak². Ildo horretan, III. Planaren ebaluazioak agerian uzten du —aurrerapen handiak egin badira ere— Euskal Autonomia Erkidegoan ezin izan dela behar besteko artikulazioa eta irismena duen familia-politkarik garatu. Era berean, ezin izan da behar beste aurrera egin Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko 13/2008 Legearen agindua betetzeko garaian; izatez, 10.5. artikuluan ezartzen du “euskal herri-administrazioak progresiboki zabalduz joango dira ardurapeko seme-alaba adingabeengatik ematen diren zuzeneko diru-laguntzak, 2020. urtean Europar Batasunaren mailan izateko”.

- 2017ko lehen seihilekoan landu zen Familietan eta Haurtzaroan Inbertitzeko Euskal Estrategiarako oinarrien dokumentua —pertsona aditu eta akademiko talde handi batekin elkarlanean prestatu zen dokumentua—. Oinarrien dokumentuak Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-politiken orientazioa aldatzearen alde egin zuen, gizarte-inbertsioko paradigmen ildotik. Orientazio-aldaketa horri esker, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-maila handiagoak bermatuko dira, pertsona guztien ugalketa-itxaropenak gauzatzea erraztuko da eta belaunaldi artean desberdintasunaren transmisioa saihestuko da.
- Nazio Batuek Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa onartu zutela 28. urteurrena dela eta, 2017ko azaroaren 23an Eusko Legebiltzarrak Unicef Euskadik sustatutako erakunde-adierazpena onartu zuen —erakunde hori legebiltzar-batzordean bertaratu ondoren—. Adierazpen horretan aitortzen zen familiak, gizartearen eta natura-ingurunearen funtsezko talde gisa, zer zeregin betetzen duen familiako kide guztien eta, bereziki, haurren hazkuntzan eta ongizatean; eta, hartara, familiak komunitatearen barruan dituen ardurak guztiz bere gain hartu ahal izateko beharrezkoak diren babesa eta laguntza jaso behar dituela onartzen zen. Adierazpen horri jarraituz, Eusko Legebiltzarrak haurrak eta nerabeak gure gizarteko egungo eta etorkizuneko eskubide osoko subjektutzat hartzen ditu eta konpromisoa hartu du elkarlanean jarraitzeko adin txikikoen interes nagusian oinarritutako giza garapen zuzena eta solidarioa ziurtatzearen alde.

² Ebaluazio-txostena egitean kontsultatutako pertsona batzuen iritziz, Planaren lorpen nagusia izan da laguntza-sistemari eustea aurrekontu-murrizketako une batean, hau da, oinarritzko lurzorua mantentzea ekonomia- eta aurrekontu-une oso aurkako batean. Garrantzi handiko aurrerapen gisa nabarmentzen dira, halaber, gizarte-sentsibilizazioaren arloko hobekuntzak eta erakundearen agendan familia-politikak barnean hartzearen arloko hobekuntzak, baita familia-forma eta familia-errealitate berrien aitorpenean egindako aurrerapenak ere. Alderdi negatiboak identifikatzean, kritika nagusia zuzentzen zaio irismen handiagoko eta hobeto egituratutako politikak sustatzeko anbizioirik ezari. Ildo horretan, kritikatzan da Europarekin bat etortzeko helburuari uko egitea eta familia-politikak oinarri dituen eta familien garrantziaren bestelako artikulazioa ahalbidetzen duen gizarte-inbertsioren paradigmatik arreta urria jarri izana. Azken finean, kritikatzan da Euskal Autonomia Erkidegoan benetako familia-politikaz hitz egitea eragozten duen irismen txikiko begiradatzat jotzen dena. Muga horietako batzuk legegintzaldia ezaugarritu duten baliabide-urritasunen eta aurrekontu-zailtasunen testuinguruan kokatu behar badira ere, pertsona batzuek adierazi dute, egin diren jardunetako asko gauzatzeko, gastu ekonomikoa baino gehiago borondate eta adostasun politikoa behar zela.

- 2018ko urtarrilean, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta EUDELek Familia eta Haurtzaroaren Aldeko Euskal Ituna sinatu zuten —aurrez aho batez onartu zuen Familiaren Euskal Kontseiluak—. Itun hori da Euskal Autonomia Erkidegoan datozen urteetan garatuko diren haurtzaroaren eta familien politiken artikulazio estrategikorako ibilbide-orria, eta honako Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko Plan honetan gauzatzen da, besteak beste. Itunaren bidez izaera estrukturala duten bi fenomenori erantzuten dien politika multzo koordinatu bat artikulatu nahi da: batetik, jaiotza-tasa txikiak eta, batez ere, pertsonen haien familia-proiektuari hasiera ematea eta nahi adina seme-alaba edukitzea zailtzen duten oztopoen iraupena; eta, bestetik, seme-alabak dituzten familien zailtasun ekonomiko handiagoak —haur-pobreziaren hazkundearen adierazle nagusietako bat— eta desberdintasunen belaunaldi arteko transmisioa hausteko gero eta zailtasun handiagoak —horrek auzitan jartzen du aukera-berdintasunaren printzipioa—.

Abiapuntu horretatik, Itunaren bitartez oinarritzko helburu hauek lortu nahi dira:

- Emakumeen eta gizonen ugalketa-itxaropenak gauza daitezen ahalbidetzea, eta, Familiei Laguntzeko 13/2008 Legearen testuaren arabera, pertsonen haien familia-proiektuari hasiera ematea eragozten duten eta nahi adina seme-alaba izatea eragozten duten oztopoak pixkanaka ezabatzen edo murrizten laguntzea.
 - Europako erakundeek bultzatuta, haurtzaroan egiten den inbertsioaren ikusmoldea gauzatzea, haur eta nerabe guztien aukera-berdintasuna bermatuko duten neurriak antolatuta.
 - Desberdintasunaren belaunaldi arteko transmisioa saihestea eta seme-alabak dituzten familien pobrezia-egoerak ahalik eta gehien murriztea.
- Azkenik, Plan hau prestatzearekin bete egiten da Eusko Legebiltzarraren 2018ko martxoaren 21eko osoko bilkurako ebazpena; izatez, ebazpen horren bidez Eusko Jaurlaritzari eskatu zion egungo saioen aldia amaitu aurretik aurkeztea Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Plana —garatu beharreko ildo estrategiko eta neurri zehatzekin, gauzatze-programarekin, aurreikusten den kontsignazio ekonomikoarekin—, baita Planaren neurri bakoitzaren betetze-maila zehazteko aukera emango duen Planaren tarteko eta amaierako ebaluazio-sistema bat ere.

1.2. Planaren egitura

Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legeak ez du egitura edo metodologia espezifikorik ezartzen familia-planak prestatzeko; erakunde arteko izaera nabarmentzera mugatzen da. Aurrez aditzera eman den bezalaxe, III. Planaren ebaluazioa egin ondoren eta familietan eta haurtzaroan inbertitzeko estrategiarako oinarrien dokumentua prestatu ostean landu da IV. Plan hau —Familia eta Haurtzaroaren Aldeko Euskal Ituna ere

oinarrien dokumentu horretan oinarritu zen—. Bi dokumentuek Euskal Autonomia Erkidegoan familien egoeraren eta premien diagnostiko oso zabala hartzen dute barnean; hori dela eta, ez da komenigarritzat jo Plan honetarako diagnostiko espezifiko bat egitea. 3. kapituluan, Euskal Autonomia Erkidegoan haurren eta familien egoeraren inguruan eskura ditugun datu nagusien laburpena jaso da, besterik gabe.

Hau da IV. Planaren egitura:

- Sarrerako lehen kapituluaren ondoren, bigarren kapituluak IV. Plan honen esparru kontzeptuala eta arauemailea zehazten du. Kapitulu horretan zehazten dira erreferentziako esparru juridikoa, eskumen-esparrua eta Planean aintzat hartzen diren jardun-ildoen mugaketa, baita printzipioen eta aurreikusten diren jardunen oinarri den esparru kontzeptuala eta Plan horren eta Eusko Jaurlaritzak gizarte-politiken arloan abian jarritako gainerako plangintza-tresnen arteko lotura ere.
- Hirugarren kapituluan, eta aurrez egindako dokumentuetan oinarrituta, abiapuntuko egoeraren oinarritzko laburpena egiten da, Euskal Autonomia Erkidegoan familien eta haurren premiei dagokienez ez ezik, arlo horretako euskal politika publikoen eraginkortasunari dagokienez ere bai.
- Laugarren kapituluak Planaren oinarri diren printzipioak biltzen ditu, politika publikoen plangintzaren ikuspuntutik zein familiaren eta haurtzaroaren arloan aurreikusten diren jardunen orientazioaren ikuspuntutik.
- Bosgarren kapituluan jorratzen dira Plana artikulatzen duten jardun-ardatzak eta jardun-ardatz horietako bakoitzean barnean hartzen diren helburu estrategikoak.
- Seigarren kapituluan biltzen dira helburuak betetzeko arlo horietako bakoitzean aurreikusten diren jardunak.
- Zazpigarren kapituluak jasotzen du Planean aintzat hartzen diren eta Gizarte Politiketako Sailburuordetzari esleitzen zaizkion jardunak garatzeko mobilizatu beharreko baliabide ekonomikoen oinarritzko laburpena.
- Zortzigarren kapituluak espero den jardunen inpaktua biltzen du, eta bereizten ditu Planak jasotzen dituen jardun edo konpromiso nagusiak, hautatutako inpaktu-adierazle nagusietan espero den bilakaera eta helburu bakoitzari dagozkion gauzatzeko-adierazleak edo emaitzen bilakaera.
- Bederatzigarren kapituluak, azkenik, Planaren gobernantzarako, jarraipenerako eta kudeaketarako aurreikusten diren egiturak jasotzen ditu.

1.3. Plana egiteko erabilitako metodologia

Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legeak ez du metodologia espezifikorik ezartzen Familiei Laguntzeko Plana prestatzeko, eta ez du Planak nahitaez izan beharreko

eduki zehatzik finkatzen. Edonola ere, Eusko Jaurlaritzari esleitzen dio Plan hori onartzeko, garatzeko eta ebaluatzeko ardura, eta ezartzen du planak erakunde arteko izaera izan behar duela. Familiaren Euskal Kontseiluari buruzko apirilaren 17ko 53/2012 Dekretuaren arabera, Familiaren Euskal Kontseiluaren osoko bilkurari dagokio Planaren proposamenaren berri ematea.

Lehentxeago aditzera eman den moduan, Plan honek jarraitutasuna ematen dio aurreko planaren ebaluazioarekin hasi zen lanari eta, gero, Familietan eta Haurtzaroan Inbertitzeko Euskal Estrategiarako oinarrien dokumentuarekin eta, 2018ko urtarrilean, Familia eta Haurtzaroaren Aldeko Euskal Itunaren sinadurarekin jarraitu zuen lanari.

Eusko Jaurlaritzako Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak bere gain hartu du Plan hau lantzeko egitekoa. Edonola ere, egiteko horretan elkarlanean jardungo du familien eta haurtzaroaren arloko politiketan nahastuta dauden Eusko Jaurlaritzaren gainerako Sailekin, Foru Aldundiekin, Euskal Autonomia Erkidegoko udalekin —EUDelen bitartez—, Familiaren Euskal Kontseiluan ordezkaturik dauden hirugarren sektoreko erakundeekin eta aditu ugariarekin. Plana prestatzeko lan-prozesu honi jarraitu zaio:

- Lehenik, 2018ko otsailaren 9an, eztabaida-jardunaldi bat egin zen Bilbon, zenbait adituren parte-hartzearekin. Jardunaldi horretan 150 pertsona inguru bildu zen, eta haurtzaroaren eta familiaren arloko politikak antolatzen dituzten oinarritzko ardatzak aztertu ziren. Jardunaldian txostengile izan ziren Olga Cantó (Alcalako Unibertsitatea), Irene Lapuerta (Nafarroako Unibertsitate Publikoa), Lucas Gortazar (Euskal Herriko Unibertsitatea), Enrique Arranz (Euskal Herriko Unibertsitatea) eta Jordi Longas (Ramon Llull Unibertsitatea). Era berean, ondoren egin zen mahai-inguruan, parte hartu zuten Vitoria-Gasteizko Udaleko, Gazteriaren Euskal Behatokiko, Haurreskolak Partzuergoko eta Pirinio Atlantikoak Departamentuko ordezkariak.
- Bilboko jardunaldiak egin ostean, otsailaren 14an Vitoria-Gasteizen *word café bat* egin zen eta bertan instituzioetako eta irabazi asmorik gabeko erakundeetako berrogeita hamar bat ordezkari eta familiaren arloko adituek parte hartu zuten. Saio horretan, Planaren oinarritzko ildoak aurkeztu eta aztertu ziren, eta parte-hartzaileek Euskal Autonomia Erkidegoko familien premiei eta egoerari dagokionez egindako ekarpenak eta Planaren egiturari eta oinarritzko edukiei buruz egindakoak bildu ziren.
- *World café* saioa egin ondoren, bestelako alde biko bilerak eta harremanak egin ziren Planean jorrotutako gaiekin lotzen diren eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako Sail guztiekin. Plana lantzeko prozesuaren barruan etengabeko harremanak izan dira Sail horiekin, betiere dagozkien jardun-esparruetan garatzen dituzten ekintzak —edo datozen urteetan garatzeko asmoa duten ekintzak— Planean jasotzeko. Hauek dira prozesu horretan parte hartu duten Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzak eta organismoak:
 - Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua.

- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza. Kultura Saila.
 - Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Zuzendaritza. Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila.
 - Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritza. Osasun Saila.
 - Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. Ogasun eta Ekonomia Saila.
 - Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.
 - Kabinete Zuzendaritza. Kultura Saila.
 - Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritza. Hezkuntza Saila.
 - Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza. Hezkuntza Saila.
 - Justizia Zuzendaritza. Lan eta Justizia Saila.
 - Gazteria Zuzendaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.
 - Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.
 - Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza. Osasun Saila.
 - Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. Osasun Saila.
 - Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.
 - Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritza. Lan eta Justizia Saila.
 - Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundea.
- Martxoan eta apirilean beste bi bilera egin ziren hiru Foru Aldundietako eta EUDELEko ordezkariekin. Bilera horien helburua izan zen, batetik, Planean jasotzea Aldundiek eta udalek haien jardun-esparruetan garatzen dituzten eta/edo garatzeko asmoa duten ekintzak eta, bestetik, Planaren edukiak baliozkotzea (Planak oinarri duen diagnostikoari dagokionez zein Planaren printzipioei, helburuei eta jardunei dagokienez).
- Planaren lehen zirriborro teknikoa prestatu ostean, 2018ko apirilaren 20an lan-bilera egin zen Familiaren Euskal Kontseiluaren osoko bilkura osatzen duten erakundeekin eta instituzioekin. Lan-bilera horren helburua izan zen jardun zehatzetan barnean hartzeko eta/edo jada aurreikusitako jardunak aldatzeko proposamenak biltzea.
- Azkenik, Planaren proposamena 2018ko maiatzaren 15ean aurkeztu zaio Familiaren Euskal Kontseiluaren osoko bilkurari, horrek aginduzko txostena egin dezan.

2. Esparru kontzeptuala eta arauemailea

2.1. Esparru kontzeptuala: Familia eta Haurtzaroaren Aldeko Euskal Ituna

Sarrerako atalean aditzera eman den moduan, 2018ko urtarrilean, Eusko Jaurlaritzak, hiru Foru Aldundiek eta EUDELeK Familia eta Haurtzaroaren Aldeko Euskal Ituna sinatu zuten (aurrez Familiaren Euskal Kontseiluak aho batez onartu zuen itun hori). Itunak berak ezartzen duenez, Ituna hedatzeko eta aplikatzeko prozesua definitzeko garaian, Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Planaren bidez epe laburrera hedatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoan haurtzaroaren eta familien arloko politikekin lotura estuagoa duten Itunaren elementuak.

Horrenbestez, Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Plan hau Familia eta Haurtzaroaren Aldeko Euskal Itunean biltzen da, eta bere egiten ditu Itunak ezartzen dituen esparru kontzeptuala, lehentasun estrategikoak eta konpromisoak. Ildo horretan, hauek dira Itunak jasotzen dituen eta Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Plan honetan gauzatu behar diren konpromisoak:

- Seme-alabak dituzten familia guztiei gutxieneko baliabide ekonomiko batzuk bermatzea eta haur-pobrezia saihestea, familien aniztasuna errespetatuta.
- Gurasoek haien seme-alabei behar den denbora guztia eskaintzeko erraztasunak ematea eta, horretarako, denbora soziala modurik egokienean antola dadin sustatzea —familien premien arabera— eta ardura partekaturako antolamendu soziala erraztea.
- Gazteen emantzipazioa eta bizitza-proiektu autonomoak bultzatzea, seme-alabak izan ditzaketen —hala nahi izanez gero— familia-unitate berriak sor daitezen errazteko.
- Gurasotasun positiboari, haur-osasunari, emakumeen ahalduntzeari, gatazken prebentzioari eta familia-bitartekaritzari buruzko programak indartzea, betiere aiten eta amen hezkuntza-gaitasunak eta guraso-gaitasunak sendotzeko, ohitura osasungarriak sustatzeko eta familien barruan sor daitezkeen gatazkek ebatz daitezen errazteko.
- Haur guztiek arreta-zerbitzu irisgarriak, eskuragarriak eta kalitatekoak jaso ahal izan ditzaten erraztea.
- Hezkuntza-politikak berriro orientatzea eta hezkidetzara bideratutako eskola-sistema inklusibo baten eraikuntzan sakontzea —eskola-sistema horrek gauza izan beharko du berdintasuna bermatzeko eta desabantaila sozial eta ekonomikoko egoeran dauden ikasleen zailtasunak konpentsatzeko, baita nesken eta mutilen arteko berdintasuna bermatzeko ere—.

- Hurrek eta nerabeek baldintza berdinetan baliatu ahal izatea gizartearen, hezkuntzaren, kirolaren, kulturaren eta aisialdiaren arloko baliabideen eta ekipamenduen eskaintza zabalagoa.
- Familia- eta haurtzaro-politiken gobernantza hobetzea eta benetako gizarte- eta hezkuntza-espazioa garatzea.
- Erakunde arteko eta diziplina anitzeko lankidetzarako konpromisoa hartzea, gai horien dimentsio aniztasuna kontuan izanik —gai horiek politika publikoaren zenbait arlotan dute eragina (hezkuntzan, osasunean, etxebizitzan, kulturean, enpleguan, eta abar) eta gai horiek guztiak gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren ikusmoldeetik jorratzen dira—.
- Gai horiekin lotzen diren eragile pribatuak sentsibilizatzea, batez ere lan-harremanetan zuzenean nahastuta daudenak —hala nola sindikatuak eta patronalak—, eragile publikoen eta pribatuen arteko lotura beharrezkoa den aldetik.

Familia eta Haurtzaroaren Aldeko Euskal Itunaren ondoriozko helburuekin eta edukiekin batera, Plan honek oinarri duen esparru kontzeptualak kontuan hartzen du haurrei zuzendutako politikak honako lau ardatz hauetan antolatu behar direla³:

- **Sustapena.** Zentzurik zabalenean, gizarteak eta erakundeek honako kontzeptu hau bere egiteko konpromisoari erantzun beharra jasotzen du: haurtzaroak eta nerabearoak eskubide zehatzak eta espezifikoak dituzte eta gizarteak eskubide horiei erantzun behar die. Era berean, administrazioak diseinatu beharreko eta abian jarri beharreko estrategiek asistentzia eta arreta egokia jasotzeko aukera eman behar diete haurrei eta nerabeei, haien gaitasunak behar bezala garatzen direla bermatzeko moduan.
- **Prebentzioa.** Aurrea hartzea kalteberatasuneko eta babesgabetasuneko arrisku-egoerak saihestea da. Horretarako, haurren eta nerabeen gizabanako eskubideak eta eskubide kolektiboak bermatu beharko dira. Egoera kaltegarriak edo negatiboak ager daitezen saihestea bermatuko duten jardunen eta eskubideen garapena eskatzen du prebentzioak. Ongizate-estatuaren gizarte-ondasunak eskuragarri izatea eta detekzioan eta integrazioan oinarrituta kalteberatasun-egoerak saihestea ahalbidetuko duten sistemen eskubideak beteko dituzte garatu beharreko programek.
- **Babesa.** Hurrek eta nerabeek babes behar dute, beste pertsona batzuen mende baitaude —pertsona helduak baino maila handiagoan— haien biziraupena eta ongizatea ziurtatzeko eta haien premiak gogobetetzeko. Nolanahi ere, babes hori

³ Familia eta Komunitate Politikako Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza. Euskal Autonomia Erkidegoko haurtzaroko eta nerabeentzako plan bat lantzeko esparru-dokumentua.

zenbait gizarte-erakunderen esku dago, hala nola familiaren esku, komunitate-zerbitzuen esku eta babes-sistemen esku.

Botere publikoen egitekoa da familiei, gurasoei eta tutoreei laguntzea funtzio hori behar bezala betetzen. Adin txikiko pertsonen ongizatean edo garapenean kalte adierazgarriak eragin ditzaketen zailtasunak agertzen direnean, erakunde publiko eskudunek esku hartu beharko dute:

- Haurren eta nerabeen eskubideak babesteko.
 - Familien barruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko.
 - Adin txikikoen gaineko indarkeria matxista, oro har, eta genero-indarkeria, zehazki, saihesteko.
 - Familia-inguruneko liskar-giroa saihesteko eta murrizteko.
 - Behar izanez gero, gurasoak aldi baterako ordezteko guraso-funtzioetan.
 - Gurasoei baliabideak eta zerbitzuak eskaintzeko, guraso-betebeharrak errazago bete ahal izan ditzaten.
 - Beharrezkoa denean, haurrei eta nerabeei ordezko familia-inguruneak eskaintzeko eta, ahal bezain laster, jatorrizko familiarekin berriro itzultzeko.
- **Parte-hartzea.** Haurrek eta nerabeek parte hartzeko duten eskubidea da Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan barnean hartu den eskubiderik berrienetako bat. Legez adin txikikoak diren pertsonak eskubidea dute entzun dakien eta haien iritzia kontuan har daitezen, haien adinaren eta heldutasunaren arabera, eta eskubide hori errespetatu eta sustatu beharko da.

Bestalde, garrantzi handikoa da nabarmentzea genero-ikuspegia Plan honen osotasunean eragina duen zeharkako konpromisoa dela. Izatez, emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, 3.4. artikuluan, adierazten du genero-ikuspegiaren integrazioa dela printzipio nagusietako bat, horren arabera, “Euskal herri-aginteeek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten”. Horrenbestez, begirada horrek Plan osoa zeharkatu beharko du, emakumeen eta gizonen egoerak, baldintzak, itxaropenak eta premiak modu sistematikoa aintzat har daitezen. Horrela soilik sustatu ahal izango da modu aktiboan berdintasuna, eta horrela soilik aurrea hartu ahal izango zaie Plan honen bidez antolatzen diren familiaren arloko politika publikoek emakumeen eta gizonen —eta nesken eta mutilen— bizitzan sortzen dituzten generoaren araberrako ondorioei edo inpaktuei.

Horrenbestez, emakumeentzako eta gizonentzako aukera-berdintasuna da Plan honen funtsezko balioetako bat, gainerako balioetara zabalduko den zeharkako balio bat. Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna sustatzea ardura partekatuko kontziliazio-politiken esparruaz harantzago doa, eta balio hori Planaren jardun guztien muinean bertan kokatuko da.

2.2. Erreferentziako esparru juridikoa, eskumenen esparrua eta jardun-arloen mugaketa

Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legearen 3. artikulua araberako, Euskal Autonomia Erkidegoko familia-politika funtsezko balio hauetan oinarrituko da:

- Familia-proiektuari dagokion erabaki- eta aukeraketa-askatasuna errespetatzea.
- Familiako kide guztien eskubideak errespetatzea, kideen adina eta autonomia-maila edozein izanik ere.
- Familia-dibertsitatea errespetatzea eta familia mota desberdinak berdintasunez tratatzea.
- Emakumei eta gizonei aukera-berdintasuna eskaintzea eta bikoteko bi kideen ardura partekatua finkatzea.
- Familiaren zeregina aitortzea, belaunaldien arteko eta belaunaldien barruko elkartasunaren eragile nagusi gisa.
- Askatasunaren, elkartasunaren, errespetuaren, tolerantziaren, berdintasunaren, pluraltasunaren, parte-hartzearen, bizikidetzaren eta, oro har, gizarte-bizikidetzako printzipio demokratikoen arloko balioen transmisore gisa familiak betetzen duen zeregina aitortzea eta errespetatzea.
- Kalteberatasun bereziko egoeran dauden edo gizarte-bazterketako arrisku-egoeran dauden familiekin elkartasunez jardutea.
- Familiako kideek familia-esparruaren barruan garapen pertsonal osorako autonomia izatea.

Balio horietan oinarrituta, Legearen 4. artikulua ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko familia-politikak eta haren esparruan antolatzen diren neurriek helburu hauek izango dituztela:

- Mota guztietako familien eskubideak sustatzea eta babestea eta haien ongizatea hobetzen laguntzea.
- Familiaren barruan haurren eta nerabeen babesa bermatzea.
- Pertsonak haien familia-proiektuei hasiera emateko eta nahi adina seme-alaba izateko oztopoak pixkanaka ezabatzen edo murrizten laguntzea.
- Familiako eta laneko arduren kontziliazioa erraztea, baita emakumea lan-merkatura dadin eta lanbide-karrera gara dezan ere.

- Familia-esparruaren barruan gizonen eta emakumeen ardura partekatua sendotzen laguntzea, eta batik bat adin txikiko seme-alaben zaintzan eta heziketan eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arretan.
- Belaunaldien arteko eta belaunaldien barruko elkartasuna sustatzea.
- Familiaren babes ekonomikoa bermatzea.
- Kalteberatasun bereziko egoeran dauden familietan gizarte-bazterketari aurrea hartzea.
- Gizartea, oro har, eta gizarte-eragileak, zehazki, familiaren zereginaren inguruan sentsibilizatzea, baita familiaren babesa, sustapena eta laguntza bermatzeko beharraren inguruan ere.
- Familiaren ingurunean gatazkak eta indarkeria saihestea eta murriztea.

Horretarako, 13/2008 Legeak honako neurri hauek hartzen ditu aintzat familiei babesa, arreta eta laguntza emateko neurrien artean:

- Laguntza ekonomikoak haien kargura dituzten seme-alaben ondorioz, seme-alabak mantentzearekin eta artatzearekin lotzen diren gastuak estaltzen laguntzeko.
- Adin txikiko seme-alabak zaintzeko eszedentzia-egoeran dauden edo lanaldi murriztua duten langileentzako laguntza ekonomikoak.
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko eszedentzia-egoeran dauden edo lanaldi murriztua duten langileentzako laguntza ekonomikoak.
- Laguntza ekonomikoak familiei haurreskolako gastuak ordaintzen laguntzeko.
- Seme-alabentzako etxez etxeko zainzaileak kontratatzeako laguntzak.
- Enplegu-emaitzako laguntza ekonomikoak, adin txikoko seme-alaben zaintzarako eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintzarako eszedentzia-egoeran dauden edo lanaldi murriztua duten langileen ordezkotzat pertsonak kontratatzeako.
- Familiei etxebizitzaren eta lurzorua arloan laguntzeko neurri espezifikoak.
- Familiei hezkuntzaren arloan laguntzeko neurri espezifikoak⁴.

⁴ Neurri horien artean nabarmentzen dira: 0 eta 3 urte arteko haurrentzako haurreskolak finkatzea; aurrez ezarritako eskola-ordutegia eta eskola-egutegia osatuko duen curriculumaz kanpoko arreta-neurriak hartzea, emakumeen eta gizonen bizitza

- Familiei kulturaren, kirolaren eta aisialdiaren arloan laguntzeko neurri espezifikoak.
- Familiei gizarte-zerbitzuen arloan laguntzeko neurri espezifikoak.
- Familiei gizarteratzearen arloan laguntzeko neurri espezifikoak.⁵
- Garraioaren arloko neurriak.
- Familiei laguntzeko neurri fiskalak.
- Sentsibilizazio- eta sustapen-neurriak.

Legeak 17. artikuluan ezartzen du Eusko Jaurlaritzak sustatuko duela enpresetan familia-bizitzaren eta lanaren kontziliazioa lagunduko duten neurriak hartzea eta, modu ez oso zehatzean, familiei hainbat arlotan laguntzeko zenbait zerbitzu ezartzea, hala nola etxebizitzaren eta lurzorua arloan, hezkuntzan, kulturean, kirolean, aisialdian, gizarte-zerbitzuetan, gizarteratzean, garraioan eta fiskalitatean.

Beste arau batzuek ez bezala —Gizarte Zerbitzuen Legeak edo Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Legeak, adibidez—, 13/2008 Legeak ez du xedapen espezifikorik ezartzen Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko Planaren edukiari eta ezaugarriei dagokienez; erakunde arteko eta dimentsio anitzeko izaera adieraztera mugatzen da. Ildo horretan, Legearen 5. artikulua hau ezartzen du: “Familiak hainbat alderdi duenez, lege honetan hari babesa, arreta eta laguntza ematearren arautu diren neurriak erakunde jarduera-eremu material guztietatik hartu behar dira, eta, horretarako, ezinbestekoa da gai honetako eskumenak dituzten erakunde publiko guztien artean lankidetzan aritzeko eta koordinatzeko bide eraginkorrak zabaltzea, familiei laguntzeko erakunde arteko planen esparruan eta lege honetan aurreikusitako erakunde-antolaketaren bidez”.

Plana lantzeari eta onartzeari dagokionez, Legeak Eusko Jaurlaritzari esleitzen dizkion eskumenen artean dago “Foru-aldundiekin eta udalekin koordinaturik, Euskal Autonomia Erkidegoko familia-politikaren eta familiarentzako gizarte-zerbitzuen plangintza orokorra

pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioa errazteko; ikastetxeen eta oinarrizko gizarte-zerbitzuen arteko jarduera koordinatuak sustatzea, eskolaren esparruan hauteman diren gero eta gizarte-arazo handiagoei erantzun integrala emateko —horien hartzailea familia izan ohi da—; eta familiei zuzendutako orientazio- eta aholkularitza-zerbitzua sustatzea, hezkuntzaren eta garapen afektiboaren arloko arazoekin eta sor daitezkeen bestelako arazoekin lotuko dena.

⁵ Neurri horien artean nabarmentzen dira: zuzeneko familia-kargak dituzten diru-sarrerak bermatzeko errenten titularrek, guraso bakarreko familietako kideek eta kalteberatasun bereziko egoeran dauden familia ugarietako kideek enplegu-programetara eta gizarteratzeko eta lan-munduratzeko programetara sartzeko lehentasuna izatea; gizarteratzeko eta lan-munduratzeko prozesuak eta seme-alaben zaintza bateragarri egiteko zerbitzuak abian jartzea —kontziliazio-zailtasun bereziak dituzten kasuetan—; eta prekaritate ekonomikoko egoeran dauden pertsonen baldintzak hobetzeko beharrezkoak diren neurri juridikoak eta ekonomikoak sustatzea —alarguntzearen ondorioz egon daiteke prekaritate ekonomikoko egoeran edo bide judizialean, edo ebazpen judizial bidez onartutako hitzarmenean finkatutako pentsio osagarriak eta elikadura-pentsioak ez ordaintzearen ondorioz, betiere ezkontza-deuseztasunaren kasuan, legezko banantzeen kasuan, dibortzioen kasuan, izateko bikotea desegitearen kasuan edo filiazio- edo elikadura-prozesuen kasuan—.

egitea lehentasunak ezartzeko, lurraldeen arteko desorekak saihesteko eta gutxieneko babes-mailak bermatzeko”, baita “Dagokion familiei laguntzeko erakunde arteko plana onartzea, garatzea eta ebaluatzea” ere. Bestalde, Familiaren Euskal Kontseiluaren apirilaren 17ko 53/2012 Dekretuak Familiaren Euskal Kontseiluari esleitzen dizkion eginkizunetako bat da “Familiei laguntzeko erakunde arteko planen proposamenak aztertzea eta Familiei laguntzeko erakunde arteko planen betetze-mailari buruzko irizpena ematea”.

Azkenik, nabarmendu behar da, aplikazioko esparru subjektiboari dagokionez, 13/2008 Legearen 2. artikulua hau adierazten duela: “familia da bi pertsonak edo gehiagok osaturiko bizikidetzataldea, pertsona horiek ezkontzaz edo horren antzeko harreman batez loturik daudenean, edo elkarren artean guraso eta seme-alaba direnean edo beste edozein ahaidetasun dutenean” eta “Lege honetan arauturik dauden laguntza-neurrien hartzaileak, batez ere, adingabeko seme-alabak dituzten familiak edo beren kasa moldatzen ez diren pertsonak dituzten familiak izango dira, betiere jardura mota bakoitzerako erabakita dauden baldintzak betetzen badituzte familia horiek”.

Plan hau xedapen horietan biltzen den arren, eta 4. kapituluan ere adierazten den bezalaxe, familiei laguntzeko aurreko planen aldean bi aldaketa planteatzen ditu —Familia eta Haurtzaroaren Aldeko Euskal Itunaren izpirituari jarraituz—:

- Batetik, familiei laguntzeko neurri espezifikoek gain, Plan honek gazteen emantzipazioarekin eta haurren eta gazteen ongizatearekin lotzen den zenbait ardatz eta helburu txertatzen du. Euskal araudian haurtzarorako eta nerabezarorako planak lantzeko betebeharrak finkatzen ez den arren⁶, komenigarritzat jo da haurtzaroaren eta nerabezaroren politiketara hedatzea familia-politiken plangintza, bi kolektibo horiek Familia eta Haurtzaroaren Aldeko Euskal Itunean identifikatutako lehentasunen erdian dauden aldetik.

Plan honen abiapuntuko ideia da haurtzaroaren eta familiaren politikek elkar osatzen dutela —haur eta nerabe gehienak haien familien barruan bizi baitira—, eta horrek ez duela eragozten haurrak eta nerabeak eskubideen banako titulartzat hartzea, familia jakin bateko kide izateaz harantzago. Plan honen ekintza-esparruak haur eta nerabe horien gurasoak ere hartuko ditu, eta guraso horiek ere zerbitzuak eta laguntzak behar dituzte haien guraso-ardurak gauzatzeko. Era berean, planaren ekintza-esparruan sartzen dira seme-alabarik ez duten arren epe laburrean eta ertainean seme-alabak izateko adinean dauden pertsonak.

- Aldi berean, Plan honek ez ditu aldaketak planteatzen mendekotasuna duten familiakoak zaintzen dituzten pertsonen berriaz zuzentzen zaizkien neurrietan. Izan ere, komeni da Plan hau Familia eta Haurtzaroaren Aldeko Euskal Itunean

⁶ Edonola ere, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak Eusko Jaurlaritzari esleitzen dio, arrisku- edo babesgabetasun-egoeran dauden adin txikikoen babesari dagokionez, haurrei eta nerabeei zuzendutako jardunen eta gizarte-zerbitzuen plangintza orokorra, baita administrazio publikoetako zenbait erakundek eta ekimen pribatu itunduko sektoreek adin txikikoen babesaren arloan garatzen dituzten jardunen koordinazioa ere, arlo horretako politika homogeneoa bermatzearren.

bildutako helburuetan ardaztea, zehazki haurtzaro-desberdintasunean, belaunaldien artean pobrezia jarraitzean eta haien familia-proiektuak eraikitzeko adinean dauden pertsonen ugalketa-itxaropenetan.

2.3. Beste estrategia, plan eta araudi batzuekiko koherentzia

Sail artekoak, erakunde artekoak eta dimentsio anitzekoak direnez gero, Plan honetan aintzat hartzen diren orientazioak eta jardunak bat datoz Euskal Autonomia Erkidegoan garatutako politika publikoak planifikatzeko beste tresna batzuetan planteatutako orientazioekin eta jardunekin. Izatez, Planean aintzat hartzen diren jardunetako asko helburu berdinak dituzten beste plan batzuen ondoriozkoak dira, eta, horrela, beste estrategia eta plan horiekin barne-koherentzia lortzen da.

Ilido horretan, Plan hau bat dator Eusko Jaurlaritzaren beste plan hauekin, eta plan horietan barnean hartzen diren jardunak hartzen ditu aintzat:

- **Etxebizitzaren Gida Plana (2018-2020)** (Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila). Etxebizitzaren Gida Planak jardun adierazgarriak planteatzen ditu gazteen emantzipazioa bultzatzeko —sustapen publikoko etxebizitzak eskuragarri eginez— eta familia ugarien eta guraso bakarreko familien etxebizitza-premiei erantzuteko.
- **Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila)**. Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoak (2016 / 2019) bi xedapen mota hartzen du barnean: batetik, berez plan estrategikoari dagokiona eta, bestetik, Gizarte Zerbitzuen Mapa hedatzeari dagokiona. Esparru horretan, plan horrek babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden haurrei zuzendutako zerbitzuen eta zentroyen hedapena eta ezaugarriak artikulatzen ditu.
- **Enplegu Plan Estrategikoa 2017-2020 (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila)**. Enplegu Plan Estrategikoak (2017-2020) maila operatiboan zehazten ditu Euskal Enplegu Estrategian (2020) definitutako zuzentarauak. Helburua da zuzentarau horiek baliagarriak izatea Eusko Jaurlaritzaren barruan enpleguaren sustapenarekin lotzen diren programak eta zerbitzuak gauzatzen dituen sailen lan-tresna gisa, betiere enpleguaren ikuskera zabala aintzat hartuta —lanaren, hezkuntzaren eta sustapen ekonomikoaren dimentsioekin lotzen diren alderdiak ere biltzen dituen ikuskera aintzat hartuta—. Lan-merkatuaren egoerari eta enplegu-politiken funtzionamenduari dagozkion zenbait ahulezia identifikatzen ditu Planak, eta ahulezia horietatik abiatuta bederatzi helburu estrategiko ezartzen ditu. Helburu estrategiko horien artean nabarmentzen da enplegua sustatzeko helburua, pertsonarik kaltetuenei eta gazteei zuzendutako ikusmolde espezifikoarekin.
- **Euskal Osasun Plana (2013-2020) (Osasun Saila)**. 2013an landua, eta 2020ra arteko indarraldiarekin, Euskal Osasun Planaren —Euskal Autonomia Erkidegorako Osasun Politiken (2013-2020)— printzipioetako bat ekitatea da, hau da, osasunean

eta gaixotasunean saihets daitekeen alde sistematikorik ez egotea maila sozialaren, ekonomikoaren, demografikoaren edo geografikoaren arabera definitutako biztanleria-taldeen artean⁷. Haurren eta gazteen osasuna da Euskal Osasun Planaren lehentasunetako bat; horrez gain, ingurune eta jokabide osasuntsuak sustatzeari buruzko atal bat ere nabarmentzen da.

- **Adikzioei buruzko VII. Plana (Osasun Saila).** Adikzioei buruzko VII. Planaren helburu nagusia da ahalik eta gehien murriztea mendekotasuna sortzen duten substantzien kontsumoa eta jokabide-adikzioak eta, horrenbestez, pertsonen eta familiakoen osasunaren gainean dituzten ondorioak murriztea, baita, oro har, biztanleriaren eta komunitatearen gainean dituzten ondorioak ere. Horretarako, Plana bost jardun-ardatzetan egituratzen da. Hiru jardun-ardatz hezkuntza eta prebentzioarekin, eskaintzaren murrizketa eta kontrolarekin eta asistentzia eta gizarteratzearekin lotzen dira, eta beste biak zeharkakoagoak dira eta erakunde-koordinazioarekin eta arlo horretako ezagutzaren garapenarekin eta kudeaketarekin lotzen dira.
- **IV. Gazte Plana (Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila).** IV. Gazte Plana egituratzen duten ardatz estrategikoen gazteriaren premia eta erronka nagusiei erantzuten diete: lanari, etxebizitzari eta hezkuntzari. Zehazki, Gazte Plana emantzipazioaren eta autonomiaren helburuetan oinarritzen da berariaz, eta, hartara, guztiz bat dator Plan honen oinarri den familietan eta haurtzaroan inbertitzeko estrategiarekin.
- **Boluntariotzaren Euskal Estrategia 2017-2020 (Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila).** Estrategia honen erronketako bat da boluntariotza eta boluntariotzaren balioak txertatzea hezkuntza-sistema formalean. Hori lortzeko, hezkuntza-ziklo osoaren etapa guztiak hartuko dira kontuan, zeharka zen irakasgai espezifikoetan. Bestalde, parte hartzeko eredu berrietarako gizarte-erakundeen egokitzapena ere nabarmentzen da. Horrek barnean hartzen du egitura horizontalen eredu orekatu bat aurkitzea, uztartuko dituen, batetik, militantzia, alderdi ideologikoa eta zentzuzkotasuna eta, bestetik, harremanak, elkarrekiko zaintza, sentimenduak, emozioak eta pertsonala dena politikoa ere badela ulertzea. Hortaz, eredu horretan konpromisoa, erantzukizuna eta diziplina egongo da, baita, aldi berean, zaintza pertsonala eta taldekoa ere.
- **Gizarteratzeko IV. Euskal Plana (Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila).** Gizarteratzeko IV. Euskal Planaren helburuetako bat da seme-alabak dituzten familientzako prestazio ekonomikoen sistema hobetzea eta arrazionalizatzea. Ildo horretan, planaren xedea da diru-sarrerak bermatzeko euskal politikaren barruan haurtzaroarekiko ikusmolde atsegina eta familiarra areagotzea, eta, bide horretatik, haurtzaroko pobrezia borrokatzeko ahalmena eta belaunaldien artean gizarte-bazterketa borrokatzeko ahalmena biderkatzea. Plan horretan, haurtzaroarekin eta familiekin lotzen diren jardunen artean hauek nabarmentzen dira: hiru kide baino gehiagoko familien diru-sarrerak bermatzeko errentan

⁷ Osasunean ekitatea lortzeak ekarriko du pertsona bakoitzak aukera bera izatea bere osasun-ahalmena osotasunean garatzeko, haren gizarte-baldintzak edozein izanik ere (gizarte-posizioa, generoa, bizitokia, lan mota, diru-sarrerak, ikasketamaila eta jatorriko herrialdea).

zenbatekoak hobetzea; eta erroldatze-aldia 36 hilabetetik 24 hilabetera murriztea, seme-alabak dituzten familien kasuan.

- **Euskal Autonomia Erkidegoan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana (Emakunde).** Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunerako VII. Planaren helburuen artean dago zaintza-lana berriro banatuko duen bestelako gizarte-antolamendua bultzatzea. Helburu orokor horrek zenbait helburu espezifiko hartzen ditu barnean, eta horiek guztiz bat datoz Familia eta Haurtzaroaren Aldeko Euskal Itunean biltzen direnekin, betiere genero-berdintasunari eta ardura partekatuen sustapenari dagokionez:

- Genero-arraila murriztea emakumeek eta gizonek ordaindu gabeko zaintza-lanei eskaintzen dieten denboran.
- Haurrek eta gazteek zaintza-lanetan ematen duten denbora gehitzea, mutilen kasua azpimarratuz.
- Ardura partekatuko kontziliaziorako neurriak baliatzen dituzten gizonen kopurua gehitzea.
- Emakumeek eta gizonek kontziliazio-neurriak baliatzeko hautematen dituzten zailtasunak murriztea.
- Guraso-baimenak pareka daitezen sustatzea, berdinak eta besterenezinak izan daitezen.
- Sektore pribatuko enpresek zaintzarekiko duten ardura partekatua gehitzea.
- Administrazioek eta enpresa publikoek ardura partekaturako hartutako kontziliazio-neurrien kopurua gehitzea.
- Haurrei, adineko pertsoneri eta mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri arreta egiteko gizarte- eta komunitate-zerbitzuen estaldura eta ordutegi-malgutasuna gehitzea.
- Herriarrei zuzendutako zerbitzu publikoen ordutegi-malgutasuna gehitzea.
- Ardura partekatuko kontziliazioa eta autonomia erraztuko dituzten lurralde- eta hiri-plangintzako irizpideak identifikatzea eta aplikatzea, baita etxebizitza, espazio publikoak eta garraio iraunkorra diseinatzeko irizpideak ere.

Gainera, VII. Berdintasun Planak zenbait helburu finkatu ditu emakumeentzako enplegu gehiago eta hobeak sortzeari dagokionez, funtsezkoa baita Familia Plan honen helburuak lortzeko. Helburu horietatik hauek nabarmen daitezke:

- Emakumeen jarduera- eta okupazio-tasa gehitzea, kalitateko enpleguetan parte hartuz.
- Enplegua eta autoenplegua sustatzen duten emakumeen kopurua gehitzea.
- Finkatzen diren, lehiakorren diren eta/edo nazioartekotzen diren emakumeek sustatutako enpresa-proiektuen kopurua gehitzea.

- Zaintzarekin lotzen diren enplegu-hobiak guztiz garatzea eta sektore horretan kalitateko enplegua sortzea.
- Prekarietate-baldintza berezietan —zaintza-lan ordainduetan eta lehen sektorean garatzen diren lanetan, besteak beste— egiten diren lan feminizatuen lan-baldintzak eta gizarte-estaldura hobetzea.
- Generoaren araberako soldata-arraila murriztea, hau da, emakumeek eta gizonek urtean batez beste kobratzen duten soldata gordinean dauden aldeak murriztea, batez ere arraila handia den kasuetan.
- Lantokietako promozio profesioaletan sartzten diren emakumeen ehuneko gehitzea, prozesu komunikatuen eta gardenen bitartez.

Bestalde, aditzera eman behar da IV. Plan honen orientazioak eta jardunak koherenteak direla Europar Batasuneko eta Nazio Batuetako erakundeek, nazioartean, aldarrikatzen dituzten jardun-ildoekin. Eskubide Sozialen Europako Zutabea, 2013ko otsailaren 20ko Europako Batzordearen gomendioa —*Haurtzaroan inbertitzea: desabantailen zikloa apurtzea*— eta Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda aipatu behar dira.

- 2013ko otsailaren 20ko Europako Batzordearen gomendioak —*Haurtzaroan inbertitzea: desabantailen zikloa apurtzea*— agerian uzten du Europar Batasuneko herrialde gehienetan haurrak pobrezia edo gizarte-bazterketako arriskuan daudela eta pobrezian edo gizarte-bazterketan hazten diren haurrek egoera hobean dauden haurrek baino aukera gutxiago dutela eskola-errendimendu ona izateko, osasun ona izateko eta bizitzaren hurrengo faseetan haien ahalmen osoa baliatzeko. Egiatzapen hori abiapuntu izanik, Batzordeak oinarritzko hiru ideia azpimarratzen ditu babes sozialeko Europako ereduak berriro artikulatzera begira:
 - Desabantailak belaunaldi batetik bestera transmiti daitezen saihestea ezinbesteko inbertsioa izango da Europaren etorkizunerako, eta epe luzera oso onuragarria izango da haurtzaroarentzat, ekonomiarentzat eta, oro har, gizartearentzat.
 - Esku-hartze goiztiarra eta prebentzioa funtsezkoak dira politika eraginkorragoak eta efizienteagoak egiteko.
 - Bizitzaren lehen urteetan desabantailak zuzentzea garrantzi handikoa izango da pobrezia eta gizarte-bazterketari aurre egitera zuzentzen diren ahaleginak areagotzeko.

Iritzi horiek abiapuntu izanik, gomendioak hiru zutabe estrategiko ezartzen du arlo horretako politikak garatzeko:

- Familiek eta haurrek baliabide egokiak eskuragarri izatea: gurasoen lan-munduratzeko erraztea eta haurren bizitza-maila egokia bermatzea, laguntza ekonomikoen bidez, zerga-arinketen bidez eta etxebizitzarako laguntzen bidez.
- Kalitateko zerbitzuak eskuragarri izatea: lehen haurtzarotik arreta sustatzea; hezkuntza-sisteman aukera-berdintasuna bermatzea; osasun-sistema, etxebizitza eta ingurune egokia behar bezalako baldintzatan baliatzea; eta haurtzaroaren babes-sistemak hobetzea.

- Hurrek parte hartzeko duten eskubidea baliatzea: hurrek kulturen eta kirolean parte har dezaten bultzatzea, jolasteko eskubidea sustatzea eta haien bizitzan eragina duten erabakietan parte hartzeko mekanismoak ezartzea.

Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko Plan honek zein Familia eta Haurtzaroaren Aldeko Euskal Itunak planteamendu horiei erantzuten diete, eta, Batzordearen gomendioa bezalaxe, gizarte-inbertsioaren paradigman biltzen dira⁸.

- Eskubide Sozialen Europako Zutabearen helburua da egungo erronkei eta etorkizunekoiei erantzuteko enplegu- eta gizarte-erantzukizunak lortzeko gida gisa baliagarria izatea, eta, horrela, biztanleriaren funtsezko premiak gogobetetzea eta eskubide sozialen erregulazio eta aplikazio hobea bermatzea. *Eskubide Sozialen Europako Zutabeari buruzko erakunde arteko aldarrikapen-proposamenaren arabera*⁹, “Europar Batasunak, Europar Batasuneko estatuak eta gizarte-solaskideak partekatzen dute Eskubide Sozialen Europako Zutabearen helburuak betetzeko konpromisoa eta ardura. Eskubide Sozialen Europako Zutabearen ezarritako printzipioak eta eskubideak Europar Batasunaren mailan zein Europar Batasuneko estatuaren mailan aplikatu beharko dira, haien eskumenen barruan eta subsidiarotasun-printzipioaren arabera”. Hauek dira Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Plan honekin zuzenean lotzen diren Eskubide Sozialen Europako Zutabearen elementuak:
 - Etengabeko hezkuntza, prestakuntza eta ikaskuntza. Pertsona orok du etengabeko eta kalitateko hezkuntza, prestakuntza eta ikaskuntza inklusiborako eskubidea, eta, hartara, gizartean erabat parte hartzeko aukera emango dioten gaitasunak mantentzeko eta eskuratzeko eskubidea, eta lan-merkatuko trantsizioak arrakastaz kudeatzeko eskubidea.
 - Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna:
 - a) Esparru guztietan bermatu eta sustatu beharko da emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasuna, baita lan-merkatuko parte-hartzeari dagokionez, lan- eta enplegu-baldintzei dagokienez eta karreraren progresioari dagokionez.
 - b) Emakumeek eta gizonek balio bereko lan baten truke ordainsari berdina jasotzeko eskubidea dute.
 - Aukera-berdintasuna. Sexua, arraza, etnia, erlijioa, sinesmenak, desgaitasuna, adina edo orientazio sexuala edozein izanik, pertsona orok

⁸ Aurrerago aditzera ematen den bezalaxe, paradigma horrek ideia honen aldeko apustua egiten du: ongizate-estatua prestaketara zuzendu beharko da eta ez soilik konponketara. Ildo horretatik, prebentzioko hezkuntza- eta gizarte-politiken alde egingo du, gizarte-politika tradizionalen izaera erreaktiboaren edo aringarriaren aurrean. Gizarte-inbertsioaren paradigma, beraz, gizarte-garapenaren arloko Europako erakundearen paradigma hegemoniko bihurtu da, eta familiaren eta haurtzaroaren arloko esku-hartze publikoa ulertzeko beste modu bat da —haurren ongizatea eta garapen kognitiboa eta emozionala gizartearen osotasunaren epe luzerako kohesiorako funtsezko faktoretzat jotzen den heinean—.

⁹ Bruselas, 2017.4.26 COM (2017) 251 amaiera.

du tratu eta aukera berdina izateko eskubidea enpleguari dagokionez, gizarte-babesari dagokionez, hezkuntzari dagokionez eta herritarren esku dauden ondasunen eta zerbitzuen erabilerari dagokionez. Errepresentazio txikia duten taldeen aukera-berdintasuna sustatu beharko da.

- Bizitza profesionalaren eta bizitza pribatuaren arteko oreka. Gurasoek eta asistentzia-ardura duten pertsonen baimen egokiak baliatzeko eskubidea dute, baita lan-baldintza malguak eta asistentzia-zerbitzuak izateko eskubidea ere. Emakumeek eta gizonen haien asistentzia-ardurak betetzeko baimen berezietan gozatzeko aukera bera izan beharko dute eta modu orekatuan erabiltzera animatu beharko zaie.
- Haurrentzako asistentzia eta laguntza:
 - a) Haurrek kalitate oneko hezkuntza eta asistentzia eskuragarriekin gozatzeko eskubidea dute.
 - b) Haurrek pobrezia-aren kontra babesteko eskubidea dute. Ingurune kaltetuetako haurrek aukera-berdintasuna sustatzera zuzentzen diren neurri espezifikoak baliatzeko eskubidea dute.
- 2015eko irailean, 150 estatu-buru eta gobernu-buru baino gehiago bildu ziren Garapen Iraunkorraren Gailur historikoan eta Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda onartu zuten. Agenda horrek aplikazio unibertsaleko 17 helburu jaso ditu. Helburu horiek, 2016ko urtarrilaren 1etik, gidatzen dituzte herrialdeek 2030. urterako mundu iraunkorra lortzeko egiten dituzten ahaleginak¹⁰.

Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Plana lagungarria izango da, Euskal Autonomia Erkidegoan, 2030 Agendaren honako helburu hauek lortzeko:

- Bizimodu osasuntsua bermatzea eta pertsona guztien ongizatea sustatzea, pertsonen adina edozein izanik ere.
- Kalitateko hezkuntza inklusiboa eta ekitatiboa bermatzea eta pertsona guztientzako etengabeko ikaskuntzarako aukerak sustatzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea eta emakumeak eta neskak ahaldunduz.
- Hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta iraunkorra sustatzea, baita pertsona guztientzako enplegu osoa eta produktiboa eta lan duina ere.

¹⁰ Euskal Autonomia Erkidegoan, agenda hori Basque Country 2030 Agendan gauzatu da.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko familien, haurren eta nerabeen egoera

Ondoren aurkezten den diagnostikoak laburbiltzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Planaren ebaluazio-txostenak eta Familietan eta Haurtzaroan Inbertitzeko Estrategiarako oinarrien dokumentuak biltzen dituzten oinarritzko elementu guztiak.

Hauek dira txosten horiek aditzera ematen dituzten oinarritzko elementuak:

Haurtzaroaren egoera ona da, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoan

Gure herrian haurren eskubideen alde lan egiten duten erakundeek egindako azterketek agerian uzten dute haurren eta nerabeen egoera on samarra dela Euskal Autonomia Erkidegoan eta, oro har, bizi-baldintza zuzenak dituztela. Izan ere, Europako beste herrialde batzuekin alderatuta, Euskal Autonomia Erkidegoan haurren eta familien egoera ona da, kontuan hartzen badira ongizate materialaren, haurren eskolaratzearen, hezkuntza ekitatiboaren, osasun-zerbitzuen eskuragarritasunaren edo gizarteratzearen mailak. Pobrezia- eta bazterketa-arriskuan bizi diren adin txikikoen tasa % 25,3koa da Euskal Autonomia Erkidegoan, Europar Batasunean (28 estatu) % 27,1ekoa denean edo Espainian % 34,4koa denean.

Konparazioan egoera hobea bada ere, gaur egungo agertoki sozioekonomikoan familien eta haurtzaroaren inguruan planteatzen diren alderdi kezagarri horiek guztiak adierazi eta nabarmendu behar dira, Plan honen ondoriozko jardunak garatzea justifikatzen duten aldetik.

Jaiotza-tasaren gainbeherak jarraitzen du, nahiz eta ugalkortasunaren gorakada hasi berri den

Euskal Autonomia Erkidegoa Europa barruan jaiotza-tasa txikieneko eskualdeetako bat da¹¹. 2016an, mila biztanleko 8,4 haur jaio ziren Euskal Autonomia Erkidegoan. Balio hori Europar Batasunaren (28 estatu) batez bestekoaren azpitik dago (10,0), eta Irlanda (14,2), Frantzia eta Erresuma Batua (12) edo Suedia (11,8) gisako herrialdeen tasen oso azpitik. Emakume bakoitzeko seme-alaben kopuruari erreparatzen bazaio, Euskal Autonomia Erkidegoa behealdeko muga dago. 2016an, ugalkortasunaren adierazle koiunturala 1,39 seme-alabakoa izan da Euskal Autonomia Erkidegoan, 1975. urteko batez besteko 2,78 seme-alabetatik eta belaunaldi ordezkapenerako beharrezkoak diren 2,1 seme-alabetatik oso urrun. Nazioarteko testuinguruan, Euskal Autonomia Erkidegoko ugalkortasun-indizea

¹¹ Euskal Autonomia Erkidegoko gainbehera demografikoa 70eko eta 80ko hamarkadetan izandako aldaketa kulturalen eta ekonomikoen garaian hasi zen, Europako beste herrialde batzuetan bezalaxe. 80ko hamarkadako krisialdi ekonomiko handia argi eta garbi islatu zen belaunaldi berrien ohiko emantzipazio-prozesuen erabateko aldaketan. Gizarte-ugalketako prozesu normalak mugatzean, heldu gazteen populazioan nagusi zen lan- eta gizarte-mailako prekarietatea oso lagungarria izan zen portaera demografikoen goitik beherako aldaketan. Krisialdi horren adierazpen nagusia izan zen ugalkortasun- eta jaiotza-tasaren bat-bateko beherakada —Euskal Autonomia Erkidegoan Estatuaren gainerakoan edo Europar Batasunean baino are handiagoa izan zen—.

Europar Batasunaren indizearen azpitik dago (1,58), eta Frantzia (1,96), Irlanda (1,92) edo Suedia (1,85) gisako herrialdeetatik oso urrun. Azken urteotan, amatasuna etengabe atzeratzea izan da jaiotza-tasaren murrizketarekin lotzen den faktoreetako bat —jakina, ez faktore bakarra—: Euskal Autonomia Erkidegoan amatasunaren batez besteko adina 28,6 urtetik (1975) 32,8 urtera (2015) pasa da. Izatez, Euskal Autonomia Erkidegoak du, Londresko eremu metropolitarraren ondoren, batez besteko amatasun-adinik handiena Europar Batasunaren barruan.

Euskal Autonomia Erkidegoan ugalkortasunak izandako bilakaerari buruzko datuak ñabartu eta alderatu beharko dira Espainiako gainerako autonomia-erkidegoetan azken urteotan izandako bilakaerarekin. 2008an hasitako krisialdi ekonomikoak eragin desberdina izan zuen Euskal Autonomia Erkidegoan eta Estatuko beste autonomia-erkidego batzuetan, eta, hori dela eta, portaera demografiko askoz ere positiboa izan du bertan. Krisialdiak krisialdi, 2008 eta 2016 artean, Euskal Autonomia Erkidegoan ugalkortasunak zertxobait egin zuen gora, Espainiako gainerakoan ugalkortasun-indizeek behera egin zutenean, bai eremu ekonomiko dinamikoetan, bai garapen-ahalmen txikiagoa duten eremu ekonomikoetan. Izatez, 2008 eta 2016 artean, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan soilik erregistratu ziren gorakadak ugalkortasun-indizean; 2011tik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoa estatuaren batez bestekoaren gainetik kokatzen da adierazle horri dagokionez.

Hala ere, bide luzea egin behar da oraindik. Izatez, hobekuntzaren zati bat lotzen zaio Euskal Autonomia Erkidegoan kokatu diren atzerriko emakumeek duten portaera desberdinari, Estatuaren osotasunean kokatutako jatorri bereko emakumeen aldean. Edonola ere, iragan den krisialdian biztanleriari babes handiagoa eskaintzeko testuinguruan, pentsa daiteke ekonomiaren lehengoratzek posizio hobean uzten dituela Euskal Autonomia Erkidegoko gazteen belaunaldi berriak —80ko hamarkadan eta goeko hamarkadan lan-merkaturatu ziren belaunaldiek izan zutenaren aldean—.

Gazteen ugalketa-nahiak eta -itxaropenak gauzatzeko zailtasunek jarraitzen dute

Jaiotza-tasaren eta ugalkortasun-tasaren bilakaeraz gain, eta aldaketa horien atzean dauden egiturazko eta koiunturazko faktoreez gain, jaiotza-tasaren arloko “ongizate-defizit” gisa har daitezkeen faktoreak ere aipatu behar dira: izan nahi den seme-alaba kopuruaren (Europako herrialde gehienetan 2,2 eta 2,4 artean daude) eta azkenean izaten den seme-alaba kopuruaren artean dagoen aldea. Disonantzia horrek islatzen du pertsonak ezin dutela nahi luketenaren moduko familia sortu eta, azken urte hauetan, ez direla biztanleriaren ugalketa-itxaropenak aldatu, baizik eta itxaropen horiek gauzatzeko aukerak.

Horrenbestez, jaiotza-tasaren murrizketa ez da inplikazio demografikoen edo sozioekonomikoen arabera neurtu behar; funtsean, banako inplikazioen arabera balioztatu beharko da, gizabanakoen bizitzaren gogobetetasunean eta ongizatean baitu eragina. Horrenbestez, aditzera eman daiteke familia-politikaren azken helburua ez dela, halabeharrez, seme-alaben kopurua gehitzea, baizik eta familia osatzen dutenen ugalketa-itxaropenak gauzatu ahal izatea.

Kautelaz interpretatu behar diren arren, eskura dauden datuek baieztatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoan arrail handia dagoela nahi den ugalkortasunaren eta lortu den ugalkortasunaren artean. Euskal Autonomia Erkidegoan 18 urte edo gehiagoko pertsonen % 77k bi seme-alaba edo gehiago eduki nahi lituzkete, edo eduki nahi izango zituzketen. Soilik % 11k adierazten du seme-alaba bakar bat izan nahiko lukeela eta % 5ek batere ez lukeela nahi, eta antzeko ehunekoak bildu dira emakumeen eta gizonen artean. Euskal Autonomia Erkidegoko populazioaren erdiak, gutxi gorabehera, adierazi du nahi baino seme-alaba gutxiago izan duela, eta horretan ez da genero-desberdintasun handirik hauteman (% 49 emakumeen artean eta % 53 gizonen artean).

Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko pertsonen ehuneko handi samar batek familia- edo demografia-ugalkortasunarekin lotzen diren arazoak ditu, hau da, baliabide ekonomiko urriengatik, lan-ziurgabetasunagatik eta/edo seme-alaben zaintzarekin eta arretarekin lotzen diren arazoengatik ez dute nahi adina seme-alaba izan. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak 2014an egindako Premia Sozialen Inkestaren arabera, euskal etxeen % 5,6k, ia 50.000 etxek, familia- edo demografia-ugalkortasunarekin lotzen diren arazoak dituzte, eta ez dute nahi adina seme-alaba izan, baliabide ekonomiko urrien ondorioz, lan-ziurgabetasunaren ondorioz eta/edo seme-alaben zaintzarekin eta arretarekin lotzen diren arazoaren ondorioz.

Gazteen emantzipaziorako eta bizitza autonomoko proiektuen eraikuntzarako zailtasunek jarraitzen dute

Plan honek ebatzi nahi dituen arazoaren azpian dauden faktoreak azaltzeko garaian, gazteen emantzipazio-prozesuen eta bizitza heldurako trantsizio-prozesuen zailtasunak ere adierazi behar dira. Izatez, gazteek bizitza autonomoko proiektuak eraikitzeke dituzten zailtasunek eta pobrezia ezkutua deritzanak —lan-merkatuaren eta etxebizitza-merkatuaren funtzionamenduaren emaitzak, hein handi batean— zuzeneko inpaktua dute familiak osatzeko prozesuan eta, hortaz, jaiotza-tasan¹².

Pobrezia eta Gizarte Ezberdintasunen Inkestak eskaintzen dizkigun pobrezia ezkutuari buruzko datu berriek agerian uzten dute 18 eta 44 urte arteko ehun mila pertsonen familia berri bat osatu nahiko luketela eta, arrazoik ekonomikoak tarteko, ezin dutela¹³. Etxebizitza eskuratzeko zailtasunekin batera, enplegu egokirik ez izatearekin edo laneko ezegonkortasunarekin lotzen diren arazoak nabarmentzen dira emantzipazio-prozesua eragozten duten oztopo nagusien artean.

Horrek guztiak emantzipazioa atzeratzea eragin du; Euskal Autonomia Erkidegoan batez beste 30 urterekin gertatzen da, Frantzia, esate baterako, 23 urterekin gertatzen denean.

¹² 1986an, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Egoera Babesgabeen buruzko Azterketak —gaur egungo Pobrezia eta Gizarte Ezberdintasunen Inkestaren aitzindariak— honela definitu zituen pobrezia ezkutua: independenteak izan daitezkeen familia-unitateetan, familia independente hori eraikitzea erabakiz gero, pobrezian bizitzea ekarriko luketen inguruabarrak. Azterketaren ondorioek pobrezia ezkutua eta krisialdi demografikoaren arteko lotura iradokitzen zuten, ezkontzakoa zein ugalkortasunakoa. Ildo horretan, gazteen artean benetako pobrezia kontrolatzeko hiru mekanismo nabarmendu zituen, prozesu demografikoaren gainean inplikazio nabarmenak dituztenak: ezkongabetasunaren luzapena, gurasoen etxetik irteteko atzerapena eta jaiotza-kontrola.

¹³ Egoera horren prebalentzia zertxobait txikiagoa da emakumeen artean: Pobrezia eta Gizarte Ezberdintasunen Inkestaren arabera, pobrezia ezkutua adin horretako gizonen % 8,5ean du eragina eta emakumeen % 7,2an, eta egoera horren eraginpean dauden pertsonen % 56 gizonak dira.

Horri dagokionez, eta kausa-ondorio zuzena ez bada ere, agerikoa da Europar Batasuneko herrialdeetako gazteen emantzipaziorako batez besteko adinaren eta ugalkortasun-tasaren arteko lotura. Izatez, Europar Batasunaren testuinguruan, Euskal Autonomia Erkidegoa nabarmentzen da gazteak emantzipatzen diren adin handiagatik eta, aldi berean, 30 urtetik beherako emakumeen ugalkortasun-tasa txikiagatik.

Lanaren eta familiaren kontziliaziorako zailtasunak mantentzen dira

Bestalde, lanaren eta familiaren kontziliaziorako zailtasunak mantentzen dira; zailtasun horiek eragin handiagoa dute bikote gazteen artean eta, batik bat, emakumeen artean (azken horien artean proportzioz kanpo).

Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Planaren ebaluazioaren arabera, pertsona landunen ehuneko handixeagoak adierazten du lana eta adin txikiko seme-alaben zaintza bateragarri egiteko zailtasun handiak dituela. Era berean, azken urteotan gora egin du haien lanaldia edo lan-egutegia zaintza-premietara egokitzeko zailtasunak dituzten pertsonen ehunekoak, edo amatasunak emakumezkoen lan-ibilbidea asko edo dezente zailtzen duela uste dutenen ehunekoak.

Bestalde, seme-alabak izan dituzten eta lan egiten ari diren edo lan egin duten pertsonen % 40 ez daude gogobeteta edo ez daude batere gogobeteta kontziliaziorako aukera pertsonalekin; ia ehuneko berdinak uste du amatasunak edo aitatasunak asko edo zertxobait murriztu zituela laneko promoziorako haien aukerak, eta % 30ek, berriz, uste du lana aurkitzeko aukerak murriztu zizkiola. Horrez gain, azken hiru urteotan ia 30.000 pertsonak eten dute haien lan-jarduna, mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko arazoan ondorioz; horietatik, ia 24.000 (hau da % 83) emakumezkoak dira. Biztanleriaren % 1,9 soilik bada ere, haien mende seme-alabak dituzten familia nuklearretako emakumeen % 6,9 da (% 0,8 familia multzo berean dauden gizonetzkoen kasuan).

Genero-desberdintasunek eta seme-alaben hazkuntzan ardura partekaturako zailtasunek jarraitzen dute

Emakumeak modu masiboan lan-merkaturatzearekin batera, genero-harremanen transformazioa izan da azken hamarkada hauetako gizarte-aldaketa nagusietako bat, eta aldaketa horrek ageriko ondorioak izan ditu familia-politiken plangintzan eta diseinuan. Ildo horretan, nabarmendu behar da zer disonantzia handia dagoen, batetik, biztanleriaren jarrera gero eta berdinzaleagoaren eta, bestetik, oraindik ohikoak diren etxeko eta zaintzako lanen banaketaren artean, batez ere seme-alabak jaio eta gero.

Oraindik ere, seme-alabak dituzten emakumeek gizonen baino okupazio- eta jarduera-tasa txikiagoak dituzte, eta, gainera, lanean ari diren emakumeek gizonen baino denbora-tarte handiagoa eskaintzen diote mendeko pertsonen arretari. Lanaren eta familiaren kontziliazioari buruzko EUSTATen estatistikaren arabera, ageriko da etxeko lanen banaketa oso desberdina dela emakume eta gizon landunen artean. Gaur egun, etxetik kanpo lan egiten duten emakumeek egunean, batez beste, 4,7 ordu eskaintzen diote 15 urte baino gutxiagoko seme-alaben zaintzari, eta gizonen egunean soilik 3,3 ordu eskaintzen diote. Soldatapeko lanari eskaintzen dioten denboraz gain, emakumeen erdiek

(%51k) egunean 5 ordu edo gehiago eskaintzen diote seme-alaben zaintzari. Haatik, proportzio hori %23koa da gizonen artean. Gizon eta emakume landunen artean are desorekatuagoa da etxeko lanen banaketa: Euskal Autonomia Erkidegoan emakume landunen ia %30ek egunean hiru ordu baino gehiago eskaintzen diete etxeko lanei, eta gizonen %8k.

Bestalde, amatasunak edo aitatasunak emakumeen eta gizonen lan-ibilbidea zein heinean eragozten duen aztertuz gero, ikus daiteke, jendearen iritziz, amatasunari aitatasunari baino askoz ere kalte handiagoa egiten diola; gainera, azken urte hauetan gora egin du amatasunak lan-ibilbidea aitatasunak baino gehiago edo askoz gehiago oztopatzen duela uste dutenen ehunekoak.

Etxean haurrak izatearekin lotzen den pobrezia-diferentzialak jarraitzen du

Pobreziak eta desberdintasunak gizarte-talde desberdinetan oso bestelako eragina izan dute, eta haien kargura seme-alabak dituzten familiak gero eta pobrezia-arrisku handiagoaren eraginpean izan dira. Izatez, azken urteotan Europako herrialdeetan “berriro ezagutzen” ari da haur-pobreziaren fenomeno, eta areagotzen ari da egoera horiek epe laburrera, ertainera eta luzera haurren bizi-baldintzetan, bizitza-itxaropenetan eta garapen- eta integrazio-aukeretan duten eraginaren gaineko kezka¹⁴.

Europako beste herrialde batzuekin alderatuta, haur-pobreziaren tasak erdi-mailakotzat jo daitezke, eta azken urte hauetan murriztu egin dira. Edonola ere, 2014tik aurrera pobreziaren adierazle gehienek erakusten duten bilakaera positiboaren kalterik gabe, gaur egungo egoera lehenago hasitako logika baten emaitzazkoa da —gaur egungo egoeran, haurren artean helduen artean baino nabarmenagoa da pobreziaren eragina—. Pobreziaren eta Gizarte Ezberdintasunen Inkestaren serie historikoez erakusten dutenez, 1996tik aurrera gutxienez, haur-pobrezia populazioaren osotasunaren pobrezia baino handiagoa da, eta bi tasek 1996 eta 2004 artean pixkanaka-pixkanaka bat egin zuten arren, urte horretatik aurrera aldeak gora egin du. 2016an, 14 urtetik beherako pobrezia-tasa populazioaren osotasunaren pobrezia-tasaren %170en baliokidea zen. Haur-pobrezia pobrezia orokorra baino zertxobait gutxiago murriztu denez gero, 2016an haur-pobreziaren eta pobrezia orokorraren arteko arraila 2014an hautemandakoa baino handixeagoa zen.

Diferentzial horrek ondorio argia du seme-alabak dituzten familien pobrezia-arriskuan: 15 urte baino gutxiagoko Euskal Autonomia Erkidegoko haurren %10 benetako pobrezia-egoeran bizi dira —guztira 30.000 pertsona baino gehiago—. Horietatik, %17k ezin dute bi egunean behin otordu proteiniko bat egin, %12k ez dute gutxienez bi oinetako pare; %40k ez dute arropa berria eta %48k ezin dituzte doakoak ez diren eskola-jarduerak egin.

Horren guztiaren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoan pobreziak gaur egun haur- eta gazte-profila du: 24 urtetik beherako pertsonak populazioaren %22 inguru besterik ez

¹⁴ Begien bistakoa ematen duen arren, gogorarazi behar da haur-pobreziak mintzatzen garenean ez gara haurren pobreziak, zentzu hertsian, mintzatzen ari, baizik eta seme-alabak dituzten familien pobreziak eta, zehatzago esanda, seme-alaben premiei erantzuteko gurasoen diru-sarreraren gutxiegitasunaz.

badira ere, gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan benetako pobrezia-egoeran dauden pertsona guztien % 40 dira.

Aditzera eman behar da haur-pobreziaren hazkundearen atzean haurren arteko desberdintasunen gehikuntza dagoela. Izatez, Euskal Autonomia Erkidegoan 2008 eta 2016 artean gehitu egin dira haurren arteko desberdintasunak, eta, urte horietan, Gini indizea 25,6 izatetik 26,4 izatera pasa da. Populazio helduaren artean hazkunde hori are handiagoa den arren, datu horiek agerian uzten dute haur-pobreziaren hedapena zein heinean lotzen den gurasoen ezaugarri sozioekonomikoen eta soziodemografikoen ondorioz haurren eta nerabeen artean dauden aldeak areagotu izanarekin. Eta hori, halaber, oso lotuta dago emakumeek lan-merkatuan parte-hartze txikiagoa izatearekin — horrek haurren eta familien pobrezia arriskua gehitzea dakar eta—.

Europa osoan hazi da mugikortasun sozialerako zailtasunen gaineko kezka eta pobreziaren belaunaldi arteko transmisioaren gaineko kezka

Desberdintasunen eta pobreziaren gehikuntzak eragin handia du haurrengan; eraginik handiena lotzen da gorako mugikortasun sozialerako aukera txikiagoekin eta ondorengotza sozialaren gorakadarekin, betiere gizartean gora egiteko aukerak degradatuta dauden testuinguru batean. Izatez, gurasoen harremanetarako kapitalak eta kulturaren eta hezkuntzaren arloko kapitalak gero eta pisu handiagoa izango dute gizartean —kualifikazio txikiko eskulana gero eta urriagoa eta okerrago ordaindua izango den gizarte batean—. Ezagutzaren gizartean, pertsonen bizi-aukerak gero eta gehiago daude haurtzaroaren lehen urteetatik metatzen den kapital kulturalaren, sozialaren eta kognitiboaren mende. Ondoriozta daiteke, testuinguru berri horretan, familiek eta hezkuntza-sistemek bizitzako lehen urteetan beharrezkoak diren ikaskuntzak eta estimuluak eskaintzeko duten ahalmenaren ondoriozkoak direla gaur egungo —eta are gehiago etorkizuneko— desberdintasun-forma nagusiak eta bazterketa-iturri nagusiak.

Gero eta agerikoagoa da jatorri sozialak finkatzen dituela gizabanakoaren bizi-aukerak, eta jatorri soziala gure arbasoen garaian bezain erabakigarria dela; haatik, desberdintasun horren jarraipenak iraganean baino arazo handiagoa planteatzen du gaur egun, kontuan hartzen badugu etorkizun hurbilean zer ezagutza eta trebetasun mota izango den beharrezkoa zentzuzko bizi-baldintzak mantentzeko, betiere ezagutzaren ekonomiaren testuinguruan.

Ebidentzia zientifikoak iradokitzen duenez, gaur egun erregistratzen den diru-sarreren desberdintasun handiagoak tarteko, familia-testuinguruak gero eta garrantzi handiagoa du gazteen etorkizuneko bizitza-maila zehazteko garaian, eta gero eta txikiagoa da ahalegin pertsonalak etorkizuneko bizi-baldintzetan duen inpaktua. Gösta Esping-Andersen gisako egileek azaldu dutenaren arabera, desberdintasunen gorakadarekin, gero eta desberdinagoa izango da familiek haien seme-alaben etorkizunean inbertitzeko izango duten ahalmena; hartara, borondate politiko erabakigarriak ezean, auzitan jar daiteke itun sozialaren oinarri den aukera-berdintasunaren printzipioa. Ildo horretan, emakumeek lan-merkatuan berdintasunez parte-hartzeak nabarmen hobetuko luke familiek haien seme-alaben etorkizunean inbertitzeko duten ahalmena.

Familiaren ingurune sozioekonomikoak erabakigarria izaten jarraitzen du ikasleen emaitza akademikoetan, nahiz eta euskal hezkuntza-sistemak emaitza onak eman dituen hezkuntza-ekitatearen ikuspuntutik

Euskal Autonomia Erkidegoan haurren eskubideen arloan lan egiten duten erakundeek aditzera eman dute euskal hezkuntza-sistemak —gaur egun sortu eta egituratuta dagoen moduan— ahalbidetzen duela abiapuntuko baldintza oso desberdinak zituzten ikasleek antzeko emaitzak lortzea hezkuntza-ibilbidearen amaieran. Euskal hezkuntza-sistema, ikuspuntu horretatik, nahiko ekitatiboa da: Euskal Autonomia Erkidegoan behar baino lehen eskola uzten dutenen tasak Europar Batasuneko batez bestekoen azpitik daude; bestalde, kurtsoa errepikatzen duten ikasleen ehunekoak Europar Batasuneko batez bestekotik oraindik urrun dagoen arren, Estatuan bigarren ehuneko txikiena da.

Euskal Autonomia Erkidegoan desberdintasun sozioekonomikoek hein txiki batean soilik argitzen dituzte batez besteko ikas-errendimenduan dauden aldeak, Europar Batasunaren barruan alde hori hein txikiagoan argitzen duten tokietako bat da; dena dela, haurren ingurune sozioekonomikoak oraindik ere zehazten ditu hein handi batean eskola-emaitzak eta, ildo horretan, etorkizuneko aukerak. Bigarren eta hirugarren belaunaldiko immigratzaileen seme-alabek, hezkuntza-maila txikiagoko familietatik datozenek eta estatus sozioekonomiko eta kultural txikiagoa dutenek ikasle guztien batez bestekoak baino puntuazio txikiagoa lortzen dute diagnosi-probetan. 2015erako PISAren datuen arabera, esate baterako, egoera onenean dauden ikasleen eta txarreanean dauden ikasleen arteko arraila 62 puntuko da matematiketan, 60 puntuko zientzietan eta 57 puntuko irakurketan. Haurren arteko desberdintasun sozioekonomikoak osasun okerragoan¹⁵ eta eskolan integratzeko zailtasun handiagoetan¹⁶ ere islatzen dira.

0 eta 3 urte arteko haurren arretarako zerbitzuen estaldura-tasa handiak

Aurreraxeago aditzera ematen den moduan, Plan honen helburuak betetzeko garaian, garrantzi handia dute haurren arretarako kalitateko zerbitzuek. Hori kontuan izanik, nabarmendu behar dira Euskal Autonomia Erkidegoan haurren arretarako zerbitzuen estaldura-tasa handiak. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoa Estatuaren buruan dago Haur Hezkuntzako lehen zikloko eskolaratzeari dagokionez, Europako Iparraldeko herrialdeetan dituzten tasen antzeko tasekin: Euskal Autonomia Erkidegoan tasa % 52,4koa da 0 eta 2 urte arteko tartean, % 93,4koa 2 urteko tartean eta % 99koa 3 urteko tartean, eta oso hurbil dago Norvegiak (% 55), Suediak (% 46) eta Islandiak (% 43,7) dituzten

¹⁵ 2013ko Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Inkestak jaso duenaren arabera, eguneroko bizitzako jardueretarako muga kronikoen prebalentziak nabarmen egiten du behera eskala sozioekonomikoan gora egin ahala; hartara, V. multzoko familietako (esku-lanetako langile kualifikatu gabeen familietako) seme-alaben artean erregistratutako prebalentziak prebalentzia orokorra hirukoizten du (% 6,2 eta % 2,2). I. multzoko familietako (zuzendarien eta goi-karguen familietako) seme-alaben arteko prebalentzia, berriz, prebalentzia orokorra baino ia lau aldiz txikiagoa da (% 0,5).

¹⁶ Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren 2014ko Gizarte Premiei buruzko Inkestaren arabera, 6 eta 16 urte arteko populazioaren barruan, Espainiako nazionalitatea duten ikasleen % 4,1ek eta atzerriko nazionalitatea duten haurren % 9,9k arazoak dituzte hezkuntza-egoeran. Aldeak askoz ere handiagoak dira familien gabezia-egoerari erreparatzen bazaio. Arazo horien eragina ia lau aldiz handiagoa da oinarrizko premiak estaltzeko gabezia-arazoak dituzten familietako ikasleen artean (% 12,1) —oinarrizko gabezia-arazorik ez duten familietako seme-alabekin alderatuta (% 2,9)—.

tasetatik. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Familien eta Familia-etxeen Inkestako datuek adierazten dute haurrentzako arreta-zentroetan plazarik ez egotea arazo handia dela Euskal Autonomia Erkidegoko 1.100 familiarentzat. Hortaz, eragin oso txikia du horrek, mendeko seme-alabak dituzten guraso-familien % 0,5 inguru baitago egoera horretan.

Edonola ere, zentro mota horietako erabilerari erreparatuta, alde sozioekonomiko argia ikusten da: Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Premiei buruzko Inkestaren arabera, 2014an 5 urtetik beherako haurren % 24 ez zegoen haurrentzako arreta-zentro batean; pobrezia edo gabeziako egoeran dauden familien artean, haurren % 38 ziren; kide guztiak lanik gabe dauden familietako haurren % 43 ziren; eta atzerriko jatorria duten familietako haurren % 45.

Familian eta haurtzaroan gastu-maila txikiak, Europar Batasuneko herrialdeen batez bestekoarekin alderatuta

Arartekoak laguntza-politikei buruz 2014an egindako txostenak adierazten du Euskal Autonomia Erkidegoan pixkanaka sartu dela nolabaiteko “familia-ikusmoldea” bertako araudian. Dena dela, txostenak gehitzen du oraindik garapen berria dela. Lege-esparruak familiei laguntzeko politikak zer norabidetara bideratu behar diren finkatzen duen arren, oraindik sakonera handiagoko neurri propioak falta dira eta zailtasun objektiboak daude Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-arkitektura konplexutik jarduteko, batez ere lurralde historikoei eta tokiko erakundeei dagokienez.

Europako beste herrialde batzuekin alderatuta, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen familiei laguntzeko sistemari —Gizarte Segurantzaren prestazioak arautzen eta kudeatzen dituen Estatuko administrazioak, foru aldundiek eta autonomia-erkidegoko administrazioak zehaztutakoari— dagokion gastu erantsia Europar Batasuneko gainerako herrialdeetan erregistratzen dena baino txikiagoa da, baita haur-hezkuntzako gastua kontuan hartzen bada ere —Euskal Autonomia Erkidegoan haur-hezkuntzako gastua Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearen batez bestekoaren oso antzekoa da—. Horrenbestez, aditzera eman behar da Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-gastua, oro har, Europar Batasuneko gainerako herrialdeetan baino askoz ere gutxiago bideratzen dela haurtzarora eta seme-alabak dituzten familietara, eta hori benetan garrantzizkoa da. Izatez, Europarekiko defizita murriztu den arren, haurtzarora eta familietara zuzendutako gizarte-babeseko gastuaren arloko aldeak handiak dira oraindik, Barne Produktu Gordinarekin lotuta zein gizarte-babeseko gastuaren osotasunarekin lotuta.

Gainera, gastua beste herrialde batzuetan baino gehiago bideratzen da zergak arintzera. Euskal Autonomia Erkidegoko gastu osoaren % 40 inguru bideratzen da zergak arintzera, Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak konputatzen duen moduan konputatuta. Aitzitik, proportzio hori % 10 ingurukoa da Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearen batez bestekoan; hortaz, adierazi behar da Barne Produktu Gordinari dagokionez gastu osoa txikia izateaz gain, zerga-arintzeek pisu handia dutela gastuaren osotasunean —kontuan hartzen direnean haurrei zuzendutako arreta-

zerbitzuak eta zerga-arintzeak—, eta hori Euskal Autonomia Erkidegoak familian egiten duen gastuaren berezitasunetako bat da.

Familiei laguntzeko politiketako gastuaren osotasunean gastu fiskalek pisu handiegia izatearen eragozpen nagusia da diru-sarrera txikiagoak dituzten familiek hein txikiagoan lortzen dutela onura kenkari eta zerga-arintze horietatik; izatez, ogasun publikoarekin urtero sortzen den zorra edo kuota likidoa izango da gehieneko muga —zenbateko teorikoa edozein izanik ere—. Lehentxeago aipatutako Arartekoaren txostenak adierazten duen moduan, zerga-arintzeak egin ahal izateko behar besteko diru-sarrerak dituzten familiek soilik erabili ahal izango dute zerga-arintzea eraginkortasunez, eta horrek sistemari buruzko eztabaida zabala pizten du. Auzitan jartzen da behar bezain progresiboa den eta zein neurritan alda daitekeen, unibertsalizazioa bilatzeko —beste herrialde batzuetan jada egiten ari den bezalaxe—.

Gastu erantsiko alde horiek euskal familien babes-mailan islatzen dira, batez ere diru-sarrerak bermatzeko laguntzarik jasotzen ez duten familien babes-mailan. Praktikan, familia mota desberdinek Euskal Autonomia Erkidegoan jasotzen duten babes-maila alderatzen badugu, ikus dezakegu Euskal Autonomia Erkidegoko familia gehienek ez dutela inolako familia-laguntzarik jasotzen, erreferentziazko herrialde gehienetan ez bezala; izatez, herrialde horietan seme-alabak dituzten familientzako zenbateko handi samarreko laguntza unibertsalak daude. Babes-maila txiki hori konpentsatzen da —edo hobeto esanda ondorioztatzen da— familia horiek duten zerga-presio txikiarekin —txikia Europako herrialde gehienetan ezaugarri horiek dituzten familiek dutenarekin alderatuta—. Horretan, eragina du lehentxeago aditzera emandako kenkarien inpaktuak.

Eredu atipikoa da Europan, izaera selektiboa du eta nolabait duala da. Eredu horretan errenta ertaineko eta handiko familiek zerga-arintzeekin eta zerga-presio txiki batekin lortzen dute onura, eta errenta txikieneko familiek, edo diru-sarrerarik gabeko familiek, errenta minimoen sistemarekin lortzen dute onura —sistema hori populazio osora zabalik dagoen arren, diru-sarrera maximo batzuk jasotzera baldintzatuta egongo da zorroztasunez—.

Haurrentzako oso aldekoa ez den laguntza ekonomikoko sistema bat, seme-alabak dituzten familien artean pobrezia behar baino gutxiago murrizten duena

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-babeseke sistemaren osotasunak bi ezaugarri ditu haur-pobrezia murriztearen arloan: a) populazioaren osotasunari dagokionez, haurren pobrezia helduen eta adinekoen pobrezia baino gutxiago murrizten du; b) Europar Batasuneko gainerako herrialdeei dagokionez, Europako gainerako herrialdeen gizarte-babeseke sistemek baino gutxiago murrizten du haur-pobrezia. Europar Batasunean (28 estatu) prestazioek —pentsioez bestelakoek— % 63 murrizten dute haur-pobrezia, eta Euskal Autonomia Erkidegoan % 52 soilik. Aurkakoa gertatzen da adinez nagusi diren pertsonen pobrezia dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan Europar Batasunean (28 estatu) baino handiagoa da murrizketa (Euskal Autonomia Erkidegoan % 60 eta Europar Batasunean % 55). Horrek guztiak agerian uzten du Euskal Autonomia Erkidegoan ezarritako prestazio ekonomikoaren sistemaren osotasuna ez dela haurrentzako oso aldekoa.

Euskal Autonomia Erkidegoan, diru-sarrerak bermatzeko sistema —diru-sarrerak bermatzeko errentaren inguruan artikulatzen dena— funtsezko elementua da haur-pobrezia saihesteko eta ez areagotzeko. Hala izanik ere, eta sistemaren diseinuak eraginda, nabarmendu behar da sistemak haur-pobrezia murrizteko nolabaiteko mugak dituela. Izatez, eraginkorragoa da seme-alabarik gabeko familien arteko pobrezia murrizteko, eta ez hainbeste haien kargura seme-alabak dituzten familien artean pobrezia murrizteko. Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren datuek islatzen dutenez, Euskal Autonomia Erkidegoko diru-sarrerak bermatzeko sistemak ez du haur-pobrezia asko murrizten, populazio osoaren pobrezia baino gutxiago murrizten du —diru-sarrerak bermatzeko errentek, etxebizitzarako prestazio osagarriek eta gizarte-larrialdietarako laguntzek osatzen dute diru-sarrerak bermatzeko sistema hori—. Osootasunean, diru-sarrerak bermatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko ereduak %36 murrizten ditu populazio osoaren benetako pobrezia-tasak, eta, laguntza horiek jasotzeko esker, 71.000 pertsona irteten da benetako pobreziako hasierako egoeratik. Dena dela, haien kargura adin txikikorik ez duten familien artean murrizketa %47koa den arren eta hamar hartzailetatik zazpi pobreziatik irteten den arren, haien kargura adin txikikoak dituzten familietan murrizketa %28koa da eta haien kargura adin txikikoak dituzten hamar hartzailetatik lau soilik irteten da aurrez zuen benetako pobreziako egoeratik.

Pobrezia murrizteko ahalmen desberdin horren arrazoia ez datza seme-alabak dituzten familien artean prestazio horien eskari potentziala hein txikiagoan estaltzean, baizik eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren bidez hein txikiagoan babestean tamaina handiagoko unitateak eta, bereziki, seme-alabak dituzten familiak.

Lana eta familia bateragarri egiteko hobe daitekeen prestazio-eredua

Bestalde, familietan eta haurtzaroan inbertitzera bideratutako estrategia baten barruan, xehetasunez aztertu behar da zein den laguntza horien inpaktua eta funtzionamendua, betiere seme-alabak zaintzeko jardunaldi-murrizketen eta/edo eszedentzien prestazio ekonomikoek duten zentraltasuna kontuan izanik. Mota horretako politikak garrantzi handiko mugak dituzte —ikuskerara orokorrean zein Euskal Autonomia Erkidegoan duten aplikazio zehatzetan— eta, hartara, gomendagarria da politika horien birformulazio zabalagoa egitea.

Horri dagokionez, aditzera eman behar da, lehenik, ez dutela genero-berdintasunaren alde asko egiten eta, batez ere, emakumeek erabiltzen dituztela —jakina bi gurasoei zuzentzen zaizkien kasuan izan ezik—, besterenezinak direla eta/edo ondo ordainduta daudela. Egindako analisiak bat datoz: emakumezkoen lanaldi partzialeko lanak edo zuzenbidez edo izatez amei zuzendutako guraso-baimenek rol bereziak erreproduzitzen dituzte, eta kontziliazio modu horiek ez dute berdintasunerako ekarpen handirik egiten, nahiz eta oso eraginkorrak izan kontziliazioari dagokionez. Egindako ebaluazioen arabera, lan-baimenek —aitatasun-baimenak izan ezik— emakumezkoen zaintza-rola mantentzen edo areagotzen dute, emakumeak izaten baitira epe nolabait luzeetarako lana uzten dutenak, eta, horrek, oro har, haien lan-karrera zigortzen du, baita enpleguari eusteko garaian ere. Diru-transferentziek ere ondorio negatiboak dituzte berdintasunaren gainean, amak animatzen baititu lana uztera, lanaldi partzian lan egitera edo etxeko langile bat

kontratatzera. Horrek guztiak zaintza-lanarekin lotzen ditu emakumeak eta gizonezkoen inhibizioa bultzatzen du.

Genero-joeraz gain, joera sozioekonomiko handia ere badute; errenta handia, prestakuntza handia eta lan-merkatuan egoera hobea duten familiek erabiltzen dituzte batez ere, eta horiek izan ohi dira onuradunak. Horrenbestez, mota horretako laguntzek lan-merkatuko sektorerik pribilegiatuenen kontziliazioa errazten dute (kontratu mugagabea duten langileena, lanaldi osoa dutenena, hezkuntza-maila handia dutenena eta sektore publikoko langileena) eta haien seme-alaben zaintza errazten dute; hortaz, sektore horiek amatasunaz/aitatasunaz gozatzeko denbora gehiago izango dute. Aitzitik, lan-merkatuan egoera ahulenean dauden amek —aldi baterako kontratuak dituzten sektore pribatuko emakume langileek— aukera txikiagoa dute baliabide horiek baliatzeko. Efektu hori eszedentziarako eta lanaldi murrizketarako laguntza ekonomikoen bidez zati batean zuzentzen bada ere, oraindik joera sozioekonomikoa mantentzen da, errenta txikieneko familiek haien diru-sarreraren zati bati uko egiteko zailtasun handiagoak dituzten heinean¹⁷.

Familia-osaeraren dinamiken aldaketak eta familia-ereduen dibertsifikazioa

2014an Arartekoak egin zuen Euskal Autonomia Erkidegoko familia-politikei buruzko txostenak adierazten du familia-ereduak ere bilakatzen eta aldatzen ari direla, eraldatzen ari den gizarte-egituraren barruan. Plan horrek nahitaez hartu beharko ditu aintzat errealitate berri horiek.

Izatez, gunea eta seme-alabak oinarri dituen familia-egitura —eredurik ohikoena— nagusi izaten jarraitzen duen arren, pixkanaka baina etengabe ari da nagusitasuna galtzen, beste eredu batzuen alde (seme-alabarik gabeko bikotea, guraso bakarreko familiak edo pertsona bakarreko familiak). Beste familia-eredu horien sorreran eta hedapenean, indar handiz ari dira sortzen beste familia modu batzuk (familia berrosatuak, guraso bakarrekoak...), baita familia guztiengan eragina duten barne-harremanetarako beste modu batzuk ere. Barne-harremanetarako beste modu horietan, familiako kideek gero eta autonomia handiagoa izango dute eta handiagoa izango da barne-negoiazioa.

Arlo horri dagokionez, nabarmendu beharko da ezkontza-tasaren beherakada, elkarrekin bizitzen direnen gorakada, dibortzioen, banantzeen eta nulitatearen gehikuntza, ezkongabeen arteko jaiotzen igoera, guraso bakarreko familien prebalentzia handiagoa, familien batez besteko tamainaren murrizketa edo lehen edo bigarren belaunaldiko haur-populazio immigratzaileen kopuruaren eta ehunekoaren gehikuntza. Familiaren kontzeptuaren eta egituraren etengabeko bilakaerak eta aldaketak tentsioak eta gatazkak sortzen ditu familia-ingurunean, eta horiek saihestu eta murriztu beharko dira, batez ere

¹⁷ Ideia hori berresten dute berriki egin den ebaluazio baten datuek. Ebaluazio horrek aztertu du Espainiako autonomia-erkidegoetan seme-alaben zaintzarako emandako eszedentzien arloko prestazioen erabileraren inpaktua. Datu horiek agerian uzten dute Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatutako eszedentziarako prestazio-ereduaren diseinua positibotzat jo daitekeela zenbait parametroren arabera (prestazioa errenta-mailarekin lotzen ez den eskubide unibertsal gisa konfiguratu izana, eskubidea lehen seme-alabatik aplikatzea, eskubidearen titulartasun indibiduala, prestazioaren hilerokotasuna, laguntzaren malgutasuna). Alabaina, modu berean erakusten du ez dela oso egokia estaldura ekonomikoaren ikuspuntutik. Estaldura ekonomiko txikiago hori izango da, segur aski, Euskal Autonomia Erkidegoan eskatzaile izan daitezkeenek mota horretako laguntzak gutxiago erabiltzearen arrazoa —bikoteek pizgarri ekonomikoekiko duten portaeraren iragazkortasunari egotzita—.

aintzat hartuta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta adin txikikoaren interesa.

Herritarren babesa administrazioek inplikazio handiagoa izan dezaten seme-alabak dituzten familientzako laguntzan

Aditzera eman behar da Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrak familiaren eta haurtzaroaren aldeko politikak sustatzearen alde agertzen direla argi eta garbi. Populazioaren % 60ren iritziz, erakundeek jaiotzak sustatu beharko dituzte; adin txikiko seme-alabak dituztenen artean % 64k dute iritzi hori. Biztanleen % 38k eta gazteen % 42k uste dute nahitaezkoa izan beharko lukeela amak eta aitak amatasun-baimenaren/aitatasun-baimenaren zati bat, gutxienez, erabiltzea. Biztanleen % 80k eta seme-alabak hazteko adinean dauden % 88k uste dute erakundeek gehiago egin beharko luketela lanaren eta familia-bizitzaren kontziliazioa errazteko.

4. Planaren oinarri diren printzipioak

4.1. Euskal Autonomia Erkidegoan Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Planaren izaera eta ezaugarriak

Aurrez adierazi den moduan, Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legeak ez du xedapen espezifikorik ezartzen familia-planen izaerari eta ezaugarriari buruz; plan horiek onartzeko, garatzeko eta ebaluatzeko eskumenak Eusko Jaurlaritzari esleitzera mugatzen da.

Bestalde, III. Planaren ebaluazio-txostenean Planaren izaerari eta ezaugarriari buruz adierazitako zenbait alderdi nabarmendu behar da, alderdi horiek aintzat hartzea lagungarria izan baitaiteke IV. Planaren diseinua hobetzeko.

- Planaren diseinuari dagokionez elementu positibotzat jo da plana lantzeko jarraitu den prozesuaren zeharkako izaera eta izaera parte-hartzailea, aukera eman baitu eragile ugariaren ikusmoldea barnean hartzeko eta Planari erakunde arteko izaera argia emateko. Ildo horretan, eta aurreikusten diren neurrien kopuruagatik asmo handiegikoa izan daitekeen arren, diseinatutako planaren zeharkako izaerak ikusmolde integrala eta dimentsio anitzekoa eskatzen zuen, eta aurrerapentzat jo daiteke planteamendu sektorialagoen edo mugatuagoen aldean.
- Era berean, ebaluazioan aipatzen da hasiera batean landutako Planak gehiegizko xehetasun-maila eta zorrotasuna zuela, oso munta desberdineko 169 neurri zehatz barnean hartzen baitzituen. Ebaluazio-txostenaren arabera, neurri horietako batzuk Euskal Autonomia Erkidegoan familia-politikak artikulatzeko giltzarritzat jo badaitezke ere, beste batzuk askoz ere irismen mugatuagoa edo sektorialagoa dute eta, ikuspuntu horretatik, konplexutasuna eta, batez ere, dispertsioa eransten diote planari. Ildo horretan, ebaluazioan planteatu da neurrien gehiegizko kopurua ez dela ikusmolde egokia eta arlo edo gai batekin lotzen diren problematika guztiei aldi berean erantzuten saiatzeak ez duela errazten neurriak betetzea, ezta Planaren operatibotasuna ere; aitzitik, dispertsio kontzeptuala eta operatiboa errazten du.
- Planaren diseinuaren aldetik, hirugarren alderdi adierazgarria lotzen da, lehen aditzera eman den bezalaxe, ezaugarri horiek dituen Plan baten arlo subjektiboarekin, familia-politiken “perimetroarekin” eta Familia Planaren plangintza haurtzaroaren arloko politiketara zabaltzearekin. Aurreko plana ebaluatzean sortu diren eztabaidetan, batzuek ildo horren alde egiten zuten, eta adierazi zuten plan horiek eta familia-politikak gehiago bideratu behar direla seme-alabak dituzten familietara eta, hortaz, haurtzarora. Beste batzuek, ordea, familia-politiken ikuspegi zabalagoa dute eta iruditzen zaie ugalketarekin eta seme-alabak haztearekin nahitaez lotuta egon behar ez duten beste familia-premia batzuk ere jorratu behar direla eta adineko pertsonen edo mendeko pertsonen zaintzarekin lotzen diren arloetara ere zabaldu behar direla, 13/2008 Legeak berak egiten duen moduan. Era berean, familia-politikak familia guztietara bideratu behar diren edo,

soilik, zailtasun handiagoak dituzten familietara zuzendu behar diren ere eztabaidatu da.

Gogoeta horiek abiapuntu izanik, Ebaluazio Txostenak IV. Planaren diseinuaren arloko zenbait alderdi planteatzen zuten:

- Berraztertu beharko litzatekeen alderdietako bat familia-politiken definizioa bera da, horren muga ez baita beti agerikoa. Antza denez, behar-beharrezkoa da gogoeta egitea ezaugarri horiek dituen plan batean alderdi jakin batzuk aintzat hartu behar diren edo ez, eta, batik bat, familia-politikak zein heinean lotu behar diren, edo ez, zuzenean haurtzaroaren arloko politikekin, gizarte-inbertsioaren paradigmen ildotik.
- Egindako ebaluazioaren arabera, ezaugarri horiek dituen plan bat gauzatzeko garaian, funtsezkoa da planak izan behar duen fokalizazio-maila eta planaren zorrotasuna. Dispersioaren arriskua saihesteko helburuarekin, Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Plan horren esperientziak pentsarazten du lehentasuna izango duten eta behar besteko adostasuna duten neurri gutxi batzuetan oinarritzen diren planak egin behar direla, eta ez oso plan zabalak eta zorrotzak, neurri kopuru handikoak —eta ez beti muntazkoak edo adostuak—. Izatez, horrelako planen kudeaketa zailagoa izango da, erakunde arteko izaeragatik eta dimentsio aniztasunagatik.
- Edonola ere, txostenak adierazten duenez, fokalizazio horrek ez du auzitan jartzen —familia-politiken arloan behinik behin— zeharkako eta erakunde arteko izaera duten planak lantzea, hau da, ez du auzitan jartzen Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza zein Eusko Jaurlaritzako gainerako sailak inplikatu dituzten planak lantzea —arreta berezia izango dute osasunak, hezkuntzak, kulturak, enplegu eta gizarte politikak, etxebizitzak eta Emakundek—. Era berean, familia-politikan Foru Aldundiek eta Udalek betetzen duten egitekoa berraztertu beharko da; lehenengoen kasuan, familiek haien kargura duten seme-alaba bakoitzeko prestazio ekonomikoen hornidurari dagokionez, eta bigarrenen kasuan gizarte, kultura eta hezkuntzaren arloko zerbitzuen garapenari dagokionez.
- Planaren diseinuari erreparatuta, gogoeta egin beharko da ezaugarri horiek dituen plan baten edukiei eta gaiei buruz: aurreko plana gai multzo oso zehatzetan oinarritzeko erabakiaren aurrean, euskal familien beharren eta arazoan analisiak pentsarazten du euskal familien etorkizunerako garrantzi handikoak diren beste gai batzuk ere jorratu beharko liratekeela, hala nola gazteen emantzipazioa, hezkuntza-desberdintasuna, genero-berdintasuna, belaunaldien arteko pobreziaaren transmisioa edo mugikortasun sozialerako zailtasunak, baita familien barne-funtzionamendu egokiarekin lotzen diren beste gai batzuk ere (rolen esleipena, zereginen banaketa, krisialdietan beharrezkoa den bitartekaritza edo guraso-programa positibo bultzada).

- Azkenik, ezaugarri horiek dituen plan baten diseinuak arreta jarri beharko luke, halaber, neurriak gauzatzeko lidergo politikoan —funtsezkoa zeharkako gizarte-politika orotan—, gai horiekin lotzen den ezagutzaren kudeaketan eta neurrien gauzatzeko-mailaren eta horien inpaktuen jarraipena egiteko sistema sendoa sortzean eta mantentzean.

Gogoeta horiek abiapuntu izanik, eta Planaren ezaugarrien eta izaeraren ikuspuntutik, Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Plan hau lantzean oinarrizko irizpide hauek hartu dira kontuan:

- Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Plana da Familiaren Euskal Kontseiluak 2017ko abenduan onartutako Familia eta Haurtzaroaren Aldeko Euskal Ituna hedatzeko eta gauzatzeko plangintza-tresna nagusia —Euskal administrazioek 2018ko urtarrilean berretsi zuten Itun hori, eta Eusko Legebiltzarra 2018ko martxoaren 21eko bilkuran atxiki zitzaion—. Ildo horretan, Plan hau familiaren eta haurtzaroaren plan bat da, eta haren jardunak lehentasunez bideratzen dira Itunean ezarritako helburuak lortzera¹⁸. Plana egituratzen duen eskemak (ardatzak, jardun-esparruak, helburu estrategikoak eta helburuak) guztiz erantzuten dio orientazio horri, geroago azalduko den moduan.

Plan honen arreta-gunea haurtzaroa eta, hedapenez, seme-alabak dituzten familiak diren arren, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak beste familia-premia batzuk estaltzera zuzentzen diren jardunak eta programak ere gara ditzake eta/edo plan honetan txerta ditzake, Familiei Laguntzeko 13/2008 Legean ezarritakoaren arabera.

- Bestalde, 13/2008 Legeak xedatzen duenari jarraituz, Erakunde Arteko Plan bat da, eta, Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak sustatu eta landu badu ere, Plana definitzeko lanetan parte hartu dute Eusko Jaurlaritzako gainerako Sailek, Foru Aldundiek eta Udalek, EUDEL Euskadiko Udalen Elkartearen bidez. Erakunde arteko eta dimentsio anitzeko izaera hori dela eta, IV. Plan honek Eusko Jaurlaritzako beste plan batzuetan jada barnean hartzen diren neurri ugari hartu du aintzat, hala nola Enplegu Plan Estrategikoan, Etxebizitzaren Gida Planean, Gazte Planean eta abar barnean hartzen direnak. Jardun horiekin batera, Planak Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzari dagozkion jardunak biltzen ditu —horrenbestez, beste plan batzuetan biltzen ez diren jardunak dira—, baita, beste erakunde batzuen neurriak izanik ere, inplikaturik dauden administrazioen plangintzan aurrez aintzat hartu ez ziren beste neurri batzuk ere.

¹⁸ Adierazi den moduan, Itunak hiru helburu ditu: a) Gizonen eta emakumeen ugalketa-itxaropenak gauza daitezten ahalbidetzea eta, Familiei Laguntzeko 13/2008 Legearen arabera, pertsonen haien familia-proiektua hasi ahal izatea eta nahi adina seme-alaba izatea zailtzen duten oztupoak pixkanaka ezabatzen edo murrizten laguntzea; b) Europako erakundeek sustatzen dutenari jarraituz, haurtzaroan inbertitzeko ikusmoldea gauzatzeko, haur eta nerabe guztien aukera-berdintasuna bermatuko duten neurriak artikulatzeko bidez; eta c) Desberdintasunaren belaunaldi arteko transmisioa saihestea eta seme-alabak dituzten familien pobrezia-egoerak ahalik eta gehien murriztea.

- Formulazioaren ikuspuntutik, jardun zehatzez eta, aldi berean, garrantzizkoez eta adierazgarriez osatutako zerrenda laburra eta fokalizatua planteatzen saiatu da. Edonola ere, jardun horietako batzuk aurretik dauden askotariko planetatik datoenez gero, neurrien zehaztapen- eta garrantzi-maila ez da beti berdina izaten. Ahalegin handia egin da, familien eta haurren ongizatearekin lotzen diren premia nagusiei aurre egiteko behar beste zehaztutako jardunen bidez —horien formulazioan, asmoak adierazteaz eta helburu orokorrak formulatzeaz harantzago joan nahi da—.
- Planean ez da kolektibo espezifikoak (familia ugariak, guraso bakarreko familiei, desgaituei eta abar) buruzko atal espezifikorik txertatu; edonola ere, planteatzen diren jardun batzuetan familia eta pertsona horiek babes are handiagoa dute, premia espezifikoak dituzten heinean.
- Eusko Legebiltzarrak 2018ko martxoaren 21eko bilkuran onartutako 1. ebazpenari jarraituz, Planean aintzat hartzen diren jardunen kontsignazio ekonomikoa ere barnean hartzen du Planak, batez ere Eusko Jaurlaritzako Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzari dagozkion jardunei dagokienez.

4.2. Jardun-printzipioak

Aditzera eman denez, IV. Plan honek jardun multzo jakin batean gauzatu nahi ditu Familia eta Haurtzaroren Aldeko Euskal Itunean jasotako orientazioak, Euskal Autonomia Erkidegoan familia- eta haurtzaro-politiken oinarritzako printzipioak zein izan behar duten planteatuz. Ildo horretan, hauek dira Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Plana zuzendu behar duten jardun-printzipioak:

- **Aitorpena eta babesa familia-aniztasunari, tratu-berdintasunari eta ez-diskriminazioari.** Planak aintzat hartzen ditu familia-egituretan, familia-bizitzako bideetan eta familia barruko harremanetan gertatzen ari diren aldaketa-prozesu sakonak, eta bilatu nahi du familia-egitura guztiak aitorten-maila bera eta gizarte-babeseko maila bera izan dezaten. Planaren printzipioen artean daude jatorrizko arraza, etnia edo nazioen ondoriozko eta orientazio eta nortasun sexualaren eta genero-nortasunaren ondoriozko tratu-berdintasuneko eta ez-diskriminazioko printzipioak.
- **Ardura partekatua, genero-berdintasuna eta ardura partekatuko kontziliazioaren aldeko apustua.** Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta seme-alaben hazkuntzako ardura partekatua dira jaiotza-tasa sustatzeko politikarik onenak. Genero-berdintasunaren eta ardura partekatuko kontziliazioaren arloko politiken bitartez, amen enplegua sustatzen eta errazten duten Europako herrialdeek dute ugalkortasun-tasarik handiena. Eskura dugun ebidentzia zientifikoak erakusten duenez, haurren zaintza nagusiki emakumeen esku geratzen den bitartean (prestatu diren eta, amatasunaz harantzago, itxaropen pertsonalak eta lanekoak

dituzten emakumeen esku), ugalkortasun-tasek txikiak izaten jarraituko dute. Ideia horretan oinarrituta, ardura partekatuko gizarte-antolamendu baterantz aurrera egiteko beharra hartuko da kontuan Plan honen jardunetan. Horretarako, garatuko den ereduari bi gurasoek neurri berean parte hartuko dute produktioa edo laneko zereginetan eta ugalketako eta zainketako zereginetan, hartzailerik bikoitzeko eta zaintzailerik bikoitzeko ereduak abiapuntu izanik.

- **Zuzeneko arretako eta prestazio ekonomikoetako zerbitzuen konbinazioa.** Plan honetan aintzat hartzen diren jardunak lehentasunez zuzentzen dira gizarte, hezkuntza, osasun eta haur-zaintzarako zerbitzuak hobetzera, baita seme-alaben zaintzarako prestazioak hobetzera ere, ardura partekatuko kontziliazioaren esparruan. Aldi berean, prestazio ekonomikoek haur-pobreziaren murrizketan eta, oro har, seme-alaben hazkuntza-kostuen konpentsazioan duten garrantziaren aitortzea hartzen du abiapuntu Planak; hori dela eta, prestazio horiek hedatzera eta normalizatzea bideratuko diren neurriak jasotzen dira, eta, horretarako, osorik diseinatuko dira berriro euskal familiek gaur egun jasotzen dituzten zuzeneko laguntzak, diru-sarrerak bermatzeko prestazioak eta kerkari fiskalak.
- **Unibertsaltasun progresiboa.** Haur-pobreziari aurre egiteko arrakasta gehien izan duten estrategiak haur guztien ongizatea hobetzera zuzendutako politiketan oinarritutakoak izan dira, batik bat aintzat hartuta egoera bereziki kalteberetan dauden haurrak. Izatez, azterlan ugari agerian utzi du familiei laguntzeko ereduaren arrakastaren oinarrietako bat ereduaren unibertsaltasuna dela —herri-babes handiagoa duten heinean, zenbateko handiagoak bermatzen dituzten heinean, murrizketen hain eraginpean ez dauden heinean eta kudeatzeko errazagoak diren heinean—. Unibertsaltasun horrek, edonola ere, ez du ikuspegi progresiboa edo fokalizatua galarazten, ez du errenta txikieneko familiei edo zailtasun handiagoak dituzten familiei zenbateko eta babes handiagoak ematea galarazten.

Unibertsaltasun progresiboaren ideia hori bat dator Planak oinarri duen ekitatearen printzipioarekin. Printzipio horren indarrez, babes handiagoa ematen zaie haurrei eta nerabeei eta bereziki kalteberatasun handiko egoeran dauden familiei.

Alderdi horiek abiapuntu izanik, Plan honetan aintzat hartzen diren neurriak seme-alabak dituzten familiei zuzentzen zaizkie, haien errenta edozein izanik ere. Dena dela, premia handieneko kolektiboak edo kalteberatasun egoera handiagotan dauden kolektiboak lehentasunez zuzentzen zaizkien jardunak ere planteatzen dira, bai neurri espezifiko bidez, bai familia horien egoera berariaz kontuan hartzen duten osagarrien bidez.

- **Kapital sozialaren sorrera, gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea, hezkuntza ez-formala eta aisialdirako eskubidea nabarmentzea.** Komunitatearen esparruan, Plan honek gizarte-arazoei, besteak beste, erantzun nahi die, betiere haurrei zuzendutako gizarte- eta hezkuntza-zerbitzuen garapenaren bidez eta hezkidetzan oinarritutako hezkuntza-formulen garapenaren bidez. Testuinguru

horretan, eta haurren eta gazteen aisialdiaren merkantilizazioaren aurka, Planean aintzat hartzen diren jardunen helburua da, haurren eta gazteen babesean ez ezik, haiei zuzendutako prebentzioan eta sustapenean ere oinarritzen diren politikak gehitzea eta sustatzea. Horretarako, gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzearen ikusmoldea haurtuko da aintzat, hezkuntza ez-formalean oinarrituta eta kirolaren, kulturaren eta aisialdi-jardueren eskuragarritasunean oinarrituta. Ildo horretan, haurren eta nerabeen aisialdirako eskubidea da Plan honen gida-printzipioetako bat.

- **Haurrak eskubide-subjektu, eta adin txikikoaren gaineko interes handiagoa.** Funtsean, Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak aldarrikatzen dituen printzipioek gidatzen dute Familia eta Haurtzaroaren Aldeko Euskal Ituna eta, horrenbestez, Plan hau. Izan ere, konbentzio horrek adin txikikoaren gaineko interes handia ezarri du familiaren eta haurren arloko politika publikoen oinarritzko gida gisa. Konbentzioak haurraren ongizaterako beharrezkoak diren babesa eta zaintza ziurtatzera bultzatuko ditu Estatuak, betiere kontuan izanik haien gurasoen eskubideak eta betebeharrak (3. art.). Era berean, Estatuei eskatuko die haurren eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak aplikatzea —eskura dituzten baliabideen maximora arte— (4. art.), haien biziraupena eta garapena bermatzea (6. art.) edo gurasoei laguntzea haurtzaroaren garapen eta bizi-maila egokia errazteko (27. art.). Konbentzioaren aplikazioak nahitaez ekarriko du Estatuaren laguntzen eskubideen —berez zerga-arlokoen— titular egitea haurrak, eta ez izatea familiei ematen zaizkien onuren zeharkako hartzaile hutsa —haurrak familia-karga gisa agertzen dira—.
- **Inbertsioa haurtzaroan.** Aurrez aipatu den moduan, haurtzaroan egin beharreko inbertsioa da Plan honek oinarri dituen oinarritzko printzipio edo irizpideetako bat —Estatu sozial inbertitzailearen edo inbertsio sozialaren paradigmaren esparruan—. Paradigma horrek ideia honen aldeko apustua egiten du: ongizate-estatua prestaketara zuzendu beharko da eta ez soilik konponketara. Ildo horretatik, prebentzioko hezkuntza- eta gizarte-politiken alde egingo du, gizarte-politika tradizionalen izaera errektiboaren edo aringarriaren aurrean.

Gizarte-ikerketan handi baten bermearekin, gizarte-inbertsioaren paradigmak eskatzen du: haur-pobrezia borrokatzeko ahaleginak areagotzea; emakumeak lan-merkatuan kalitate-baldintzetan sar eta mantentzeko daitezkeen sustatzea; zailtasunak dituzten familiak babestea, lanerako eta familia erantzukizunetako arduraldia orekatzeko; edo kultura- eta hezkuntza-baliabide txikiak dituzten familien seme-alaben haur-eskolako hezkuntzan parte har dezaten sustatzea. Haurtzaroan inbertitzeko ideia zuzenean lotzen da gizarte-babesaren arloko Europako politiken gunearekin, eta premia saihestezina da gizarte-babeseko gure eredia berriro orientatzeko. Era berean, haurrak aldi berean ondasun pribatutzat eta publikotzat hartzearen aldeko apustu argia da, baita familiei eta haurtzaroari zuzendutako gastu publikoa gizarte-inbertsio gisa eta gizarte osoaren ongizatea hobetzeko tresna gisa ulertzearen aldeko apustu argia ere.

- **Detekzio eta esku-hartze goiztiarra.** Gero eta azterketa gehiagok eta erabakigarriagoek lotzen dituzte, batetik, bizitzako lehen urteak eta esku-hartze goiztiarra eta, bestetik, bizitza osoan zeharreko garapen potentziala. “Funtsezko urteak” (*foundation years*) kontzeptu orokorrean sar daitekeen paradigma komun baten pean egiten dute, ondorengo bizi-ibilbide osoko oinarriak jartzen diren fasea den aldetik. Askotariko diziplinetako ikerketa sendoek modu positiboan lotzen dute lehen haurtzaroko inbertsioa emakumeek lan-merkatuan parte hartze handiagoa izatearekin, ugalkortasun-indize handiagoekin, jatorri sozioekonomiko desberdineko haurren arteko aukera-berdintasunarekin eta, azkenik, ezagutzaren gizarte gisa ezagutzen denaren premiekiko sintonia hobearekin.

Ikerketa askok berretsita, haurrak oso txikiak direnean da esku-hartze produktiborako unerik egokiena, eta horretan oinarritzen da Plan hau. Ildo horretan ebidentzia ugari adierazten dute hezkuntzaren arloko esku-hartzeak zenbat eta lehenago hasi, orduan eta errentagarriagoak direla edo kostua/eraginkortasun erlazio hobea lortzen dela. Jakina, esku hartze berantiaragoak ere eraginkorrak izan daitezke, baina, oro har, familiei laguntzeko modurik eraginkorrena, eta kostu/eraginkortasun onenarekin, seme-alaben bizitzako lehen urteetan esku hartzea izaten da. Horretarako, ezinbestekoa da familiek eta hurrek dituzten zailtasunak goiz identifikatzeko aukera emango duten jardunak artikulatzea eta familia horiei haien premietarako baliabiderik egokienak eskaintzea.

- **Aukera-berdintasuna eta mugikortasun soziala.** Familia eta Haurtzaroaren Aldeko Euskal Itunaren funtsezko elementuetako bat dira aukera-berdintasunaren printzipioa gauzatzeko, gorako mugikortasun soziala erraztea eta desberdintasunaren belaunaldi arteko transmisioa murriztea. Gaur egungo krisialdi ekonomikoak, desberdintasunen gehikuntzak eta produkzio-ereduaren aldaketak aukera-berdintasuna murrizten dute eta gurasoengandik behar besteko kapital-zuzkidura (ekonomikoa, kulturala edo harremanetakoa) jaso ez duten haurrak kaltetzen dituzte, batez ere. Ideia hori abiapuntu izanik, hezkuntza-neurriak, diru-sarrerak bermatzeko neurriak eta gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko neurriak barnean hartzen ditu Planak. Neurri horiek diseinatu dira desberdintasun horiek neutralizatzeko eta pertsona guztientzako aukera-berdintasunerako behar besteko maila ziurtatzeko, jatorriko familien ondare ekonomikoa, kulturala edo hezkuntzako edozein izanik ere.
- **Erakunde arteko eta dimentsio anitzeko izaera.** Aurrez aditzera eman dugun moduan, Plana dimentsio anitzekoa da eta politika publikoen zenbait arlotan du eragina: hezkuntzan, berdintasunean, etxebizitzan, diru-sarreraren bermean, kulturaren, gizarte-zerbitzuetan eta osasun-politiketan, lehentasunez. Era berean, eta Euskal Autonomia Erkidegoko eskumenen artikulazioa dela eta, erakunde arteko Plan bat da; Eusko Jaurlaritzaren barruan, hezkuntzaren, berdintasunaren, osasunaren, etxebizitzaren, gizarte-zerbitzuen, kulturaren, enpleguaren eta diru-sarrerak bermatzearen arloko eskumenak dituzten sailei dagozkien jardunak biltzeaz gain, toki- eta foru-administrazioei dagozkien jardunak ere baditu.

- **Eragile publikoen eta pribatuen lotespena.** Familietara eta haurtzarora gehiago bideratzen den gizarte-babeseke eta gizarte-harremanetako eredu bat eraikiko bada, funtsezkoa izango da gizarte-eragile guztien inplikazioa eta, batik bat, lan-harremanak zehazteko jardunean zuzenean inplikaturik dauden gizarte-eragileen inplikazioa, hala nola sindikatuena eta enpresa-elkarteena. Funtsezkoa da, halaber, haurtzaroaren, familien, berdintasunaren, desgaitasunaren edo gizarte-bazterketaren alorrean lan egiten duten hirugarren sektoreko erakundeen bultzada eta aldarrikapena. Esparru horretan hain zuzen ere, Planak neurriak txertatuko ditu laneko harremanak eta ordutegiak seme-alabak dituzten familien premietara egokitzeko —zuzenean eragina izango dute gizarte-eragileengan eta, batez ere, enpresa-elkarteetan eta sindikatuetan—.

5. Jardun-ardatzak eta helburu estrategikoak

Aurrez Planaren esparru kontzeptual eta arauemaileari dagokionez eta oinarri hartzen dituen printzipioei dagokienez adierazi diren alderdiak Planaren egituraren zehazten dira. Plana, horrela, bost esparru edo jardun-ardatz handitan egituratzen da. Ardatz horietako bakoitza, era berean, zenbait helburu estrategikotan egituratzen da, eta horietako bakoitzerako jardun zehatzak planteatzen dira, azken batean Plana eratzen dutenak.

Jardun-ardatzak zein helburu estrategikoak aurreko orrialdeetan egindako gogoetaren eta, azken batean, Familia eta Haurtzaroaren Aldeko Euskal Itunaren ondorio dira. Kapitulu honetan labur-labur deskribatzen da Planaren egitura eta helburuen enuntziatua, eta hurrengo kapituluan jasotzen dira jardun zehatzak.

5.1. Jardun-ardatzak

Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Plana bost ardatz handitan zatitzen da. Ardatz horiek bat datoz, oro har, III. Planaren ebaluazioan eta Familia eta Haurtzaroaren Aldeko Euskal Itunean identifikatutako ekintza-esparru handiekin: gazteen emantzipazioa eta familia berrien sorrera, berez helburutzat jotzen den heinean, baina, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoen jaiotza-tasak handitzeko *sine qua non* baldintza; ardua partekatuko kontziliazioa eta familiei laguntzeko politikak, orain arte famili-planak zirenen gune nagusia biltzen dutenak; haurren eta nerabeen ongizatea, haurren eta nerabeen bizi-baldintzak eraginpean hartzen dituzten era askotako esparruetan helburu espezifikoak jasotzen dituenak; familiaren eta haurtzaroaren arloko politiken lidergoa eta gobernantza, lehen mailako erronka eta premia baita zeharkako edozein politikatan.

Ardatz horietako bakoitzerako planteatzen diren jomuga zehatzak honela enuntziatzen dira:

- 1. ardatza. Gazteen emantzipazioa eta familia berrien sorrera erraztea.
- 2. ardatza. Bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioa eta seme-alabak zaintzeko ardua partekatua erraztea.
- 3. ardatza. Familiei laguntzea.
- 4. ardatza. Haurren eta nerabeen ongizatea sustatzea.
- 5. ardatza. Euskal Autonomia Erkidegoan familiaren eta haurtzaroaren arloko politiken lidergoa eta gobernantza sustatzea.

5.2. Helburu estrategikoak

Ardatz horietako bakoitza, era berean, zenbait behar edo egoerari lotutako helburu estrategikoetan egituratzen da. Ildo horretan, Plana 18 helburu estrategiko zehatzen arabera egituratzen da.

- **1. ardatza. Gazteen emantzipazioa eta familia berrien sorrera erraztea**
 - **Enplegua eskuratzea.** Gazteei bideratutako enplegu-politika aktiboak indartzea eta gazteei kalitateko enplegua eskuratzeko aukera ematea.
 - **Etxebizitza eskuratzea.** Seme-alabak dituzten pertsonen eta gazteei etxebizitza eskuratzeko erraztasunak ematea.
- **2. ardatza. Bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioa eta seme-alabak zaintzeko ardura partekatua erraztea**
 - **Bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioa.** Erraztasunak ematea gurasoek beren seme-alabei behar duten denbora guztia eskain diezaieten, denbora sozialaren antolaketa egokiagoa sustatuta familien beharrei begira, eta ardura partekatuko antolaketa soziala ahalbidetzea.
 - **Gurasotasun positiboa eta atxikimendu seguruaren sustapena.** Seme-alabak hazteko guraso-trebetasunak eskuratzea sustatzea, lotura eta atxikimendu segurua sustatzea, eta familiei zailtasun-egoeretan laguntza eskaintzea.
- **3. ardatza. Familiei laguntzea**
 - **Seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoa eta haur-pobreziaren prebentzioa.** Seme-alabak dituzten familia guztiei gutxieneko baliabide ekonomikoak bermatzea eta haur-pobrezia prebenitzea.
 - **Familia-aniztasuna eta belaunaldien arteko harremanak.** Familia-forma eta -lotura guztiak sostengatzea eta babestea, eta belaunaldien arteko harremanak sustatzea.
 - **Haurrentzako arreta.** Ume guztiek haurrentzako arreta-zerbitzu irisgarriak, eskuragarriak eta kalitatekoak hartzeko aukera izan dezaten ahalbidetzea.
- **4. ardatza. Haurren eta nerabeen ongizatea sustatzea**
 - **Detekzio eta arreta goiztiarra.** Haurtzaroarekin lotutako arazoaren detekzio goiztiarra bultzatzea eta arreta goiztiarreko zerbitzuen garapenean aurrera egitea.

- **Ohitura osasungarrien sustapena eta osasunerako eskubidea.** Haur-osasuna esku-hartze integralen bidez sustatzea, familiei seme-alabak hazteko prozesuan lagunduta, bizitza osasungarria sustatzeko eta arrisku-jokabideak prebenitzeko jardueretarako denbora-tarte aproposa dela ulertuta.
 - **Ekitatea hezkuntzan.** Bizikidetzarako eta ekitaterako hezkuntza-esparru erkidea definitzea, aniztasunaren balioa indartzeko, diskriminaziorik gabeko eskolatzea bermatzeko eta hezkuntzaren erantzunak eta jardunbideak ikasle bakoitzaren beharretara eta ikasteko ahalmenara egokitzeko.
 - **Babesgabetasun- eta kalteberatasun-egoeren prebentzioa eta esku-hartzea.** Haurren babesgabetasun-egoeren prebentzioa bultzatzea eta eraginkortasunez esku hartzea kalteberatasun- edo arrisku-egoeretan eta babesgabetasun arin, ertain eta larriko kasuetan.
 - **Haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren prebentzioa.** Haurren eta nerabeen aurkako indarkeria prebenitzea, baita genero-indarkeriak haur eta gazteen gainean dituen ondorioak ere.
 - **Gazte-delinkuentziaren prebentzioa eta adingabe arau-hausleentzako arretaren hobekuntza.** Adingabeek egindako arau-hausteak prebenitzea eta murriztea, eta Gazte Justiziaren erantzunak pertsona bakoitzaren errealitatera egokitzea, haren gizarteratzea hobetzeko.
 - **Haurren parte-hartzea eta haurren eskubideen sustapena.** Haurrek eta nerabeek beren ongizateari buruzko erabakietan parte har dezaten bultzatzea.
 - **Komunitate-garapena.** Zerbitzu soziokulturalen eta gizarte- eta hezkuntza-zerbitzuen garapena sustatzea, eta haur eta gazteei eta, bereziki, egoera okerragoan daudenei, aisiaz, kirolaz eta kulturaz gozatzeko erraztasunak ematea.
- **5. ardatza. Euskal Autonomia Erkidegoan familiaren eta haurtzaroaren arloko politiken lidergoa eta gobernantza sustatzea.**
 - **Informazioa, sentsibilizazioa eta kontzientziaketa.** Familiaren eta haurtzaroaren arloko politikaren esparruan egituratutako zerbitzu eta laguntzen informazioa ematea eta gizarte kontzientziaketa familian eta haurtzaroan inbertitzeko politikak garatzeko premiaren inguruan.
 - **Lidergoa eta koordinazioa.** Lidergo- eta koordinazio-esparru garbia ezartzea autonomia-erkidegoaren eta lurraldearen mailan eta tokiko mailan, eta benetako gizarte- eta hezkuntza-espazioaren egituraketa bultzatzea.

- **Jakintzaren kudeaketa eta ebidentzian oinarritutako jardunbidea.** Jardunbide egokiak ezagutzera ematea, esku-hartzeak ebaluatzea eta haurren eta familien ongizatearekin erlazionatutako adierazleen sistema mantentzea, beharrak detektatzeko eta politika publikoak berriz bideratzeko.

6. Garatu beharreko ekintzak

6.1. Sarrera

Hurrengo orrialdeetan Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Planean jasotako jardun guztiak biltzen dira, Plana egituratzen duten bost ardatzen eta 18 helburuen arabera ordenatuak. Era askotako 116 neurri edo jardun dira guztira. Horien artean, neurri motaren arabera, honako hauek nabarmen daitezke:

- Sentsibilizazio-kanpainak.
- Arau-garapenak.
- Azterketak eta ikerketak.
- Zerga-pizgarriak.
- Programa pilotuak.
- Prestazio ekonomikoak eta bekak.
- Zuzeneko arreta-zerbitzuak.
- Hirugarren sektoreko erakundeentzako diru-laguntzak.

Neurri bakoitzerako zehazten da jardunaren enuntziatua, edukiaren eta helburuen deskribapen laburra eta gauzatzeaz arduratuko den administrazioaren maila.

6.2. 1. ardatza: Gazteen emantzipazioa eta familia berrien sorrera erraztea

1. helburua. ENPLEGUA ESKURATZEA		
1. helburua. Gazteei bideratutako enplegu-politika aktiboak indartzea eta batez ere emakumeei eta gazteei kalitateko enplegua eskuratzeko aukera ematea		
JARDUNA	DESKRIBAPENA	ARDURADUNA
1. Lan-esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten pertsonen lehen lan-esperientziak eskaintzea	<p>Esparru honetan lehentasunezko ekimen hauek aintzat hartzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Lehen Aukera programa, beren tituluarekin lotutako enpleguetan lan-esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten gazte langabeak kontratatzea zuzendua, praktikaldiko kontratu baten edo kontratu finko baten bidez, haien enplegarritasuna indartzeko eta lan-munduan txertatzea finkatzeko neurri gisa. ▪ Global Training bekak, atzerriko enpresa eta erakundeetan praktikak egiteko ezarriak, Euskal Autonomia Erkidegoko gazteen estatuz haraindiko mugikortasuna bultzatzera zuzenduak, beren ezaugarri akademiko eta profesionalekin erlazionatutako jarduerak eta proiektuak egin ditzaten atzerriko enpresa eta erakundeetan, alde aurretik planifikatutako prestakuntza praktikoko plan baten barruan. ▪ Nazioartekotzeko bekak, nazioartekotzearen esparruko prestakuntza-beka gisa pentsatuak, enpresetan praktikak egitea barne. ▪ Langabezian dauden gazteak, unibertsitateko edo lanbide-heziketako tituludunak, atzerrian zentroak dituzten enpresetan praktikak egiteko kontratatzea ahalbidetzeko laguntzak. ▪ Hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzeko esperientzia praktikoa erraztea, unibertsitateekin eta lanbide-heziketako ikastetxeekin lankidetzan, gazteen enplegarritasuna sustatuko duen lehen lan-esperientzia izateko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Enplegu eta Gazteria Sailburuordetza • Industria Sailburuordetza • Lanbide Heziketako Sailburuordetza • Lanbide

<p>2. Euskal gazteen artean autoenplegua sustatzea</p>	<p>Aurreikusitako ekintza-ildo nagusiak honela zehazten dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ekintzaitzaren balioak hezkuntza-esparruan hedatzea, Ikasenpresa programa bezalako ekimenen bitartez. ▪ Lanbide-heziketaren esparruan ekintzaitzaren programak indartzea, hala nola Urrats Bat, enpresak sortzen laguntzeko programa. ▪ Unibertsitate-esparruan ekintzaitzaren programak indartzea, trebakuntzako eta ekintzaitzako programen bitartez, graduondoko eta doktoregoko programak ekintzaitzarekin lotzearen bidez, enpresa-ehunaren sorrera sustatzeko azpiegiturak eskueran jartzearen bitartez edo lehendik dauden Entreprenari, Zitek eta Inizia bezalako beste programa batzuetan lankidetzan jardunez. ▪ Gazteek ekimen ekintzaileak garatzeko eta abian jartzeko laguntza integrala, hala nola Gaztenpresa eta Lanbidetik sustatutako Ekintzaileei Laguntzeko Programa. 	<ul style="list-style-type: none"> • Enplegu eta Gazteria Sailburuordetza • Lanbide Heziketako Sailburuordetza • Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza • Lanbide
<p>3. Esperientzia duten gazteen kontratazioa bultzatzea</p>	<p>Lehentasunezko ekimen hauek aintzat hartzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Gazteak itzultzeko programak, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo esperientzia eskuratu duten baina beren lanbide-karrerarekin jarraitzeko berriz etorri nahi duten gazteak itzultzeko bide bat ahalbidetzeko asmoa dutenak. ▪ Birziklatzea eta bigarren aukerak, lanbide-egokitzapenera eta enplegurako birziklatzera bideratutako programa edo prestakuntza-ekintza gisa, fokua gazte-kolektiboan jarrita, gazteek aukera izan dezaten enpresen lan-eskari berrietara bizkor egokitzeko. ▪ Enplegurako tokiko eta eskualdeko planak. Udalekin, tokiko mailaz gaindiko erakundeekin eta tokiko eta eskualdeko garapen-agentziekin lankidetzan jardunez, enplegua sortzera zuzendutako proiektuei sostengua eman nahi dieten tresnak, kalteberatasun-egoeran dauden kolektiboari arreta berezia eskaintzen dietenak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Enplegu eta Gazteria Sailburuordetza • Lanbide

<p>4. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore estrategikoetan gazteentzako enplegu-aukerak sustatzea</p>	<p>Ildo honetan ekimen hauek biltzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Merkataritza-sektorea hobeto ezagutzera bideratutako beka. Bekadunak urtebetez destinatzen dituzte merkataritza-banaketa esparruan lan egiten duten erakundeetara, tutore batek gainbegiratuta erakundearen eguneroko jardunean parte har dezaten. Bekaren amaieran lana modu autonomoan egiteko behar den prestakuntza eskuratzen dute. ▪ Industria sortzaile eta kulturekin erlazionatutako laguntza-programak, sorkuntza kulturala sustatzera bideratuak, gazteei beren lanbide-proiektuak kulturaren esparruan garatzeko sostengu espezifikoak ematen dieten aldi berean. ▪ Esparru zientifiko-teknologikoan ikertzeari lotutako prestakuntza-programa espezifikoak garatzea. Esate baterako, ikertzaileak eta teknologoak nekazaritzaren, arrantzaren eta elikagaien sektorearen garapen teknologikoko eta enpresa-berrikuntzako arloetan prestatzeko programa, ikerketa-zentroetan edo enpresa pribatuetan prestatzeko bi eta lau urte arteko beka bitartez. ▪ Euskal Autonomia Erkidegoko gazteen artean enplegu berdea sustatzea, ingurumen-sektoreko enpresetan lanbide-praktikak eginez. 	<ul style="list-style-type: none"> • Enplegu eta Gazteria Sailburuordetza
<p>5. Seme-alabak dituzten luzaroko langabeei eta/edo enplegu-intentsitate txikia dutenei enplegu-ekimen aktiboetan parte hartzeko aukera ematea</p>	<p>Enplegu-ekimen aktiboetan laguntza handiagoa eskaintzea adingabeak ardurapean dituzten familiei, baldin eta bi gurasoak langabezian badaude 12 hilabete baino denbora luzeagoan eta/edo azken urtean enplegu-intentsitate txikia izan badute.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Enplegu eta Gazteria Sailburuordetza

<p>6. Txandakatzeko/berritzeko programak bultzatzea</p>	<p>Belaunaldi-txandakatzearen edo erretiroaren nahiz borondatezko bajaren edo berritzearen ondorioz hutsik geratzen diren lanpostuak betetzeko beharraren ondorio diren enplegua sortzeko aukerak gazteentzat ahalik eta gehien baliatzeko, laguntza-ildo hauek aurreikusten dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Enpresen plantillak berritzeko pizgarriak ematea, gazteak laneratuko dituzten txanda-kontratuei sostengua emateko programa baten bitartez. ▪ Enpresak informatzea eta sentsibilizatzea txandakatzeko eta berritzeko neurri horien ahalmenei buruz, txandakatutako pertsonen eskuratutako jakintza eta barne-esperientzia transmititzea eta atxikitzea ahalbidetzen duten heinean. ▪ Sektore publikoko belaunaldi-txandakatzea planifikatzea eta kudeatzea, batez ere osasunaren, hezkuntzaren, segurtasunaren, administrazio orokorraren eta justiziaren esparruetan, gazteei lanpostu horiek eskuratzeko aukera emanez lan-eskaintza publikoen bitartez. ▪ Datozen urteetan erkidegoan egin behar den langileen txandakatzerako plan ordenatua eta eraginkorra egitea, langabezia- eta prekarietate-tasarik handienak dituzten kolektiboak —gazteak, emakumeak eta luzaroko langabeak batik bat— kalitateko enplegua izatera igaro daitezzen. 	<ul style="list-style-type: none"> • Enplegu eta Gazteria Sailburuordetza • Funtzio Publikoko Sailburuordetza
<p>7. Eszedentziak edo lanaldi-murrizketak baliatzen ari diren langileak ordeztzeko laguntza ekonomikoak mantentzea</p>	<p>Seme-alabak, mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera bereziki larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa baliatzen ari diren langileak ordeztzeko laguntzak mantentzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Enplegu eta Gazteria Sailburuordetza • Lanbide
<p>8. Emakumeentzat enplegu gehiago sortzea eta ekonomia-sektore feminizatuenetan lan-baldintzak hobetzea</p>	<p>Emakumeen lan-baldintzen jarraipen berezia egitea, prekarietate-baldintza berezietan egiten diren lan feminizatuen (besteak beste, zaintzeko lan ordainduak eta lehen sektorean garatzen direnak) lan-baldintzak eta gizarte-estaldura hobetzeko, gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunarekin zuzenean edo zeharka erlazionatuta dauden ikuskapen-kanpainak indartzearen bidez</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Lan eta Gizarte Segurantzza Sailburuordetza
<p>9. Enpresetan Berdintasun Planak sustatzea eta horien jarraipena egitea</p>	<p>Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-erakundeen eta sindikatuen arteko akordioak bultzatzea, oinarrizko ildo hauei dagozkien betebeharrak edo, hala badagokio, gomendioak biltzen dituztenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Berdintasun Planak egitea, baita 250 langile baino gutxiago dituzten enpresetan ere. • Berdintasun Planak egun dauden erregistroetan inskriba daitezzen sustatzea. • Generoan oinarritutako soldata-etena murriztea, hots, emakumeen eta gizonen urteko batez besteko soldata gordinaren arteko aldea, bereziki alde hori handiena denean 	<ul style="list-style-type: none"> • Lan eta Gizarte Segurantzza Sailburuordetza

2. helburua. ETXEBIZITZA ESKURATZEA		
2. helburua. Seme-alabak dituzten pertsonen eta gazteen etxebizitza eskuratzeko erraztasunak ematea		
JARDUNA	DESKRIBAPENA	ARDURADUNA
10. Lehentasunezko etxebizitza-erreserba ezartzea gazte-kolektiboarentzat	<p>Etxebizitza izateko eskubide subjektiboa onartzen duen ekainaren 18ko Etxebizitzaren 3/2015 Legearen arau-garapenaren testuinguruan, lehentasunezko bi ekimen hartuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Etxebizitza izateko eskubide subjektiboa arautuko duen dekretu arauemailea garatzea. ▪ Agindua, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzailen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa (Agindua, 2012ko abenduaren 12koa, arau juridiko haren akatsak zuzentzekoa, barne), berrikustea, bereziki Etxebide zerbitzu publikoaren etxebizitza babestua esleitzeko erregimena eta baremazioa arautzen duen III. kapitulua. Horrela, definitu eta zehaztu beharko diren zenbait kolektiboren araberrako kupo batzuk ezartzea planteatzen da, eta gazteek osatzen dute kolektibo horietako bat. 	<ul style="list-style-type: none"> • Etxebizitza Sailburuordetza
11. Gazteentzako alokairua erraztera bideratutako formula eta neurri berriak garatzea	<p>Gazteen beren etapetan zehar dituzten beharrei erantzuteko moduko zenbait hautabide eskaintzera bideratutako lehentasunezko ekimenak abian jartzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Zuzkidura-bizitokiaren garapena ahalbidetzea. ▪ Etxebizitza partekatuen programa berrikustea, aurreko programen aldean bilakaera nagusi hau aintzat har dezan, hots, gazteak berak izan daitezkeen elkartuko direnak eta programara aurkeztuko direnak, programaren baldintzak betetzen dituzten eta etxebizitza partekatze aukera duten hautagaien multzoa osatuta. ▪ Belaunaldien arteko bizikidetzako ekimenak, emantzipazioa ahalbidetuko duten aldi berean batez besteko adin handiko biztanleen zonak biziberritzea bultzatzearen ondorio diren beste gizarte-onura batzuk lortzen lagunduko dutenak. ▪ Hiri-apartzeriako proiektu pilotu eboluzionatua definitzea, etxebizitza, birgaitzea eta enplegua erlazionatzeko asmoz. 	<ul style="list-style-type: none"> • Etxebizitza Sailburuordetza

<p>12. Diskriminazio positiboko irizpideak sartzea seme-alabak dituzten eta premia bereziko egoeran dauden familiek etxebizitza-programetan sartzeko aukera izan dezaten</p>	<p>Agindua, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa, berrikustea, kupoak ezartzeko lehentasunezko arretako kolektiboentzat, besteak beste familia gurasobakarrek, pertsona bananduek eta/edo dibortziatuek eta familia ugariak osatzen dituztenentzat.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Etxebizitza Sailburuordetza
<p>13. Babes publikoko etxebizitzak salbuespen gisa zuzenean esleitzeko aplikatutako irizpideak berrikustea eta zabaltzea</p>	<p>Agindua, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa, berrikustea, esleitzeko prozedura orokorretik salbuetsitako egoeren artean sartzeko etxebizitza baten errentamendu-epea legez edo kontratuan iraungi izanaren ondorioz etxea uztera behartzen dituzten gizarte-bazterketako egoeran dauden eta seme-alabak dituzten familiak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Etxebizitza Sailburuordetza
<p>14. Biztanle gazteei merkatu pribatuan alokairuko etxebizitza eskuratzen laguntzea prestazio ekonomiko baten bitartez</p>	<p>Gaztelagun programa abian jartzea 23 eta 35 urte arteko gazteen emantzipazioa ahalbidetzeko. Zuzeneko laguntzak emango zaizkie, gehienez ere hiru urteko epean, etxebizitza alokatzeko. Laguntzek etxebizitzaren hileko errentaren % 50eraino estaliko dute.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Etxebizitza Sailburuordetza

6.3. 2. ardatza: Bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioa eta seme-alabak zaintzeko ardura partekatua erraztea

3. helburua. FAMILIAREN ETA LANAREN KONTZILIAZIOA		
3. helburua. Erraztasunak ematea gurasoek beren seme-alabei behar duten denbora guztia eskain diezaieten, denbora sozialaren antolaketa egokiagoa sustatuta familien beharrei begira, eta ardura partekatuko antolaketa soziala ahalbidetzea		
JARDUNA	DESKRIBAPENA	ARDURADUNA
15. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan lan egiten duten pertsonentzat bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioa erraztuko duten neurriak sartzea	<p>Euskal Enplegu Publikoaren Legean bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioaren ondoriozko baimenei buruzko xedapenak ezartzea, honako hauek aintzat hartzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ 16 asteko gurasotasun-baimena bikoteko kide bakoitzarentzat, kotizazio-oinarriaren % 100 ordainduta eta izaera besterenezinarekin. ▪ Bularra emateko baimena, 150 orduko iraupen maximoarekin, hamabi hilabete baino gutxiagoko seme-alaba zaintzeko. ▪ Zortzi orduko baimen eta kreditu minimoa kontsulta, tratamendu eta azterketa medikoak egitera laguntzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Funtzio Publikoko Sailburuordetza
16. Lanaren eta familiaren kontziliaziorako laguntzak mantentzea, mendekotasun-egoeran dauden senitartekoak zaintzeko	<p>Lanaren eta familiaren kontziliaziorako laguntzak mantentzea, mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera bereziki larrian dauden senitartekoak zaintzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza
17. Lan-eszedentziako egoeran dauden langileentzako egungo laguntzak berrorientatzea, aitatasun-eszedentzien estaldura ekonomikoa bermatzeko	<p>Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretua aldatzea, pixkanaka sartzeko haurdun ez dagoen gurasoarentzako eszedentziak estaltzeko prestazio ekonomikoa, 12 asteko aldi hartzekoa, jaiotzaren ondorengo hamabi hilabeteetan, amatasun baimenaz bestelako aldi batean, kotizazio-oinarriaren % 100en baliokide den zenbatekoarekin. Neurri hori pixkanaka aplikatzeak neurria honako hauei hedatuko zaiela esan nahi du:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Bigarren seme-alabei eta hurrengoei, aplikatzeko lehen fasean. ▪ Lehen seme-alabei, aplikatzeko bigarren fasean. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza

<p>18. Lan-eszedentziako egoeran dauden langileentzako egungo laguntzak berrorientatzea, premia bereziko egoeran dauden familien kasuan seme-alabak zaintzeko eszedentzien estaldura ekonomikoa hobetzeko</p>	<p>Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretua aldatzea, pixkanaka handitzeko hiru urte baino gutxiagoko seme-alaba bakoitza zaintzeko eszedentzien estaldurarako laguntza ekonomikoen zenbatekoak, kontziliazio-premia bereziak dituzten familien kasuan. Horrela, laguntza ekonomikoaren zenbatekoa kasu hauetan handituko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Familia gurasobakarrak ▪ Familia ugariak ▪ Kideren bat mendekotasun- edo desgaitasun-egoeran duten familiak ▪ Genero-indarkeriaren biktimaren bat duten familiak 	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza
<p>19. Lanaldi-murrizketako egoeran dauden langileentzako egungo laguntzak berrorientatzea, premia bereziko egoeran dauden familien estaldura hobetzeko</p>	<p>Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretua aldatzea, pixkanaka handitzeko lanaldia murriztearen ondoriozko laguntzen zenbatekoa premia bereziko egoeren kasuan:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Familia gurasobakarrak ▪ Familia ugariak ▪ Kideren bat mendekotasun- edo desgaitasun-egoeran duten familiak ▪ Genero-indarkeriaren biktimaren bat duten familiak 	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza
<p>20. Hitzarmen kolektiboetan familia eta lana bateragarri egiteko neurriak sartzea</p>	<p>Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-eragileen, enpresa-erakundeen eta erakunde sindikalen arteko akordioa sustatzea, hitzarmen kolektiboetan familia eta lana bateragarri egiteko neurriak sar daitezen.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuordetza
<p>21. Enpresetan bizitza pertsonala, lana eta familia bateragarri egiteko proiektu pilotuak eta planak gara daitezen bultzatzea</p>	<p>Enpresetan bizitza pertsonala, lana eta familia bateragarri egiteko proiektu pilotuak eta planak gara daitezen bultzatzea, esate baterako jardun hauen bitartez:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Enpresentzako aholkularitza-pilotutza, kontziliazio-planak inplementatzeko ▪ Diru-laguntzen ildo espezifiko ezartzea enpresetan kontziliazio-planak finantzatzeko, Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak enpresetan berdintasun-planak inplementatzeko garatzen dituen diru-laguntzen ildoekin koordinatuta. ▪ Kontziliazio-neurriak inplementatzeko aholkularitza teknikoko zerbitzua. ▪ Kontziliazio-neurriak onura partekatu gisa sustatzeko eta horren inguruan sentsibilizatzeko kanpainak. ▪ Concilia+ web-orria bultzatzea, enpresei kontziliazioaren arloan sostengu emateko eta laguntzeko tresna eraginkor gisa konfiguratzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza

<p>22. Enpresetan genero-berdintasuneko planak egin eta abian jartzearen inguruan sentzibilizatzea, aholku ematera eta laguntzera zuzendutako jardunak bultzatzea</p>	<p>Enpresetan berdintasun-planak egin eta abian jartzearen inguruan sentzibilizatzeari, aholku emateari eta laguntzeari dagokienez Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak enpresei egiten dizkien zerbitzuak bultzatzea, jardun-ildo hauen bidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Informazioa eta aholkularitza. ▪ Sostengu ekonomikoa diru-laguntzen bitartez. ▪ Berdintasunarekiko konpromisoa ziurtatzea. ▪ Enpresei laguntza teknikoa emateko aholkularitza-enpresak homologatzea. ▪ Konprometitutako enpresen sareetan parte hartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Emakunde - Emakumearen Euskal Erakunde
<p>23. Klausula sozialak bultzatzea kontratazio publikoko prozesuetan bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioa sustatzen duten enpresei lehentasuna emateko</p>	<p>Kontratazio publikoko prozesuetan izaera sozialeko klausulak sartzea, bereziki balora dezaten enpresek bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliaziorako neurriak hartzea, apirilaren 7ko 3/2016 Legean (Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzekoa) eta azaroaren 8ko 9/2017 Legean (Sektore Publikoko Kontratuena) xedatutakoari jarraikiz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eusko Jaurlaritzako sailak • Foru-aldundiak • Udalak
<p>24. Bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioa errazteko neurriak hartzen dituzten enpresei zerga-pizgarriak emateko aukera aztertzea</p>	<p>Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren esparruan azterketa bat egitea, bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioa errazteko neurriak inplementatu izana egiaztatzen duten enpresei sozietateen gaineko zergan zerga-pizgarriak emateko aukera aztertzeke.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa
<p>25. Kontziliazio-neurriak eta ardura partekatukoak aplikatzen lider eta erreferente diren enpresen eginkizuna ezagutzea, sari eta ezagumenduen sistema baten bidez</p>	<p>Bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioaren esparruan lider eta erreferente diren enpresentzako sari eta ezagumenduen sistema bat ezartzea, honako hauek ahalbidetzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Denboraren kudeaketan, malgutasunean eta bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren orekan neurri berritzaileak garatzen dituzten enpresen lanaren ezagumendu publikoa. ▪ Beren antolakuntzan denborak egokitzearekin konprometitutako enpresak agerian jartzea. ▪ Enpresa-ehun osoa egin diren esperientzien inpaktuaren inguruan sentzibilizatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza
<p>26. Enpresa-esparruan kontziliazio-neurriak egiaztatzeke eta ziurtatzeko sistemak bultzatzea</p>	<p>Enpresa-esparruan kontziliazio-neurriak baloratzeko, egiaztatzeke eta ziurtatzeko tresnak sortzeari eta inplementatzeari bultzada ematea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza

4. helburua. GURASOTASUN POSITIBOA ETA ATXIKIMENDU SEGURUAREN SUSTAPENA		
4. helburua. Seme-alabak hazteko guraso-trebetasunak eskuratzea sustatzea, lotura eta atxikimendu segurua sustatzea, eta familiei zailtasun-egoeretan laguntza eskaintzea		
JARDUNA	DESKRIBAPENA	ARDURADUNA
27. Euskal Autonomia Erkidegoan gurasotasun positiboko programen oinarri zientifikoa bultzatzea	<p>Euskal Autonomia Erkidegoan gurasotasun positiboko programen oinarri zientifikoa bultzatzea, esate baterako, jardun hauen bidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Familiek haurrak familia barnean hazteko prozesuaren inguruan dituzten beharrak eta eskariak aztertzea. ▪ Guraso-trebakuntza prebentiboko programa bat diseinatzea eta baliozkotzea. ▪ Aitaren ardura partekatua eta hazkuntzako inplikazioa garatzera zuzendutako programa bat diseinatzea eta baliozkotzea. ▪ Guraso-trebakuntzako tresnak familien eskueran jartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza
28. Gurasotasun positiboko programak indartzea eta hedatzea	<p>Gaur egun garatzen diren gurasotasun positiboko programak indartzea eta hedatzea, esate baterako, neurri hauen bidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Osasun-langileen eta hezkuntza-sistemako profesionalen prestakuntza-curriculumean gurasotasun positiboaren ezaupideak sartzeari bultzada ematea. ▪ Gurasotasun positiboko jarduerak garatzeko ikasleen gurasoen elkarteekin sarean lan egiteari bultzada ematea ▪ Haurtzaroaren esparruan lan egiten duten profesionalak gurasotasun positiboaren inguruan prestatzeari bultzada ematea ▪ Profesionalekin topaketak egiteari bultzada ematea, aurkitzen dituzten egoerak aztertzeke eta premia horiei nola aurre egin dakiekeen jakiteko ▪ Enpresa-esparruan gurasotasun positiboaren inguruan sentsibilizatzeari bultzada ematea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza • Osasun Sailburuordetza • Hezkuntza Sailburuordetza
29. Atxikimendu segurua sustatzeko eta gurasoen sentsibilitatea eta erantzuteko prestasuna hobetzeko programa pilotua garatzea	<p>Hiru lurralde historikoetan izaera soziosanitarioko proiektu pilotuak garatzea, gurasoek behar diren konpetentziak eta trebetasunak eskura ditzaten lortzeko diseinatuak, segurtasunik gabeko atxikimendua eta horrekin lotutako jokabide-arazoak eta arazo emozionalak eragiten dituen interakzio desegokiaren prozesua gerta ez dadin.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza • Osasun Sailburuordetza

<p>30. Gurasotasuna web-orria finkatzea, familiei gurasotasun positiboaren inguruko informazioa, orientabidea eta aholkuak emateko webgune gisa</p>	<p>Gurasotasuna web-orria finkatzea, familiei gurasotasun positiboaren inguruko informazioa, orientabidea eta aholkuak emateko webgune gisa, familia-errealitate berrien forma eta egituren aniztasuna berariaz aintzat hartuta.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza
<p>31. Gizonduz programa bultzatzea</p>	<p>Gizonduz programa bultzatzea, balio-aldaketa eta ardura partekatuko gurasotasun-ereduak sustatzeko, gizonak neurri handiagoan inplika daitezzen seme-alaben hazkuntzan, generoaren estereotipo eta rolak gaindituko dituzten eredu eta erreferenteekin, haurtzaroaren sozializazioan aldaketak sustatzeko</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Emakunde - Emakumearen Euskal Erakunde
<p>32. Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan eskaintzen diren familia-bitartekaritzako programak indartzea</p>	<p>Familia-bitartekaritzako programak indartzeko, esate baterako, jardun zehatz hauek egin daitezke:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Bitartekaritzaren sustapen sozialerako plana garatzea eta aplikatzea, zerbitzuaren hedapen soziala eta familia-bitartekaritzarekin erlazionatutako zenbait esparrutako profesionalen artean elkarriketa-zirkuluen bitartez ezagutzera ematea barne. ▪ Erdietsitako akordioen garapena eta familia-bitartekaritzako zerbitzuarekiko gogobetetasuna baloratuko dituen ebaluazio-tresna espezifikoa garatzea eta aplikatzea. ▪ Zerbitzuko profesional kopurua handitzea. ▪ Zerbitzuak arian-arian deszentralizatzea, hasieran izaera esperimentalarekin. ▪ Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan familia-bitartekaritzaren osagarri gisa garatzen diren familia-ingurunean gatazkak prebenitzeko eta murrizteko ekimen sozialeko programei sostengua ematea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza
<p>33. Judizioz kanpoko familia-bitartekaritzako zerbitzu publikoak burututako familia-bitartekaritzako prozesuen esparruan agindutako familia-terapiako programetan sartzeko erraztasunak ematea</p>	<p>Bitartekaritza-prozesuak familia-terapia bati hasiera ematean datzan akordioarekin amaitzen diren kasuetan, errenta txikiak dituzten familiei familia-terapiako programetan sartzeko lagunduko dien programa bat garatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza

6.4. 3. ardatza: Familiei laguntzea

5. helburua. SEME ALABAK DITUZTEN FAMILIENTZAKO LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA HAUR POBREZIAREN PREBENTZIOA		
5. helburua. Seme-alabak dituzten familia guztiei gutxieneko baliabide ekonomikoak bermatzea eta haur-pobrezia prebenitzea		
JARDUNA	DESKRIBAPENA	ARDURADUNA
34. Adingabeak ardurapean dituzten familia-unitateen tratamendua hobetzea Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren esparruan	<p>Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legearen erreforman zenbait neurri sartzea, diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) esparruan seme-alabak ardurapean dituzten familia-unitateei ematen zaien tratamendua hobetu ahal izateko. Besteak beste:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ DSBEa jasotzeko erroldatuta egon beharreko gutxieneko aldia bi urtetara laburtzea adingabeak ardurapean dituzten familien kasuan. ▪ DSBEaren egungo kopuruak eta osagarriak berrikustea, ardurapeko adingabeko bakoitzagatik osagarri bat jaso dadin, ezartzen diren gehieneko mugetaraino. ▪ DSBEaren esparruan gaur egun familia gurasobakarrentzat dagoen osagarria handitzea. ▪ DSBEaren esparruan osagarri bat ezartzea familia-esparruan indarkeriaren biktima diren pertsonen kasurako. 	<ul style="list-style-type: none"> • Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza
35. Erakunde arteko lantalde bat sortzea, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren esparruan, ardurapeko seme-alabaren ondoriozko prestazioak eta ondorengo ondoriozko zerga-kenkariak modu integratuan kudeatzeko aukerak aztertze	<p>Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren esparruan lantalde bat sortzea, zerga-politikak eta ardurapeko seme-alabaren ondoriozko prestazioak eta zerga-esparruan dauden ondorengo ondoriozko zerga-kenkariak hobeto integratzeko aukerak aztertze, errentarik txikienetan arreta berezia jarrita. Lantalde horrek aztertuko du zer-nolako inpaktua izan lezaketen, gastuari, estaldurari, progresibitateari eta pobrezia murrizketari dagokienez, ingurunean dauden neurriek, bai zerga-alorrekoek bai bestelakoek, seme-alabak dituzten familiei laguntzeko politiken esparrurako. Lantalde horrek egindako azterketaren emaitzak Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoari berari helaraziko zaizkio, hala badagokio, zerga-araudian eta dagozkion prestazio ekonomikoen araudian behar diren erreformak sar ditzan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa

<p>36. Ardurapeko seme-alaben ondoriozko aldi behingo prestazio ekonomikoak mailaz maila hobetzea</p>	<p>Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen martxoaren 17ko 30/2015 Dekretuan aldaketa hauek sartzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Bigarren semearen edo alabaren ondoriozko laguntzak hirugarren urte batera luzatzea. ▪ Semearen edo alabaren kontzeptua zabaltzea, familiaren egoitzan bizi diren eta ekonomikoki gurasoen mende dauden 18 urte baino gehiagoko eta 25 urte baino gutxiagokoak barnean hartzeko. ▪ Hasierako eskabideak aurkezteko epea zenbatzen hasteko data aldatzea adopzioaren eta tutoretzaren kasuan. ▪ Adopzioari, adopzio-bizikidetzarako zaintzaren eskuordetzari edo tutoretzari dagokion urtea jaiotzako urtearen baliokidetzat jotzea, eta, hortaz, dagozkion mantenu-urte guztiak ordaintzea, 18 urteko adin-mugaz bestelakorik gabe. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza
<p>37. Familia-prestazioak kudeatzeko behar diren datuen elkarreragingarritasunean aurrera egitea</p>	<p>Familiei laguntzeko prestazio ekonomikoak eskatzen dituzten familia-unitateen datuak, beste administrazio batzuen eskuetan daudenak, modu arin, automatizatu eta bizkorragoan eskuratzeko aukera emango duten neurriak garatzea, haien tramitazioa arintzeko eta sinplifikatzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza

6. helburua. HAURRENTZAKO ARRETA		
6. helburua. Ume guztiek haurrentzako arreta-zerbitzu irisgarriak eta kalitatekoak hartzeko aukera izan dezaten ahalbidetzea		
JARDUNA	DESKRIBAPENA	ARDURADUNA
38. Errenta txikiak dituzten familiak Haurreskoletan sartzeko neurriak garatzea.	Haurreskoletan sartzeko neurriak indartzea matrikularako hobariak emateko ezarritako sistemaren bitartez, familia-errenta estandarizatuaren arabera modulatu, 18.000 € baino gutxiagoko errentak dituzten familiak tarifetatik salbuetsita.	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza Sailburuordetza • Haurreskolak Partzuergoa
39. Landa-ingurunean Haurreskolen egokitzapena eta modernizazioa bultzatzea	Landa-ingurunean Haurreskolen egokitzapena eta modernizazioa bultzatzea, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzaren laguntza-ildoan bitartez.	<ul style="list-style-type: none"> • Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetza
40. Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak mantentzea, hiru urte baino gutxiagoko seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeke	Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak mantentzea, hiru urte baino gutxiagoko seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeke, lana eta familia bateragarri egiten laguntzeko eta etxeko langileen sektorean enpleguaren sorrera eta legalizazioa sustatzeko.	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza
41. Premia bereziko egoera puntualetan dauden haurrentzako arreta-programa pilotuak garatzea	Premiazko kasuetan (gaixotasuna, laneratzeko eta abar) haurrentzako arreta-zerbitzuak eskaintzeko programa pilotu baten garapena bultzatzea	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza

7. helburua. FAMILIA ANIZTASUNA ETA BELAUNALDIEN ARTEKO HARREMANAK		
7. helburua. Familia-forma eta -lotura guztiak sostengatzea eta babestea, belaunaldien arteko harremanak sustatzea eta aiton-amonak bilobak zaintzen egiten duten ekarpena ezagutzeko		
JARDUNA	DESKRIBAPENA	ARDURADUNA
42. Gurasobakartasun-egoeren definizio operatiboa adostea	Gurasobakartasun-egoerak zehazteko behar diren irizpideak finkatuko dituen gobernu-akordio bat sustatzea, egoera hori moduren batean aintzat hartzen duten Eusko Jaurlaritzaren jardun guztietan aplikatu ahal izateko.	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza
43. Familia-errenta estandarizatuaren irizpideak hedatzea	Familia-errenta estandarizatuaren irizpideak administrazio publikoetara hedatzeko aukera aztertzea	<ul style="list-style-type: none"> • Lehendakaritza • Foru-aldundiak • Udalak
44. Belaunaldien arteko harremanak sustatzen dituzten eta/edo beren jardueretan berriaz jasotzen dituzten programei sostengua ematea	Euskadi Lagunkoia programaren esparruan belaunaldien arteko jarduerak garatzeari bultzada ematea, zenbait belaunalditako pertsonen jarduerak elkarrekin egin ditzaten	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza
45. Haurrek eta nerabeek beste belaunaldi batzuetako jendearen bizi-esperientzien berri izan dezaten sustatzea	Kulturaren eta memoriaren kontzeptuak uztartuko dituzten haurrentzako eta nerabeentzako jarduerak sustatzea. Horien bitartez, parte-hartzaileek beste belaunaldi batzuetako senitartekoen eta, bereziki, beren aiton-amonen esperientziak eta bizi-ibilbideak kontatuko dituzte.	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza

6.5. 4. ardatza: Haurren eta nerabeen ongizatea sustatzea

8. helburua. DETEKZIO ETA ARRETA GOIZTIARRA		
8. helburua. Haurtzaroarekin lotutako arazoan detekzio goiztiarra bultzatzea eta arreta goiztiarreko zerbitzuen garapenean aurrera egitea		
JARDUNA	DESKRIBAPENA	ARDURADUNA
46. Ama haurdun gazteei laguntzeko programa pilotu soziosanitarioa garatzea	Hiru lurralde historikoetan izaera soziosanitarioko programa pilotua garatzea, emaginek eta/edo erizain espezializatuek emakume haurdun gazteen jarraipena egin dezaten. Beste herrialde batzuetan garatu diren jardunbide egokien esperientziak abiapuntu hartuta, kalteberatasun-egoeran (gurasobakartasuna, gizarte-bazterketako arriskua, prestakuntza-maila urria eta abar) dauden ama lehenerdiei bideratuko zaie programa.	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte Politiketako Sailburuordetza Osasun Sailburuordetza
47. Haurtzaroan zabarkeria fisiko eta emozionaleko egoerak prebenitzeko programa pilotu soziosanitarioa garatzea	Hiru lurralde historikoetan izaera soziosanitarioko programa pilotua garatzea, zabarkeria fisiko eta/edo psikikoaren arrisku-adierazleak dituzten edo larritasun arin edo ertaineko zabarkeria fisiko eta/edo psikikoko egoeran dauden 0 eta 5 urte arteko haurrak dituzten familiei bideratua.	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte Politiketako Sailburuordetza Osasun Sailburuordetza
48. Laguntza-prozesu integratua bermatzea sortze aurreko faseetik eta haurdunaldian, erditzean, puerperioan eta haurrarentzako eta amarentzako arretan	Haurrari eta amari zuzendutako jaio aurreko, jaiotza inguruko eta jaiotza osteko laguntzari buruzko prozesu guztiak hobetzea eta Osakidetzaren sare publikoan integratzea, ebidentzia erabilgarri onenean oinarritutako jardunbide klinikoaren giden arabera.	<ul style="list-style-type: none"> Osasun Sailburuordetza

<p>49. Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuaren garapenari buru ematea.</p>	<p>Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuaren garapenari buru ematea, bereziki alderdi hauei dagokienez:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Arreta Goiztiarreko ekintzaren ildo estrategikoak definitzea eta eguneratzea autonomia-erkidegoan. ▪ Hezkuntzaren, Osasunaren eta Gizarte Zerbitzuen sistemei dagozkien Prestazio eta Zerbitzuen Zorroak garatzea, Arreta Goiztiarrean eragin dezaketen aldetik, eta hala badagokio, zorro horiek berrikusten eta eguneratzen parte hartzea. ▪ Osasunaren, Hezkuntzaren eta Gizarte Zerbitzuen Sistemen artean koordinatzeko eta bideratzeko oinarrizko protokoloak taxutzea ▪ Arreta Goiztiarreko dispositiboaren osotasuna ezartzeko zerbitzuen plana taxutzea ▪ Protokoloak eta behar diren tresna teknikoak garatzeko lantaldeak sortzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza • Hezkuntza Sailburuordetza • Osasun Sailburuordetza
---	---	---

9. helburua. OHITURA OSASUNGARRIEN SUSTAPENA ETA OSASUNERAKO ESKUBIDEA		
9. helburua. Haur-osasuna esku-hartze integralen bidez sustatzea, familiei seme-alabak hazteko prozesuan lagunduta, bizitza osasungarria sustatzeko eta arrisku-jokabideak prebenitzeko jardueretarako denbora-tarte aproposa dela ulertuta		
JARDUNA	DESKRIBAPENA	ARDURADUNA
50. Haur eta gazteen obesitatea murriztea, jarduera fisikoan eta elikadura osasungarrian oinarritutako neurriak jasotzen dituen prebentzio-plan baten bidez.	Haur eta gazteen obesitatea murriztea, helburu eta/edo jardun hauek aintzat hartuko dituen prebentzio-plan baten bidez: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Gizartea arazoaren inguruan kontzientziatzea. ▪ Erakundeen arteko akordioak bultzatzea, elikagaien industriarekin eta ostalaritzarekin lankidetzan, elikagai prestatuetan azukreak, gantz aseak eta gatza murrizteko. ▪ Profesionalei, pazienteei, senitartekoei eta komunitate-eragileei zuzendutako jarduteko jarraibideen gida ezartzea. ▪ Nutrizio-hezkuntza, jarduera fisikoa eta bizi-ohitura osasungarriak sustatzea familiaren, eskolaren eta komunitatearen ingurunean. ▪ Pertsona obesoan bana-banako diagnostikoa, tratamendua eta jarraipena egiteko esku-hartzeak garatzea, haien estigmatizazioa saihesteko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun Sailburuordetza • Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza
51. Haur eta nerabeen artean jarduera fisikorik ezaren mailak murriztea	Jarduera fisikoa orientatzeko zerbitzuetan haur eta nerabeentzako arreta espezifikoa eskaintzeko aukera emango duten zerbitzuak garatzea, kolektibo horiei zuzendutako tratamendua aintzat hartuko duen bideratze-prozedura baten bidez	<ul style="list-style-type: none"> • Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza
52. Gaixotasun arraroei aurre egiteko modua hobetzea, batez ere haur eta nerabeei bereziki eragiten dietenen kasuan	Gaixotasun arraroen tratamendua hobetzeko jardun hauek egingo dira: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Euskadiko Gaixotasun Arraroen Erregistro epidemiologikoa eta informazio-fluxuak arintzea. ▪ Laguntza-koordinazioa eta diagnostikoa eta tratamendua sakontzea, erreferentziako zentroetan gaixotasun arraroen batzorde klinikoak sortzearen bidez. ▪ Gizarte-zerbitzuekiko eta hezkuntza-sistematikiko koordinazioa hobetzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun Sailburuordetza • Osakidetza
53. Amagandiko edoskitzea sustatzea eta Euskadiko Ama Esnearen Bankua bultzatzea eta finkatzea	Euskadiko Ama Esnearen Bankuaren inguruko sustapen- eta sentsibilizazio-kanpainak mantentzea eta urtean zehar behar besteko emaila kopurua bermatzea	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun Sailburuordetza

54. Haurren Hortzak Zaintzeko Programa (PADI) indartzea	Haurren Hortzak Zaintzeko Programa (PADI) indartzearen helburua da haren estaldura-tasa areagotzea (gaur egun % 66 inguruan dago), batez ere gizarte-egoera ahuleko taldeen artean.	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun Sailburuordetza • Osakidetza
55. Pediatria-zerbitzuetan erizainak hautatzeko aukera eskaintzea	Osakidetzaren lehen mailako arretako zerbitzuetan erizainak hautatzeko prozedura eta, esparru horretan, pediatriako arreta-zerbitzuetan erizainak hautatzeko prozedura erregulatuko duen araudia egitea	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun Sailburuordetza • Osakidetza
56. Kerik Gabeko Gazteak programa bultzatzea	Kerik Gabeko Gazteak (KGG) programa bultzatzea. “Tabako-kerik gabeko Euskadi” estrategiaren barruan kokatzen da ekimena, biztanle-talde guztiei tabakoaren kontsumoak osasunari eragiten dizkion arriskuen berri emateko eta horren inguruan sentsibilizatzeko asmoz. DBHko 1. eta 2. mailako ikasleei zuzentzen zaie eta ikasgeletan irakasleen laguntzarekin aplikatzeko diseinatuta dago.	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza
57. Biztanle gazteei eta nerabeei zuzendutako ingurumen-prebentzioko programak bultzatzea	Ingurumen soziala, hiritarra eta kulturala aldatzera bideratutako prebentziozko esku-hartzeak bultzatzea eta garatzea, nerabe eta gazteen artean adikziorik gabeko jokabideak hartzea ahalbidetzeko. Autonomia-erkidegoko arau-garapenez gain, sektore arteko lan eraginkorra, tokiko datuen bilketa (elkarrizketa elikatzeko), maila guztietako (komunitatekoa, eskolakoa eta familiakoa) jardunen integrazioa eta erabilgarritasunari eta irisgarritasunari buruzko informazioa eta sustapena eta publizitatea aintzat hartuko dituztenak sustatuko dira tokiko esparruan.	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza
58. Arrisku digitalei aurrea hartzea eta aurre egitera zuzendutako proiektu pilotuak egin daitezen sustatzea	Familiak teknologia berrietarako sarbidea eta Internet eta beste multimedia-baliabide batzuk segurtasunez erabiltzeko prestakuntza izan dezaten bultzatzea eta sustatzea, teknologia berrien abantailak identifikatzeko eta haien erabilera desegokiak ekar ditzakeen arriskuak ezagutzera emateko, baita komunikazioaren teknologiez (bereziki bideo-jokoez eta Internetez) abusatzearen ondorio diren patologia psikosozialak ere.	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza • Hezkuntza Sailburuordetza • Osasun Sailburuordetza
59. Nerabezaroan droga-kontsumo problematikoei aurrea hartzea eta aurre egitea	Substantzia adiktiboaren kontsumo problematikoak eta portaera-adikzioak dituzten nerabe eta gazteei zuzendutako programak bultzatzea	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun Sailburuordetza

10. helburua. EKITATEA HEZKUNTZAN		
10. helburua. Bizikidetzarako eta ekilaterako hezkuntza-esparru erkidea definitzea, aniztasunaren balioa indartzeko, diskriminaziorik gabeko eskolatzea bermatzeko eta hezkuntzaren erantzunak eta jardunbideak ikasle bakoitzaren beharretara eta ikasteko ahalmenara egokitzeko		
JARDUNA	DESKRIBAPENA	ARDURADUNA
60. Ikasteko zailtasun handienak dituzten ikasleei tratamendu espezifiko eskaintzea	Aniztasunaren arretarekin loturiko programak garatzea, hala nola: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Hamaika Esku. ▪ Hezkuntzan Berariaz Sendotzeko proiektuak. ▪ Kulturartekotasuna sustatzeko programak. ▪ Bidelaguna. ▪ Curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza Sailburuordetza.
61. Kohesio soziala, balioetan oinarritutako hezkuntza, pluraltasunaren errespetua eta pentsamendu- eta sinesmen-askatasuna, giza eskubideak eta aniztasunaren defentsa sustatzea	2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana garatzea eta eskolatzeko irizpide bateratu berriak aplikatzea, bizikidetzaren eta kohesio soziala sustatzeko, ikasleen aniztasuna (jatorria, etnia, hezkuntza-premia bereziak...) kontuan izango duen eskolatzeko inklusiboaren bitartez.	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza Sailburuordetza.
62. Balioetan oinarritutako hezkuntza finkatzea, pertsonen garapen integralean laguntzeko zeharkako konpetentzien garapena bultzatuta	Jardun hori ildo hauen bidez garatuko da: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Hezkuntza-esparruan haurrek jasan ditzaketen babesgabetasun-egoerak prebenitzeko eta egoera horietan jarduteko protokoloa inplementatzea. ▪ Bizikidetzaren positiborako eta eskola-jazarpenaren prebentziorako Bizikidetzaren ekimena inplementatzea. ▪ Ikasgeletan hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko II. plana inplementatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza Sailburuordetza.
63. DBH gainditu ez duten ikasleak Lanbide Heziketan sar daitezkeen sustatzea	Oinarritutako eta Erdi-mailako Lanbide Heziketaren eredu bat diseinatzea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan gradudun titulua lortu ez duten 15-17 urteko ikasleen premiei erantzuneko plana, eta/edo hezkuntza-premia bereziak dituztenei eta laguntza-premia handienak dituzten kolektiboari, bereziki desgaitasun intelektuala duten pertsonen kasuan, betiere kontuan izanik curriculum-egokitzapen horrek inoiz ezin izango duela desagerrarazi titularen gaitasuna izateko konpetentzia orokorra lortzeko oinarritutako konpetentzia profesionalerako loturiko helbururik, hala jasotzen baitu Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen Dekretua aldatzen duen otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuaren 14. artikulua.	<ul style="list-style-type: none"> • Lanbide Heziketako Sailburuordetza

11. helburua. BABESGABETASUN ETA KALTEBERATASUN EGOEREN PREBENTZIOA ETA ESKU HARTZEA		
11. helburua. Haurren babesgabetasun-egoeren prebentzioa bultzatzea eta eraginkortasunez esku hartzea kalteberatasun- edo arrisku-egoeretan eta babesgabetasun arin, ertain eta larriko kasuetan		
JARDUNA	DESKRIBAPENA	ARDURADUNA
64. Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua bultzatzea lehen eta bigarren mailako arretaren esparruan	Esku hartzeko eredu erkidearen definizioa abiapuntu hartuta, Gizarte Zerbitzuen Zorroan aintzat hartutako babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden adingabeentzako gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuak bultzatzea, eta toki- eta foru-administrazioen arteko koordinazio-protokoloak garatzea arretaren jarraitutasuna bermatzeko.	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza • Foru-aldundiak • Udalak
65. Euskal Autonomia Erkidegoan familia-harrera arautzen duen Dekretua garatzea	Euskal Autonomia Erkidegoan familia-harrera arautzen duen Dekretua onartzea eta betearaztea. Dekretua foru-aldundien tutoretzapean nahiz zaintzapean dauden adingabeen familia-harrerako prozedura guztiei aplikatuko zaie, baita beste edozein autonomia-erkidego edo -hiritako adingabeak babesteko erakunde publikoek hasitako beste prozedurei ere, baldin eta familia-harrerako neurria Euskal Autonomia Erkidegoan bizilekua duen pertsona nahiz familia batekin hartuko bada, eta lehenago erabaki bada dagokion foru-aldundiak formalizatu beharko duela familia-harrera.	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza • Foru-aldundiak
66. Babesgabetasun-egoeran dauden adingabeentzako egoitza-harrerako baliabideen erregulazioa aldatzea	Gizarte-babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideak arautuko dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretua aldatzea	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza • Foru-aldundiak
67. Atzerritar adingabeak aldi batez lekualdatzeko programak arautzea	Atzerritar adingabeak aldi batez Euskal Autonomia Erkidegora lekualdatzeko programei buruzko dekretua onartzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza • Foru-aldundiak

<p>68. Kalteberatasun-egoeran dauden edo erreferente heldurik ez duten haur eta nerabeentzat laguntza afektiboaren erreferente izan daitezkeen familia laguntzaileen programak bultzatzea</p>	<p>Kalteberatasun-egoeran dauden edo erreferente heldurik ez duten adingabeei pertsona edo familia boluntarioek laguntza- eta mentoretza-neurriak eskaintzera bideratutako programak egin daitezkeen bultzatzea, hurbileko laguntza eskain diezaieten eta haien hazkuntza-prozesuan erreferente izan daitezkeen.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Foru-aldundiak
<p>69. Gizarte-zerbitzuen eta osasun-zerbitzuen koordinazioa hobetzea haurren babesgabetasunaren esparruan</p>	<p>Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzuaren jardunak eta lehen eta bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuenak haur eta nerabeen babesgabetasun-egoeren aurrean koordinatzeko esparru-protokolo orokorra taxutzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza • Foru-aldundiak
<p>70. Familia Elkarguneak indartzea</p>	<p>Hiru hiriburuetatik kanpo Familia Elkargune berriak irekitzea eta gaur egungo zerbitzuen instalazioak hobetzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Justizia Sailburuordetza
<p>71. Arauz kanpoko sexu-orientazioa edo genero-portaerak dituzten haur eta nerabeentzako arreta hobetzea</p>	<p>Ikasle transexualei edo arauz kanpoko genero-portaera dutenei eta haien familiei laguntzeko ikastetxeentzako protokoloa inplementatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza • Osasun Sailburuordetza • Hezkuntza Sailburuordetza
<p>72. Eskola-esparruan sexu- eta genero-aniztasunaren inguruko sentsibilizazio- eta prestakuntza-programak bultzatzea</p>	<p>Berdindu Eskolak programa bultzatzea, irakasleei aholkularitza eta prestakuntza emateko sexu-aniztasunaren esparruan eta sexu-orientazioan oinarritutako diskriminazio edo jazarpenaren kasuetan orientatzeko. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleak aniztasun afektibo-sexualaren eta familiarraren inguruan hezteko programa bultzatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza
<p>73. Gizarte-zerbitzuen eta segurtasun-zerbitzuen koordinazioa hobetzea haurren babesgabetasunaren esparruan</p>	<p>Baimenik gabeko absenzietarako protokolo erkidearen jarraipena egitea, Segurtasun Sailaren eta gizarte-zerbitzuen jardunak koordinatzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Segurtasun Saila • Gizarte Politiketako Sailburuordetza • Foru-aldundiak

12. helburua. HAURREN ETA NERABEEN AURKAKO INDARKERIAREN PREBENTZIOA		
12. helburua. Haurren eta nerabeen aurkako indarkeria prebenitzea, baita genero-indarkeriak haur eta gazteen gainean dituen ondorioak ere, eta haur eta nerabeentzat indarkeriarik gabeko gizartea erdiesteko bidean aurrera jarraitzea		
JARDUNA	DESKRIBAPENA	ARDURADUNA
74. 116111 Zeuk Esan zerbitzua bultzatzea	Haur eta nerabeentzako informazio-, orientazio- eta aholkularitza-zerbitzua bultzatzea, eta, horretarako, zabalkunde-kanpainak egitea eta zerbitzurako irisgarritasun handiagoa ahalbidetuko duten aplikazio teknikoak garatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza
75. Hezkuntza-esparruan babesgabetasun-egoerak, tratu txarrak eta jazarpena prebenitzeko protokoloa ebaluatzea	Hezkuntza-esparruan haur eta nerabeek jasan ditzaketen babesgabetasun-egoerak eta tratu txarrak, abusua eta sexu-jazarpena prebenitzeko eta egoera horietan jarduteko protokoloa, eta hezkuntza-esparruan eta adingabeen babesean esku hartzen duten eragileen arteko lankidetzarako eta koordinaziorako protokoloa ebaluatzea eta, hala badagokio, berrikustea.	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza • Hezkuntza Sailburuordetza • Foru-aldundiak
76. Euskal Autonomia Erkidegoko haurren aurkako indarkeriari buruzko azterketa egitea	Haur eta nerabeen aurkako indarkeria-egoerak kuantifikatzea eta ezaugarritzea ahalbidetuko duen azterketa egitea, askotariko indarkeria-formak eta haurren profilen premia espezifikokoak kontuan hartuta (desgaitasuna, adingabe atzerritarrak, gutxiengo etnikoak, LGBTI kolektiboa, eta abar).	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza
77. Eskola-jazarpena prebenitzeko Bizikasi programa bultzatzea	Eskola-jazarpenaren aurkako Bizikasi programa pixkanaka ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko guztietan. Programak helburu hauek ditu: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Irakasleek, familiek eta hezkuntza-komunitateak eskola-jazarpenari buruzko prestakuntza jasoko dute. ▪ Ikastetxe guztiak indarkeriarik eta beldurrik gabeko zonak izatea. ▪ Ikastetxeak garapen pertsonal zein sozialerako ikasteko espazioak izatea. ▪ Hezkuntza-komunitateak ikastetxeak bizikidetzara positiborako ingurune seguru bihurtzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza Sailburuordetza
78. Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeekin esku hartzeko programak bultzatzea	Genero-indarkeriako egoerak jasan dituzten familia-unitatekoak diren adingabeen zuzendutako familiaren gaineko esku-hartze espezializatuko programak bultzatzea	<ul style="list-style-type: none"> • Foru-aldundiak

<p>79. Hurrenganako indarkeriaren aurka sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko kanpainak garatzea</p>	<p>Haur eta nerabeen aurkako indarkeriaren inguruko sentsibilizazio-kanpainak aldian behin lantzea eta garatzea komunikabideetan eta kirolaren, hezkuntzaren eta osasunaren esparruetan.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza
<p>80. Nahiko hezkidetzaprograma bultzatzea</p>	<p>Balioetan oinarritutako hezkuntzaren bidez elkarrekin berdintasunean bizitzeko Nahiko hezkidetzaprograma bultzatzea, giza eskubideak eta genero-rolen analisisa oinarri hartuta.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea

13. helburua. GAZTE DELINKUENTZIAREN PREBENTZIOA ETA ADINGABE ARAU HAUSLEENTZAKO ARRETAREN HOBEKUNTZA		
13. helburua. Adingabeek egindako arau-haustek prebenitzea eta murriztea, eta Gazte Justiziaren erantzunak pertsona bakoitzaren errealitatera egokitzea, haren gizarteratzea hobetzeko		
JARDUNA	DESKRIBAPENA	ARDURADUNA
81. 14 urte baino gutxiagoko haur arau-hausleentzako arreta hobetzeko plan espezifikoak garatzea	<p>14 urte baino gutxiagoko haur arau-hausleentzako arreta hobetzeko plana eta/edo batera jarduteko protokoloa garatzea, besteak beste alderdi hauek jorratuko dituen:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Tramiteak arintzea, fiskaltzetatik 14 urte baino gutxiagokoek egindako arau-hausteren bat identifikatzen duten kasuetan garaiz eta forman esku hartzea bermatzeko. ▪ Kasua adingabearen legezko ordezkariari jakinarazteari dagokiona hobetzea eta sistematizatzea ▪ Adingabeari bermatzea entzungo diotela eta bere iritzia kontuan hartuko dutela ▪ Gurasoei entzuteko eta informazioa helarazteko eta haurari entzuteko prozedura artikulatzea. ▪ Informazioa erakundearen artean transferitzeko prozesuak hobetzea ▪ Prebentziozko identifikazioko eta esku-hartzeko sareetan udaltzaingoak sistematikoki txerta daitezkeen bultzatzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Justizia Sailburuordetza • Segurtasun Sailburuordetza • Foru-aldundiak • Udalak
82. Gurasoen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko eta aurre egiteko baliabide espezifikoak abian jartzea	<p>Gurasoen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko eta aurre egiteko baliabide espezifikoak abian jartzea; besteak beste, elementu hauek jasoko dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Gurasoen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko programak bultzatzea. ▪ Gurasoen aurkako indarkerian espezializatutako familiaren gainean esku hartzeko programak bultzatzea. ▪ Gurasoen aurkako indarkeria-egoerei aurrea hartzeko eta aurre egiteko erakunde arteko lantalde bat sortzea. ▪ Gurasoen aurkako indarkeria-kasuen ondorioz kondenatutako adingabeek arreta emateko ikastetxe espezifiko berri bat eraikitzea eta abian jartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza • Foru-aldundiak • Justizia Sailburuordetza
83. Prozedura judizialean murgilduta dauden adingabeen laguntza integraleko zerbitzua abian jartzea	<p>Prozedura judizialean murgilduta dauden adingabeek laguntza integrala eskaintzera bideratutako proiektu pilotua garatzea, prozesuen fase guztiak —ikerketa-fasea hasten denetik prozesu judizialak irauten duen bitartean— kontuan izanik, eta prozedura horietan inplikaturik egoteko modu posible guztiak (biktima gisa, lekuko gisa, inputatu gisa, eta abar) aintzat harturik</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Justizia Sailburuordetza

84. Euskal Autonomia Erkidegoko gurasoen aurkako indarkeriari buruzko azterketa egitea	Azterketa egitea Euskal Autonomia Erkidegoko gurasoen aurkako indarkeriaren egoera analizatzeko, familia-aldagaien eragina aztertzeko, premiak detektatzeko, eta indarkeria hori prebenitzeko eta gisa horretako egoerak jasaten dituzten familiei arreta emateko jardun-plan globala eskaintzeko.	<ul style="list-style-type: none">• Gizarte Politiketako Sailburuordetza
--	--	--

14. helburua. HAURREN PARTE HARTZEA ETA HAURREN ESKUBIDEEN SUSTAPENA		
14. helburua. Haurrek eta nerabeek beren ongizateari buruzko erabakietan parte har dezaten bultzatzea		
JARDUNA	DESKRIBAPENA	ARDURADUNA
85. Haurren eskubideen inguruko prestakuntza- eta informazio-kanpaina espezifikoa garatzea	Haurren eskubideen inguruko prestakuntza- eta informazio-kanpaina espezifikoa garatzea komunikabide jeneralistetan, eta, espezifikoki, hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen esparruan.	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza
86. Haurrek parte hartzeko mekanismoen sorrera bultzatzea	Tokiko, eskualdeko, lurraldeko eta/edo autonomia-erkidegoko esparruan haurren parte-hartzea sustatuko duten mekanismoen sorrera bultzatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza • Foru-aldundiak • Udalak
87. Haurren eskubideei buruzko prestakuntza-, sentsibilizazio- eta autoebaluazio-programa espezifikoa sartzeari ikastetxeetan	Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan mailaz maila sartzeari ikastetxearen funtzionamendua haurren eskubideen inguruan artikulatuko duen proiektu pedagogikoa, ikastetxearen heziketa-proiektuan haurren eta herritar globalen eskubideen ikusmoldea sartzeko aukera emango duena, prestakuntza-jardueren, ikastetxeen autoebaluazioaren eta abarren bidez.	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza Sailburuordetza

15. helburua. KOMUNITATE GARAPENA		
15. helburua. Egitura eta ekipamendu soziokulturalen eta gizarte- eta hezkuntza-arlokoen garapena sustatzea, eta haur eta gazte guztiei eta, bereziki, egoera okerragoan daudenei, aisiaz, kirolaz eta kulturaz gozatzeko erraztasunak ematea		
JARDUNA	DESKRIBAPENA	ARDURADUNA
88. Hirugarren sektoreko erakundeek garatutako haur eta nerabeekin eta/edo familiekin esku-hartzeko proiektu berritzaileen baterako finantzaketa bultzatzea	<p>Euskal Autonomia Erkidegoan esku-hartze sozialaren esparruan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak indartzea, jardun-esparru hauetara zuzendutako proiektu pilotu berritzaileen gauzatzea eta ebaluazioa elkarrekin finantzatzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Familia-kontziliazioko zerbitzu eta eredu berritzaileak. ▪ Belaunaldien arteko programak. ▪ Kalteberatasun sozialeko arriskuan dauden nerabeei eta haien familiei zuzendutako prebentzio- eta arreta-programak. ▪ Gurasotasun positiboko programak (guraso-trebetasunen garapena eta gurasotasun positiborako prestakuntza). ▪ Haur eta nerabeekin esku hartzea aisiaren esparruan, kirolean, kulturari, ohitura osasungarrien sustapenean eta aisia eta astialdiko jarduerak egiten. ▪ Haurren parte-hartzea eta haurren eskubideak sustatzen dituzten programak. ▪ Haurren aurkako indarkeriaren inguruan sentibilizatzeko, prebenitzeko eta esku hartzeko programak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza
89. Gizarte-zerbitzuen zorroari buruzko Dekretuan jasotako gizarte-zerbitzuen eremuko parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua bultzatzea	Gizarte-zerbitzuen zorroari buruzko Dekretuan jasotako gizarte-zerbitzuen eremuko parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua bultzatzea (1.5).	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza • Udalak
90. Adingabeentzako garraio publikoari deskontu eta hobari berriak sartzeko aukera aztertzea	Adingabeentzako garraio publikoari gaur egun dauden deskontu eta hobarien gehigarriak sartzeko aukera aztertzea, eta garraio publikoaren doakotasuna bermatzea, hiru lurralde historikoetan, sei urte artekoentzat.	<ul style="list-style-type: none"> • Garraio Plangintzaren Zuzendaritza • Foru-aldundiak • Udalak

<p>91. Hezkuntzatik sormen- eta kultura-garapena sustatzera bideratutako jarduerak bultzatzea eta haurrak publiko estrategikotzat har daitezen bultzatzea</p>	<p>Programa hauek indartzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Haur eta gazteentzako literatura-sorkuntzarako laguntzak. ▪ Haurrek euskarazko zinema ikusteko aukera izan dezaten sustatzea, eskaintza sustatuta (<i>Zinema Euskaraz</i>). ▪ Ikasleak zinemaren sektorearekin sentsibilizatzea (<i>Tinko</i>). ▪ Haur eta gazteei zuzendutako literatura-sorkuntzaren balioa nabarmentzea (<i>Euskadi Literatura sariak</i>). ▪ Jaialdiek haurrei eta eskoletako publikoari zuzenduta sustatutako ekintzei sostengua ematea (Durangoko Azoka – ikaslearen eguna; Zinetxiki...). ▪ Haur eta nerabeei bereziki zuzendutako antzerki-adierazpenei sostengua ematea: Tolosako Ekinbide Etxea (TEE), Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketa, Haur eta Gazteentzako Arte Eszenikoen Euskal Sarea (Biargi Sarea), kaleko antzerki jaialdiak, Gasteizko Nazioarteko Magia Jaialdia - Magialdia, eta abar. ▪ Haur eta nerabeei bereziki zuzendutako musika-adierazpenei sostengua ematea (ABAO Txiki, Euskadiko Gazte Orkestra, eta abar). ▪ Haur eta nerabeen artean dantza sustatzeko jarduerak bultzatzea. ▪ Ikastetxeetan haur eta nerabeen irakurzaletasuna sustatzeko aholkularitza-programa garatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Kultura Sailburuordetza
<p>92. Haur eta nerabeei euskara transmititzera bideratutako jarduerak bultzatzea</p>	<p>Jardun-ildo hauek bultzatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Nerabeen hizkuntza-ohiturak azpimarratzeko udalekuak. ▪ Euskara sustatzeko sentsibilizazio-kanpaina (<i>Bihotzetik ezpainetara</i>). ▪ Euskararen familia-transmisioa sustatzeko diru-laguntzak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Kultura Sailburuordetza
<p>93. Jarduera fisikoa areagotzea eta sedentarismoa murriztea, bereziki haur eta gazteen artean</p>	<p>Mugiment programa garatzea, bereziki jardun-ildo hauei dagokienez:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Tokian tokiko sareak sortzea, jarduera fisikoaren sustapenerako ekintzak eta estrategiak koordinatzeko (Mugisare). ▪ Eskola-orduetan jarduera fisikoari emandako denbora handitu eta sedentarismoa saihestea. Garraio aktiboa sustatzeko asmotan eskola-ibilbideak sortzen ari dira (Mugikasi). 	<ul style="list-style-type: none"> • Kultura Sailburuordetza
<p>94. Landa-eremuetan kirol- eta kultura-ekipamenduen eraikuntza eta/edo egokitzapena bultzatzea</p>	<p>Landa-eremuetan kirol- eta kultura-ekipamenduen eraikuntza eta/edo egokitzapena bultzatzea, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzaren kirol- eta kultura-ekipamenduak eraikitze eta berregokitzeko diru-laguntzen ildoen bitartez.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetza
<p>95. Landa-ingurunea kirol- eta kultura-jardueren bidez dinamizatzea zuzendutako diru-laguntzen ildoak sortzea</p>	<p>Landa-ingurunea kultura- eta kirol-arloko jarduera eta/edo ekitaldien bitartez dinamizatze laguntza-ildo espezifikoak sortzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetza

96. Biztanleguneetan belaunaldi berriko banda zabala instala dadin bultzatzea	Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleguneetan belaunaldi berriko banda zabala hedatzeko proiektua gauzatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleguneetan bizi diren familien konektagarritasuna hobetzeko.	<ul style="list-style-type: none"> • Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetza
97. Ikastetxe publikoetan oporraldietan aisia eta astialdiko jarduerak gara daitezzen bultzatzea	Ikastetxe publikoetan oporraldietan aisia eta astialdiko programak gara daitezzen bultzatzea; familiek eta erakunde publiko sustatzaileek elkarrekin finantzatuko dituzte eta xede hauek izango dituzte: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Aldi horretan gurasoei lana eta familia bateragarri egiteko aukera ematea. ▪ Errenta txikieneko familiei gizarte- eta hezkuntza-esparruarekin lotura egonkorra mantentzeko aukera ematea eta ikasteko prozesuetan hezkuntza ez-formalak duen eginkizuna indartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza • Hezkuntza Sailburuordetza • Udalak
98. Tokiko esparrutik ordutegien kultura berriaren garapena bultzatzea	Tamaina ertaineko udalerrri batean proiektu pilotu bat diseinatzea eta garatzea, tokiko mailako ordutegiei eta denboraren erabilerrari loturiko kultura berri bat analitzatzeko eta garatzeko.	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza • Foru-aldundiak • Udalak
99. Eskola-esparruan garatutako jardunak ikastetxearen beraren eta ikastetxearen inguruko gizarte- eta hezkuntza-erakundeen eskolaz kanpoko jarduerekin koordinatzea	Euskal Autonomia Erkidegoko Kirolaren Legearen hurrengo berrikusketan nahitaezkoztat sartzea eskola-kiroleko kanpainetan parte hartu nahi duten ikastetxeek eta gainerako kirol-erakundeek kirol- eta heziketa-izaerako proiektuak eduki behar dituztela eta, ikastetxeen kasuan, ikastetxearen heziketa-proiektuan sartuta egon beharko dutela.	<ul style="list-style-type: none"> • Enplegu eta Gazteria Sailburuordetza • Kultura Sailburuordetza
100. Kirolaren Legearen berrikusketan sartzea kirolean adingabeak babesteari buruzko alderdiak eta premia bereziak dituzten biztanleek kirola egiteko aukerari buruzkoak	Euskal Autonomia Erkidegoko Kirolaren Legearen berrikusketan sartzea hauek ezartzeari buruzko atalak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Kirola egitean adingabeen babesa ziurtatuko duten politikak eta neurriak, kirolaren esparruan izan litezkeen kalteberatasun-egoerak saihesteko: sexu-jazarpena eta -abusua kirol-ingurunearen aldetik; jazarpena kirol-taldeko kideen aldetik; teknologia digitalen erabilera desegokia; kirol-agenteen interes komertzialak; elikadura-produktuen erabilera zabarra, edo, are gazteek substantzia dopatzaileak ere estetika- edo kirol-xedeekin erabiltzea kirol-ingurune edo -instalazioetan; eta abar. ▪ Premia bereziak dituzten biztanleek eta, bereziki, kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoeran dauden adingabeek kirola egiteko aukera izango dutela ziurtatuko duten politikak eta neurriak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Kultura Sailburuordetza
101. Kirol-erakundeak sentsibilizatzea egoera sozial eta ekonomiko okerragoan dauden adingabeei kirola egiteko aukera eman diezaieten, eta egiteko horretan laguntzea.	Kirol-erakundeak egoera sozial eta ekonomiko okerragoan dauden adingabeen inguruan sentsibilizatzeko proiektuak egin daitezzen bultzatzea, eta haiei kirola egiteko aukera ematen dieten erakundeen onerako irizpideak ezartzea kirol-klubentzako eta kirol-federazioentzako diru-laguntzen ildoetan edo eskola-kiroleko programetan eta antzekoetan.	Kultura Sailburuordetza

6.6. 5. ardatza: Euskal Autonomia Erkidegoan familiaren eta haurtzaroaren arloko politiken lidergoa, ebaluazioa eta gobernantza sustatzea

16. helburua. INFORMAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA		
16. helburua. Familiaren eta haurtzaroaren arloko politikaren esparruan egituratutako zerbitzu eta laguntzen informazioa ematea eta gizartea kontzientziatzea familian eta haurtzaroan inbertitzeko politikak garatzeko premiaren inguruan		
JARDUNA	DESKRIBAPENA	ARDURADUNA
102. Familientzako gida argitaratzea eta aldian behin eguneratzea	Euskal familiei instituzio eta erakundeetatik eskaintzen dizkieten baliabide eta laguntza guztiak bilduko dituen familientzako gida egitea eta ezagutzera ematea	• Gizarte Politiketako Sailburuordetza
103. Ardua partekatuko kontziliazioaren eta gurasotasun positiboaren garrantziaren inguruko sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainak egitea hezkuntza-esparruan eta komunikabideetan	Sentsibilizazio- eta prestakuntza-programa espezifikoak garatzea, irakasleei, hezitzaileei, ikasleei eta guraso-elkarteei zuzenduak, ardua partekatuko kontziliazioaren eta gurasotasun positiboaren garrantzia muintaratzeko; eta komunikabide orokorretan ezagutzera ematea.	• Gizarte Politiketako Sailburuordetza
104. Haurren eskubideak sustatzera eta familietan eta haurtzaroan inbertitzeko premia azpimarratzera zuzendutako kanpaina instituzionala egitea	Komunikabideetan sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak egitea gai hauen inguruan: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Familiaren balioa, kontziliazioa, ardua partekatua, gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna eta gurasotasun positiboa. ▪ Haurren eskubideak eta Haurraren Eskubideen Konbentzioaren aplikazioa, horiek euskaratzea barne. 	• Gizarte Politiketako Sailburuordetza
105. Gizonek seme-alabak hazteko eta zaintzeko lanetan parte hartzearen inguruko sentsibilizazioa bultzatzea	Seme-alabak zaintzearen eta haztearen balioak sustatzeko eta horien inguruan sentsibilizatzeko ekintzak bultzatzea, erreferentziako eredu berriak sortzeko eta zainketen funtzio sozialaren balioa nabarmentzeko.	• Gizarte Politiketako Sailburuordetza

17. helburua. LIDERGOA ETA KOORDINAZIOA		
17. helburua. Lidergo- eta koordinazio-esparru garbia ezartzea autonomia-erkidegoaren eta lurraldearen mailan eta tokiko mailan, eta benetako gizarte- eta hezkuntza-espazioaren egituraketa bultzatzea		
JARDUNA	DESKRIBAPENA	ARDURADUNA
106. Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko 3/2005 Legea aldatzea	Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko 3/2005 Legea eguneratzea, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legearen eta Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoaren arabera.	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza
107. Gazteriaren Euskal Legea egitea	Gazteriaren Euskal Legea egitea eta onartzea, gazteei emantzipatzeko erraztasunak emateko. Besteak beste, gazteen emantzipazioa ahalbidetzera, ezkutuko pobrezia murriztera eta bizitza autonomoko proiektuen kontsolidazioa ahalbidetzera zuzendutako neurriak aintzat hartuko dituzte legeak.	<ul style="list-style-type: none"> • Enplegu eta Gazteria Sailburuordetza
108. Familia eta haurren arloko lurralde-kontseiluen funtzionamendua bultzatzea	<p>Familia eta haurren arloko lurralde-kontseiluen funtzionamendua eta/edo sorrera bultzatzea, eta Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren, Osasun Sailaren, Hezkuntza Sailaren, foru-aldundien eta udalen parte-hartzea bultzatzea. Kontseilu horiek funtzio hauek izango dituzte, besteak beste:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Familia, haur eta nerabeei zuzendutako gizarte-, osasun- eta hezkuntza-zerbitzuen plangintza koordinatua. ▪ Familia, haur eta nerabeen esparruko premien baterako detekzioa. ▪ Haur eta nerabeekin erlazionatutako gizarte- eta hezkuntza-premiak, premia soziosanitarioak edo hezkuntza- eta osasun-premiak estaltzen esku hartzeko programa espezifikoak elkarrekin diseinatu, finantzatu eta/edo kudeatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza • Osasun Sailburuordetza • Hezkuntza Sailburuordetza • Kultura Sailburuordetza • Foru-aldundiak • Udalak

<p>109. Familia, haur eta nerabeen arloko tokiko plan eta mahaia landu eta abian jar daitezzen bultzatzea</p>	<p>Haur eta nerabeen arloko tokiko plan eta mahaien garapena bultzatzea, haur eta nerabeen esparruan tokiko mailan esku hartzen duten eragile publiko eta pribatuak (gizarte-zerbitzuak, osasun-zerbitzuak, ikastetxeak, kultura- eta kirol-arloko elkarteak eta ekipamenduak, astialdiko taldeak, eta abar) koordinatzeko organo iraunkorrak sortzeko eta haur eta nerabeentzako zerbitzuak tokiko eskalan elkarrekin planifikatzeko. Bereziki, jarduera hauek egitea sustatuko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Haur eta nerabeen arloko tokiko mahaia sortzea eta dinamizatzea. ▪ Haur eta nerabeen arloko tokiko planak diseinatzea eta gauzatzea. ▪ Egiaztatze-programetan parte hartzeko laguntza eta aholkularitza teknikoa (Haurren Lagun diren Hiriak, Haurren Hirien Sarea, eta abar). ▪ Gizarte- eta hezkuntza-izaerako edo izaera soziosanitarioko proiektu espezifikoak tokiko eta/edo eskualdeko mailan egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza
<p>110. Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren egitura eta plantilla egokitzea</p>	<p>Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren plantilla handitzea eta egitura organikoa plan hau gauzatzearen ondorio diren erantzukizun eta funtzioetara egokitzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Funtzio Publikoko Sailburuordetza

18. helburua. JAKINTZAREN KUDEAKETA ETA EBIDENTZIAN OINARRITUTAKO JARDUNBIDEA		
18. helburua. Jardunbide egokiak ezagutzera ematea, esku-hartzeak ebaluatzea eta haurren eta familien ongizatearekin erlazioatutako adierazleen sistema mantentzea, beharrak detektatzeko eta politika publikoak berriz bideratzeko, ebidentzian oinarritako jardunbidea abiapuntu hartuta		
JARDUNA	DESKRIBAPENA	ARDURADUNA
111. Haurren eta Nerabeen Behatokia eta Familien Euskal Behatokia indartzea	<p>Haurren eta Nerabeen Behatokia eta Familien Euskal Behatokia indartzea, euskal familien errealitatearen, egoeraren eta problematikaren erradiografia edukitzeko, garatutako politiken inpaktua eta ezarritako helburuen betetze-maila neurtzearen bidez. Horretarako, besteak beste, jardun hauek garatuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Haurren eta Nerabeen Behatokiaren eta Familien Euskal Behatokiaren lanak planifikatzen eta haien jarduera estrategikoki bideratzen lagunduko duen Aholkularitza Batzorde Zientifikoa sortzea. ▪ Familien eta haurren egoerari, premiei eta horren inguruan garatzen diren politikei buruzko datu-banku bat eta <i>online</i> adierazleak argitaratzea. ▪ Ikerketen eta azterketen programa espezifikoak bi urtez behin onartzea. ▪ Plan honetan jorratutako elementuekin (bereziki esku-hartze goiztiarra, gizarte- eta hezkuntza-programak, haurrentzako arreta, hezkuntza inklusiboa, kontziliazio-programak eta gurasotasun positiboa) erlazioatutako jardunbide egokien identifikazioa eta zabalkundea bultzatzea. ▪ Euskal Autonomia Erkidegoko familia eta haurren egoerari buruzko txostena aldi behin egitea. ▪ Euskal Autonomia Erkidegoko pobrezia belaunaldien arteko transmisioari buruzko txosten espezifikoak egitea. ▪ Familia, haur eta nerabeei bideratutako esku hartzeko programen eraginkortasunari buruzko berrikusketa sistematikoak egitea. ▪ Dokumentu-funts espezializatua garatzea estatuko, Europako eta nazioarteko mailan. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza

<p>112. Haur eta nerabeei bideratutako esku hartzeko programen ebaluazioa eta alor horretako prestakuntza espezializatua bultzatzea</p>	<p>Haur eta nerabeei bideratutako esku hartzeko programen ebaluazioa eta alor horretako prestakuntza espezializatua bultzatzea, honako hauen bidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Euskal Autonomia Erkidegoan esku-hartze sozialaren esparruan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak indartzea, ebaluazioen baterako finantzaketa bultzatzeko eta familia eta haurren esparruan ebidentzian oinarritutako programen proiektu pilotuak egiteko. ▪ Familia eta haurren arloko graduondoko prestakuntza bultzatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateekin lankidetzan. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza
<p>113. Haur, nerabe eta familien tokiko mailako egoerari buruzko tokiko diagnostikoak egin daitezten bultzatzea</p>	<p>Haur, nerabe eta familien tokiko eta eskualdeko mailako egoerari buruzko diagnostikoak egiteko behar den laguntza teknikorako finantza-sostengua ematea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza
<p>114. Haurren iritzi-barometro baten garapena bultzatzea</p>	<p>Haur eta nerabeek beren bizi-kalitatearekin zerikusia duten alderdiei buruz duten ikuspuntua jasoko duen haurren iritzi-barometro edo azterketa bat aldi behin egin dadin bultzatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza • Prospekzio Soziologikoen Kabinetea
<p>115. Haur eta nerabeen bizi-baldintzekin erlazioatutako luzetarako ikerketak bultzatzea</p>	<p>Luzetarako ikerketak garatzea, inkesta-datuen bidez eta administrazio-datu eta -erregistroen bidez eta/edo bien konbinazioaren bidez, hauek identifikatu ahal izateko:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Haur eta nerabeen bizi-kalitatean eragina duten faktoreak. ▪ Pobrezia- eta bazterketa-egoerak iragartzen dituzten faktoreak. ▪ Gurasotasunaren eta lan-baldintzen arteko erlazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Politiketako Sailburuordetza
<p>116. Araugintza-proiektuetan haur eta nerabeen gaineko eta familien gaineko inpaktuaren txostenak egin daitezten sustatzea</p>	<p>Xedapen Orokorrek egiteko Prozeduraren Legean sartzea araugintza-proiektu baten formulazioaren hasierako fasean proposamen horrek haur eta gazteen egoeran eta familien egoeran zer-nolako inpaktua duen nahitaez ebaluatu beharra.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Araubide Juridikoaren Sailburuordetza

7. Egutegia eta memoria ekonomikoa

7.1.- Sarrera

Atal honetan jasotzen da Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Politiketako Sailburuordetzari, eta, zehazkiago, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzari dagozkion Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Planaren ekintzen egutegia eta kuantifikazio ekonomikoa. Neurrien egutegia eta kuantifikazioa sail horrek bultzatutako neurrietara mugatzen da, batez ere, plana erakunde artekoa izan arren, familia-politikei dagozkien funtsezko neurriak sail horretatik bultzatutakoak direlako, Familiei Laguntzeko 13/2008 Legean xedatutakoa betetzeko.

Hori abiapuntu hartuta, lehenik modu agregatuan jasotzen da ekitaldi bakoitzean planaren ardatz bakoitzari bideratzeko aurreikusten den gastua. Arestian esan den moduan, oso-osorik dagokie Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzari eta Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzari. Adierazi beharra dago, ildo horretan, ez dela, jakina, zuzendaritza horientzat aurreikusitako gastu osoa, planean zuzendaritza horiei esleitzen zaizkien jardunak gauzatzeko beharrezkotzat jotzen dena baizik; bigarrenik, planaren jardun-ardatz bakoitzerako jasotzen dira Gizarte Politiketako Sailburuordetzak gauzatzeko edo bultzatzekoak diren neurriak garatuko dituzten aurrekontu-ekitaldiak.

7.2.- Gizarte Politiketako Sailburuordetzari dagozkion jardunak garatzeko aurreikusitako gastuaren kuantifikazioa

Adierazi berri den moduan, planean Gizarte Politiketako Sailburuordetzari esleitutako 50 bat ekintzen gastu zenbatetsia jasotzen du hurrengo taulak, ardatz eta ekitaldien arabera.

1. taula. Gizarte Politiketako Sailburuordetzari dagozkion neurriei esleitutako gastuaren kuantifikazioa, ardatz eta ekitaldien arabera (milaka euro)

	2018	2019	2020	2021	2022	Guztira
2. ardatza: Bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioa eta seme-alabak zaintzeko ardura partekatua erraztea	35.753	55.474	55.539	55.539	83.722	286.027
3. ardatza: Familiei laguntzea	34.972	31.400	31.492	31.492	31.492	160.848
4. ardatza: Haurren eta nerabeen ongizatea bermatzea	1.023	1.510	2.100	2.910	2995	10538
5. ardatza: Familiaren eta haurtzaroaren arloko politiken lidergoa, ebaluazioa eta gobernantza sustatzea	102	168	318	368	368	1.324
Guztira	71.849	88.552	89.449	90.309	118.577	458.736

ITURRIAK: bertan landua

Aurreko taulan ikus daitekeen moduan, neurri horien guztizko kostua, plana aplikatuko den aldiaren zehar, **458,7** milioi eurokoa da; kopuru horretatik 286 milioi euro 2. ardatzera

bideratzen dira (Bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioa eta seme-alabak zaintzeko ardua partekatua erraztea); beraz, gastua urteko 83 milioi eurotik gorakoa da, gaur egungo 35 milioi euroko gastuaren aldean, eszedentziak eta lanaldi-murrizketak estaltzeko prestazio ekonomikoetan aldaketak ezartzen direnean. Bigarren ardatza, garrantziari dagokionez, 3. ardatza da —Familiei laguntzea—, urteko 31,4 milioi euro inguruko gastuarekin (nolanahi ere, kopurua aldatu egin liteke planaren 35. jardunean aintzat hartutako analisiaren ondorioz hartzen diren erabakien arabera). Ez da ahaztu behar, gainera, planaren 36. jardunean jasotako prestazioak eskubide unibertsal eta subjektibo bati dagozkionez, kontzeptu horretan sor daitezkeen laguntza-eskabide guztiak aintzat hartu beharko direla, jaiotze-tasetan erdietsi nahi den igoeraren ondorioz.

Ez da memoria honetan zenbatzen Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saisetik, kasu honetan Enplegu eta Gazteria Sailburuordetzatik, familietara bideratzen den inbertsioaren zati handi bat; besteak beste:

- **660** milioi euro inguru (urtean 132 milioi euro), gutxienez seme edo alaba bat ardurapean duten familiei dagozkien tramitatutako 16.000 espediente baino gehiagotara bideratuak, hileko 657,94 euroko batez besteko zenbatekoarekin, DSBEa jasotzen duten familietan (Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema), hurrengo urtetik aurrera planaren 34. jarduna indarrean jartzearen ondorioz partida horretan aurreikusitako igoera kontuan hartu gabe.
- **125** milioi euro (urtean 25 milioi euro), gazte-enpleguko politiketara bideratuak.

Azkenik, nabarmendu beharra dago, halaber, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuetatik, foru-aldundietatik eta udaletatik haurren eta familiaren arloko politiketara bideratzen dituzten inbertsioak ere ez direla zenbatzen memoria honetan. Azken horien artean hauek nabarmen daitezke:

- **220** milioi euroko gastua (urtean 44 milioi euro), Haurreskolak Partzuergora bideratua.
- **250** milioi euro (urtean 50 milioi euro), derrigorrezko irakaskuntzetarako, haur-hezkuntzarako eta hezkuntza berezirako beketan eta ikasketetarako laguntzetan.
- **50** milioi euro inguru (urtean 10 milioi euro), gazteei zuzendutako etxebizitza eskuratzeko prestazio ekonomikoen programara bideratuak.
- **1.575** milioi euroko zerga-gastua (urtean 315 milioi euro) ondorengo enkenkarietan, hiru lurralde historikoetako foru-aldundiek kudeatzen duten PFEZren esparruan.
- **415** milioi euro (urtean 83 milioi euro) haur eta familiei zuzendutako gizarte-zerbitzuetan.

Hots, orotara **1.243,7** milioi euro izango genituzke plan honekin zuzenean erlazionatutako politiketara bideratuak Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saisetik, 520 milioi euro plan honekin zuzenean erlazionatutako politiketara bideratuak Hezkuntza Saisetik

(Haurreskolak eta beka) eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileratik; beraz, guztira **1.763,7** milioi euro bideratuko lirateke Eusko Jaurlaritzako sailetatik. Horrez gain, **1.575** milioi euroko zerga-gastua izango genuke, ondorengoen kenkarietan, foru-aldundiek kudeatzen duten PFEZren esparruan. Dokumentu honen testuan aurreratu dugun moduan, Europan atipikoa den sistema duala konfiguratzeko da, elkarrekin biltzen baititu, alde batetik, familiei zuzendutako zerbitzu publikoen, laguntzen eta prestazioen sistema, eta, bestetik, zerga-arintzeen sistema.

Eta hori guztia, jakina, Eusko Jaurlaritzako sailen beste partida asko kontuan hartu gabe, batez ere Osasun Sailarenak, Hezkuntza Sailarenak eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarenak, edo Emakunderenak, inongo zalantzarik gabe familiak azken hartzaile dituztenak.

7.3.- Gizarte Politiketako Sailburuordetzari dagozkion jardunen egutegia finkatzea.

2. ardatza: Bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioa eta seme-alabak zaintzeko ardura partekatua erraztea					
	2018	2019	2020	2021	2022
16. Lanaren eta familiaren kontziliaziorako laguntzak mantentzea, mendekotasun-egoeran dauden senitartekoak zaintzeko					
17. Lan-eszedentziako egoeran dauden langileentzako egungo laguntzak berrorientatzea, aitatasun-eszedentzien estaldura ekonomikoa bermatzeko					
18. Lan-eszedentziako egoeran dauden langileentzako egungo laguntzak berrorientatzea, premia bereziko egoeran dauden familien kasuan seme-alabak zaintzeko eszedentzien estaldura ekonomikoa hobetzeko					
19. Lanaldi-murrizketako egoeran dauden langileentzako egungo laguntzak berrorientatzea, premia bereziko egoeran dauden familien estaldura hobetzeko					
21. Enpresetan bizitza pertsonala, lana eta familia bateragarri egiteko proiektu pilotuak eta planak gara daitezen bultzatzea					
25. Kontziliazio-neurriak eta ardura partekatukoak aplikatzen lider eta erreferente diren enpresen eginkizuna ezagutzea, sari eta ezagumenduen sistema baten bidez					
26. Enpresa-esparruan kontziliazio-neurriak egiaztatzeke eta ziurtatzeko sistemak bultzatzea					
27. Euskal Autonomia Erkidegoan gurasotasun positiboko programen oinarri zientifikoa bultzatzea					
28. Gurasotasun positiboko programak indartzea eta hedatzea					
29. Atxikimendu segurua sustatzeko eta gurasoen sentsibilitatea eta erantzuteko prestasuna hobetzeko programa pilotua garatzea					

30.	Gurasotasuna web-orria finkatzea, familiei gurasotasun positiboaren inguruko informazioa, orientabidea eta aholkuak emateko webgune gisa					
32.	Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan eskaintzen diren familia-bitartekaritzako programak indartzea					
33.	Familia-bitartekaritzako prozesuen esparruan agindutako familia-terapiako programetan sartzeko erraztasunak ematea					

3. ardatza: Familiei laguntzea

	2018	2019	2020	2021	2022
36. Ardurapeko seme-alaben ondoriozko aldian behingo prestazio ekonomikoak mailaz maila hobetzea					
40. Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak mantentzea, seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeke					
41. Premia bereziko egoera puntualetan dauden haurrentzako arreta-programa pilotuak garatzea					
44. Belaunaldien arteko harremanak sustatzen dituzten eta/edo beren jardueretan berariaz jasotzen dituzten programei sostengua ematea					
45. Haurrek eta nerabeek beste belaunaldi batzuetako jendearen bizi-esperientzien berri izan dezaten sustatzea					

4. ardatza: Haurren eta nerabeen ongizatea bermatzea					
	2018	2019	2020	2021	2022
46. Ama haurdun gazteei laguntzeko programa pilotu soziosanitarioa garatzea					
47. Haurtzaroan zabarkeria fisiko eta emozionaleko egoerak prebenitzeko programa pilotu soziosanitarioa garatzea					
58. Arrisku digitalei aurrea hartzea eta aurre egitera zuzendutako proiektu pilotuak egin daitezen sustatzea					
67. Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua bultzatzea lehen eta bigarren mailako arretaren esparruan					
68. Euskal Autonomia Erkidegoan familia-harrera arautzen duen Dekretua garatzea					
69. Babesgabetasun-egoeran dauden adingabeentzako egoitza-harrerako baliabideen erregulazioa aldatzea					
70. Atzeritar adingabeak aldi batez lekualdatzeko programak arautzea					
75. Eskola-esparruan sexu- eta genero-aniztasunaren inguruko sentsibilizazio- eta prestakuntza-programak bultzatzea					
76. 16111 Zeuk Esan zerbitzua bultzatzea					
77. Euskal Autonomia Erkidegoko haurren aurkako indarkeriari buruzko azterketa egitea					
81. Haurrenganako indarkeriaren aurka sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko kanpainak garatzea					
88. Euskal Autonomia Erkidegoko gurasoen aurkako indarkeriari buruzko azterketa egitea					
89. Haurren eskubideen inguruko prestakuntza- eta informazio-kanpaina espezifikoa garatzea					
90. Hurrek parte hartzeko mekanismoen sorrera bultzatzea					

92. Hirugarren sektoreko erakundeek garatutako haur eta nerabeekin eta/edo familiekin esku-hartzeko proiektu berritzaileen baterako finantzaketa bultzatzea					
97. Ikastetxe publikoetan oporraldietan aisia eta astialdiko jarduerak gara daitezzen bultzatzea					
98. Tokiko esparrutik ordutegien kultura berriaren garapena bultzatzea					

5. ardatza: Familiaren eta haurtzaroaren arloko politiken lidergoa, ebaluazioa eta gobernantza sustatzea					
	2018	2019	2020	2021	2022
107. Familientzako gida argitaratzea eta aldian behin eguneratzea					
108. Ardura partekatuko kontziliazioaren eta gurasotasun positiboaren garrantziaren inguruko sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainak egitea hezkuntza-esparruan eta komunikabideetan					
109. Haurren eskubideak sustatzera eta familietan eta haurtzaroan inbertitzeko premia azpimarratzera zuzendutako kanpaina instituzionala egitea					
110. Gizonek seme-alabak hazteko eta zaintzeko lanetan parte hartzearen inguruko sentsibilizazioa bultzatzea					
111. Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko 3/2005 Legea aldatzea					
113. Familia eta haurren arloko lurralde-kontseiluen funtzionamendua bultzatzea					
114. Familia, haur eta nerabeen arloko tokiko plan eta mahaiak landu eta abian jar daitezzen bultzatzea					
116. Haurren eta Nerabeen Behatokia eta Familien Euskal Behatokia indartzea					

117. Haur eta nerabeei bideratutako esku hartzeko programen ebaluazioa eta alor horretako prestakuntza espezializatua bultzatzea					
118. Haur, nerabe eta familien tokiko mailako egoerari buruzko tokiko diagnostikoak egin daitezten bultzatzea					
120. Haur eta nerabeen bizi-baldintzekin erlazionatutako luzetarako ikerketak bultzatzea					

8. Planaren inpaktua eta ebaluazio-sistema

Eusko Legebiltzarrak 2018ko martxoaren 21ean egindako osoko bilkuran onartutako 2. ebazpenak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezarri dezala adierazleen sistema erabilgarri eta kalitatezko bat, Euskal Autonomia Erkidegoan Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko Planaren ebaluazio eta jarraipenerako, zeinak neurtuko baititu haren inpaktua eta familiak babesteko politikak egokiak direla ezarritako helburuetarako, bai eta haien kalitatea eta haien jasotzaile diren pertsonen asebetetze-maila ere. Horrela aurreikusita zegoen hasieratik.

Helburu horrekin, atal honetan planteatzen dira bai planaren inpaktua ebaluatzerakoan kontuan hartu beharko diren adierazle edo helburu kuantitatiboak, bai planean aintzat hartutako jardunen inplementazio-maila ebaluatzerakoan kontuan izan beharko diren prozesu-adierazleak.

8.1. Inpaktuaren adierazleak

Plan honetarako planteatzen diren erreferentziako adierazleak —horien arabera baloratu beharko da planaren inpaktua— hauek dira:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde guztietan haur-pobreziaren tasa % 20 murriztea eta Euskal Autonomia Erkidego osorako 18 urte baino gutxiagokoen mantentze-pobreziaren tasa % 7,5en azpitik kokatzea 2022. urtean.
2. 25 eta 44 urte arteko biztanleriaren okupazio-tasa % 80raino handitzea, gizonetzkoen zein emakumezkoen okupazio-tasa handituta.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen ugalkortasunaren adierazle koiunturala 1,50eraino handitzea, gutxienez 1,40eraino handituta nazionalitate espainoleko emakumeen ugalkortasunaren adierazle koiunturala.
4. Eskolatzeko-tasa garbiak % 25 handitzea urtebeteko haurren artean, gaur egungo % 44tik % 56ra igarotzeko 2022an.
5. Etxeko zainketen etena, hau da, enplegua duten gizonen eta emakumeen egunero seme-alabak zaintzen ematen duten batez besteko denboraren arteko aldea, gutxienez % 50 murriztea.
6. Gazteen emantzipaziorako batez besteko adina murriztea eta/edo 25 eta 29 urte arteko gazteen emantzipazio-tasa handitzea, adin horretako biztanleriaren % 39,5etik % 50era igarotzeko.

Ondorengo taulak adierazle bakoitzari dagokion egungo egoera (behar adina informazio dagoen azken urterako) eta plana gauzatzeko aldiaren amaierarako erreferentzia gisa planteatzen den egoera jasotzen ditu.

2. taula. Planaren inpaktuaren adierazleak. Abiapuntuko adierazleak eta erreferentziako adierazleak

	Abiapuntuko adierazlea	Erreferentziako adierazlea
Mantentze-pobrezia (14 urte baino gutxiagokoak)	% 11,7	< % 7,5
25 eta 34 urte arteko gizonen okupazio-tasa	% 73,5	> % 80
25 eta 34 urte arteko emakumeen okupazio-tasa	% 71,2	> % 80
Zainketen etena	% 30	< % 15
Urtebeteko haurren eskolatzetasa	% 44,8	> % 56
Emantzipaziorako batez besteko adina	29,9	< 28
25 eta 29 urte arteko gazteen emantzipazio %	39,5	> % 50
Ugalkortasunaren adierazle koitunturala	1,39	> 1,50

* ITURRIAK: PGDI 2016, BJA 2017; Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta (EUSTAT); Espainiako hezkuntzaren zifrak. Estatistikak eta adierazleak, 2018.

8.2. Gauzatze-mailaren adierazleak

Epigrafe honetan jasotzen dira, planaren helburu bakoitzerako, planean aintzat hartutako neurri nagusien garapen-maila baloratzerakoan kontuan hartu beharko diren gauzatze-mailaren adierazleak. Oro har, planaren ekintzak egiteari hertsiki lotutako adierazleak dira eta, hortaz, ez da neurtzen —jarraipen-sistema propioak dituzten beste plan batzuen ondorio diren kasu jakin batzuetan izan ezik— jardunek beste adierazle batzuetan duten inpaktua, esate baterako langabezia-tasan, pobrezia-tasan edo ugalkortasun-tasan izan dezaketena.

Adierazle horiek biltzerakoan, erabilgarri dauden datuak, ahal den heinean, sexuaren, adinaren, lurralde historikoaren eta beste zenbait aldagai interesgarriren arabera banandu beharko dira egoki interpretatzeko.

- **1. helburua.** Enplegua eskuratzea.

- Inklusio aktiboko programen bitartez kontratatutako gazte kopurua.
- Gazteei egindako kontratu kopurua eta kontratuen batez besteko iraupena.
- Gazteek sortutako enpresa kopurua.
- Gazteen ekintzailtza berriek sortutako enplegu kopurua.
- Enplegua txanda-kontratuen bitartez eskuratzen duten gazteen kopurua.
- Enplegua lan-eskaintza publikoen bitartez eskuratzen duten gazteen kopurua.
- Luzaroko langabezia-egoeran dauden eta inklusio aktiboko programetan parte hartzen duten familia-ardurak dituzten pertsonen kopurua.
- Eszedentzia-egoeran edo lanaldi-murrizketan dauden langileak ordezkatzeko emandako laguntza ekonomikoen kopurua eta laguntzen onuradun izan diren pertsona eta enpresen kopurua.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin erlazionatutako egoera irregularrak identifikatu diren enpresetan egindako ikuskapen kopurua.

- Hitzarmen kolektiboetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruko betebeharrak edo gomendioak sartzeko gizarte-eragileen artean erdietsitako akordio kopurua.
- **2. helburua.** Etxebizitza eskuratzea.
- Sustapen publikoko etxebizitzak eskuratzen dituzten gazteen kopurua.
 - Eraikitako zuzkidura-bizitokien kopurua eta horiek eskuratzen dituzten gazteen kopurua.
 - Bizitoki partekatuko programetan parte hartu duten gazteen kopurua.
 - Sustapen publikoko etxebizitzak eskuratzen dituzten familia gurasobakarren edo ugarien kopurua.
 - Sustapen publikoko etxebizitzak esleitzeko prozedura orokorretik salbuetsitako seme-alabak dituzten familien kopurua.
 - Gaztelagun programaren onuradun kopurua, prestazioaren batez besteko zenbatekoa eta programari dagokion guztizko gastua.
- **3. helburua.** Familiaren eta lanaren kontziliazioa.
- Gizarte Segurantzak ezarritakoaren gurasotasun-baimen gehigarria eskuratzen duten administrazio publikoetako langileen kopurua.
 - Mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketetarako laguntza ekonomikoak jasotzen dituzten pertsonen kopurua; laguntzen batez besteko zenbatekoa eta horietara bideratutako guztizko gastua.
 - Haurdun ez dagoen ezkontidearentzako eszedentziarako laguntza ekonomikoak jasotzen dituzten pertsonen kopurua; laguntzaren batez besteko zenbatekoa eta horretara bideratutako guztizko gastua.
 - Seme-alabak zaintzeko eszedentziarako laguntza ekonomikoak jasotzen dituzten pertsonen kopurua, premia bereziko egoera motaren arabera; laguntzaren batez besteko zenbatekoa eta horretara bideratutako guztizko gastua.
 - Seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketetarako laguntza ekonomikoak jasotzen dituzten pertsonen kopurua, premia bereziko egoera motaren arabera; laguntzaren batez besteko zenbatekoa eta horretara bideratutako guztizko gastua.
 - Concilia+ web-orrirako bisita kopurua, kontsulta kopurua eta horretara bideratutako gastua.
 - Enpresetan bizitza pertsonala, lana eta familia bateragarri egiteko proiektu pilotu eta planetara bideratutako guztizko gastua.
 - Berdintasun-planak garatzeko sentsibilizazio-, laguntza- eta orientazio-jardunen onuradun izan diren pertsonen eta enpresen kopurua.
 - Bizitza pertsonalaren eta lanaren kontziliazioa errazteko neurriak hartzen dituzten enpresei sozietateen gaineko zergaren esparruan emandako zerga-onuretan egindako gastua.

- **4. helburua.** Gurasotasun positiboa eta atxikimendu seguruaren sustapena.
 - Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzatik bultzatutako gurasotasun positiboko proiektuetara bideratutako guztizko gastua.
 - Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzatik bultzatutako gurasotasun positiboko proiektuetan parte hartzen duten hezkuntza-sistemako, haurrentzako arreta-sistemako eta osasun-sistemako profesionalen kopurua.
 - Atxikimendu segurua sustatzeko programen erabiltzaile kopurua.
 - Gurasotasuna web-orriko bisita kopurua, erabiltzaile kopurua eta argitaratutako buletin kopurua.
 - Gizonduz programaren barruan kokatutako jardueretan parte hartzen duten pertsonen kopurua.
 - Familia-bitartekaritzako zentro kopurua, profesional kopurua eta bertan arreta eman zaien pertsonen kopurua, eta horietara bideratutako guztizko gastua.
 - Tramitatutako familia-bitartekaritzako espediente kopurua.
 - Bitartekaritza-prozesuetan parte hartu izanaren ondorioz familia-terapiako programetan parte hartzen duten pertsonen kopurua.

- **5. helburua.** Seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoa eta haur-pobreziaren prebentzioa.
 - DSBEa jasotzen duten eta adingabeak ardurapean dituzten familia-unitateen kopurua.
 - DSBEa jasotzen duten eta adingabeak ardurapean dituzten familia-unitateetara bideratutako batez besteko zenbatekoa eta guztizko gastua.
 - PFEZko ondorengo enkariaren guztizko zenbatekoa.
 - Seme-alaba adingabeak dituzten familien artean DSBEa jasotzearen ondorioz pobrezia murriztea.
 - Ardurapeko seme-alaben ondoriozko laguntzen onuradun diren familien kopurua, laguntzen batez besteko zenbatekoa eta horietara bideratutako guztizko gastua.

- **6. helburua.** Haurrentzako arreta.
 - Haurreskola kopurua, plazak eta erabiltzaile diren haurrak.
 - Haurreskoletan sartzeko egindako familia-ekarpenaren batez besteko zenbatekoa eta gutxienean diru-sarrerak ez gainditzeagatik matrikula ordaintzeaz salbuetsitako familia erabiltzaileen %.
 - Landa-ingurunean Haurreskolak birmoldatzeko laguntza-ildora bideratutako gastua.
 - Zaintzaileak kontratatutako laguntza ekonomikoen onuradun kopurua, laguntzen batez besteko zenbatekoa eta horietara bideratutako guztizko gastua.
 - Premia-egoera puntualetan dauden haurrentzako arretarako programa pilotuen onuradun diren familia-unitateen kopurua eta programara bideratutako guztizko gastua.

- **7. helburua.** Familia-aniztasuna eta belaunaldien arteko harremanak.
 - Errenta-mailara baldintzatutako zerbitzuak edo prestazio ekonomikoak kudeatzen dituzten eta familia-errenta estandarizatuaren irizpideak aplikatzen dituzten administrazioen kopurua.
 - Belaunaldien arteko harremanak sustatzeko kultura-jardueretan parte hartzen duten pertsonen kopurua.
 - Kultura eta memoria uztartzen dituzten kultura-jardueretan parte hartzen duten pertsonen kopurua.

- **8. helburua.** Detekzio eta arreta goiztiarra.
 - Ama haurdunei laguntzeko programaren erabiltzaile kopurua eta horretara bideratutako guztizko gastua.
 - Zabarkeria-egoerak prebenitzeko programa pilotu soziosanitarioaren erabiltzaile kopurua eta horretara bideratutako guztizko gastua.
 - Osakidetzatik AGBTetara bideratzeko txostenen kopurua.
 - Hezkuntzatik AGBTetara bideratzeko txostenen kopurua.
 - Oso-osorik hezkuntza-sisteman eta osasun-sisteman egindako arreta goiztiarreko berezko esku-hartzeen jakinarazpen kopurua.
 - Arreta goiztiarreko zerbitzu eta prestazioen onuradunak.

- **9. helburua.** Ohitura osasungarrien sustapena eta osasunerako eskubidea.
 - Obesitatea duten 4 eta 18 urte arteko pertsonen %.
 - Astialdian sedentarioak diren 15 eta 24 urte arteko gazteen %.
 - Pisu txikiarekin jaiotako umeen %.
 - 12 urterekin txantxarrik ez duten haurren %.
 - Sei hilabeterekin amaren bularra hartzen duten haurren %.
 - Euskadiko Ama Esnearen Bankuaren emaile kopurua.
 - Haurren Hortzak Zaintzeko Programaren (PADI) estaldura.
 - Pediatria-zerbitzuetan erizainak hautatzen dituzten pertsonen kopurua.
 - Kerik Gabeko Gazteak programetan parte hartzen duten pertsonak.
 - Droga-mendekotasunen giro-prebentziorako programetan parte hartzen duten pertsonak.
 - Arrisku digitalei aurrea hartzeko eta aurre egiteko programa pilotuetan parte hartzen duten pertsonak.

- **10. helburua.** Ekitatea hezkuntzan.
 - Hamaika Esku programan, Hezkuntzan Berariaz Sendotzeko proiektuetan, kulturartekotasuna sustatzeko programetan, Bidelaguna programan, curriculum-aniztasunean eta abar parte hartzen duten ikastetxe eta ikasleen kopurua.
 - Ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Planaren esparruan egindako ekintzen kopurua eta edukia.

- Bizikasi programan parte hartzen duten ikastetxe eta ikasleen kopurua.
 - Hezkuntza-esparruan haurrek jasan ditzaketan babesgabetasun-egoerak prebenitzeko eta egoera horietan jarduteko protokoloa aktibatzen den kasu kopurua.
 - Ikasgeletan hezkidetzak eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko II. planaren esparruan aplikatutako neurri kopurua.
 - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan gradudun titulua lortu ez duten eta Oinarrizko eta Erdi-mailako Lanbide Heziketako kurtsoetan sartzen diren 15 eta 17 urte arteko ikasleen kopurua.
- **11. helburua.** Babesgabetasun- eta kalteberatasun-egoeren prebentzioa eta esku-hartzea.
- Gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko udal-zerbitzuen erabiltzaile diren adingabeen kopurua.
 - Familia-harreran dauden adingabeen kopurua.
 - Egoitza-harreran dauden adingabeen kopurua.
 - Kalteberatasun-egoeran dauden haur eta nerabeentzako laguntza- eta mentoretza-programetan parte hartzen duten pertsonen kopurua.
 - Elkarguneen erabiltzaile diren pertsona eta familia-unitateen kopurua.
 - Ikasle transexualei edo arauz kanpoko genero-portaera dutenei laguntzeko ikastetxeentzako protokoloa aktibatzen den kasu kopurua.
 - Berdinu Eskolak programaren erabiltzaile diren profesionalen kopurua eta sexu-aniztasunaren inguruko hezkuntza-programetan sartzen diren ikasleen kopurua.
- **12. helburua.** Haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren prebentzioa.
- 116111 telefono-zerbitzuak erantzun duen kontsulta kopurua eta zerbitzua kudeatzera bideratutako gastua.
 - Hezkuntza-esparruan haur eta nerabeek jasan ditzaketan babesgabetasun-egoerak eta tratu txarrak, abusua eta sexu-jazarpena prebenitzeko eta egoera horietan jarduteko protokoloa aktibatzen den kasu kopurua.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko haurren aurkako indarkeriari buruzko azterketaren jendaurreko aurkezpena.
 - Bizikasi programan parte hartzen duten ikasleen kopurua eta horretara bideratutako gastua.
 - Genero-indarkeriako egoerak jasan dituzten familia-unitatekoak diren adingabeei zuzendutako familiaren gaineko esku-hartze espezializatuko programetan parte hartzen duten adingabeen kopurua.
 - Komunikabideetan eta kirolaren, hezkuntzaren eta osasunaren esparruetan garatzen diren haur eta nerabeen aurkako indarkeriaren inguruko sentsibilizazio-kanpainen hartzaile kopurua eta kanpaina horietara bideratutako gastua.
 - Nahiko hezkidetzak-programan parte hartzen duten pertsonen kopurua.
- **13. helburua.** Gazte-delinquentziaren prebentzioa eta adingabe arau-hausleentzako arretaren hobekuntza.

- 14 urte baino gutxiagoko haur arau-hausleentzako arretarako planean aintzat hartutako jardunen kopurua eta edukia.
 - Gurasoen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko programetan parte hartzen duten pertsonen kopurua eta programa horietara bideratutako gastua.
 - Gurasoen aurkako indarkerian espezializatutako familiaren gainean esku hartzeko programetan parte hartzen duten pertsonen kopurua eta programa horietara bideratutako gastua.
 - Gurasoen aurkako indarkeria-egoerei aurrea hartzeko eta aurre egiteko erakunde arteko lantaldean parte hartzen duten pertsonen kopurua.
 - Gurasoen aurkako indarkeria-kasuen ondorioz kondenatutako adingabeei arreta emateko ikastetxe espezifikoaren erabiltzaile kopurua.
 - Prozedura judizialean inplikaturik dauden adingabeen laguntza integraleko zerbitzuaren erabiltzaile kopurua.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko gurasoen aurkako indarkeriari buruzko azterketaren jendaurreko aurkezpena.
- **14. helburua.** Haurren parte-hartzea eta haurren eskubideen sustapena.
- Komunikabide jeneralistetan eta hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen esparruan haurren eskubideen inguruan egindako kanpaina kopurua, eta horietara bideratutako gastua.
 - Administrazio publikoetatik garatutako haurrek parte hartzeko mekanismoetan parte hartzen duten adingabeen kopurua.
 - Haurren eskubideei buruzko prestakuntza-, sentsibilizazio- eta autoebaluazio-programetan parte hartzen duten ikasleen kopurua.
- **15. helburua.** Komunitate-garapena.
- Haur eta familiei bideratutako programetako esku-hartze sozialaren esparruan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzen onuradun diren erakundeen kopurua, eta horietara bideratutako guztizko gastua.
 - Adingabeentzat doakotasun osoko edo partzialeko sistemak aplikatzen dituzten garraio publikoko zerbitzuak egiten dituzten konpainien kopurua.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko garraio publikoen sarea doan erabiltzen duten adingabeen kopurua eta horretarako egindako guztizko gastua.
 - Hezkuntzatik sormen- eta kultura-garapena sustatzera eta haurrak publiko estrategikotzat har daitezen bultzatzera zuzendutako jardueretan parte hartzen duten adingabeen guztizko kopurua eta horietara bideratutako guztizko gastua.
 - Haur eta nerabeei euskara transmititzera bideratutako jardueretan parte hartzen duten adingabeen guztizko kopurua eta horietara bideratutako guztizko gastua.
 - Mugiment programan parte hartzen duten erakundeen kopurua eta egindako jardueretan parte hartzen duten pertsonen kopurua.
 - Landa-eremuetan eraikitako edo birgaitutako kirol- eta kultura-ekipamenduen kopurua eta horiek eraikitzen edo birgaitzen bideratutako gastua.

- Landa-ingurunean Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzaren laguntza ekonomikoarekin egindako kultura- eta kirol- arloko jarduera eta/edo ekitaldien kopurua.
 - Banda zabaleko sareak instalatu dituzten udalerrien kopurua.
 - Oporraldietan aisia eta astialdiko programetan parte hartzen duten pertsonen kopurua.
 - Tokiko mailako ordutegiei eta denboraren erabilerari loturiko kultura berri bat analizatzeko eta garatzeko egindako proiektu pilotuen kopurua eta ezaugarriak.
 - Eskola-kiroleko kanpainen parte hartzen duten eta kirol- eta heziketa- izaerako proiektuak dauzkaten ikastetxe eta kirol-erakundeen kopurua.
 - Kirol-erakundeak egoera sozial eta ekonomiko okerragoan dauden adingabeen inguruan sentsibilizatzeko garatutako proiektu kopurua.
- **16. helburua.** Informazioa, sentsibilizazioa eta kontzientziaketa.
- Familientzako gidarako online sarbide kopurua.
 - Hezkuntza-esparruan eta komunikabideetan egindako ardura partekatuko kontziliaketa- eta gurasotasun positiboaren garrantziaren inguruko sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainen kopurua, eta horietara bideratutako gastua.
 - Haurren eskubideak sustatzera eta familietan eta haurtzaroan inbertitzeko premia azpimarratzera zuzendutako kanpaina kopurua, eta horietara bideratutako gastua.
 - Seme-alabak zaintzearen eta haztearen balioak sustatzeko eta horien inguruan sentsibilizatzeko ekintza kopurua.
- **17. helburua.** Lidergoa eta koordinaketa.
- Familia eta haurren arloko lurralde-kontseiluen kopurua eta horietako kide diren pertsonen kopurua.
 - Haur eta nerabeen esparruan tokiko mailan esku hartzen duten eragile publiko eta pribatuak koordinatzeko organo iraunkorrak sortzeko eta haur eta nerabeentzako zerbitzuak tokiko eskalan elkarrekin planifikatzeko haur eta nerabeen arloko tokiko plan eta mahaiak abian jartzen dituzten udalerrri edo eskualdeen kopurua.
 - Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzari atxikitako pertsona kopurua eta zuzendaritzako langileei bideratutako gastua.
- **18. helburua.** Jakintzaren kudeaketa eta ebidentzian oinarritutako jardunbidea.
- Haurren eta Nerabeen Behatokia berriaz bideratutako guztizko gastua.
 - Haurren eta Nerabeen Behatokiaren webgunera egindako bisita kopurua.
 - Haurren eta Nerabeen Behatokiak argitaratutako eta/edo egindako azterketa kopurua.
 - Haurren eta Nerabeen Behatokiak egindako berrikusketa sistematikoen kopurua.

- Euskal Autonomia Erkidegoan esku-hartze sozialaren esparruan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzen esparruan batera finantzatutako haur eta nerabeei bideratutako esku hartzeko programen ebaluazio kopurua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateek garatutako familia eta haurren arloko graduondoko prestakuntza-programetako ikasle kopurua.
- Elkarrekin finantzatutako haur, nerabe eta familien tokiko mailako egoerari buruzko diagnostikoen kopurua.
- Argitaratutako haurren iritzi-barometro edo azterketen kopurua.
- Haurren egoerari buruz egindako luzetarako azterketetan parte hartzen duten pertsonen kopurua eta lortutako datuetatik abiatuta egindako argitalpenen kopurua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek egin dituzten eta haur eta familien inpaktuaren ikuspuntutik egindako alde aurreko analisia jasotzen duten xedapen arauemaileen kopurua.

8.3. Ebaluazio- eta jarraipen-sistema

Planaren jarraipenari eta gobernantzari buruzko atalean adierazten den moduan, Familia Planaren ebaluazioa bi ebaluazio motaren bidez egingo da. Alde batetik, tarteko ebaluazio bat egin beharko da 2020. urtean:

- Euskal Autonomia Erkidegoko familia, haur eta nerabeen premia nagusiak diagnostikatzea ahalbidetuko duten datuak eguneratzeko.
- Planean aintzat hartutako jardunen betetze-maila eta inpaktua ebaluatzeko.
- Egindako ebaluazioak hala aholkatzen badu, jardunen formulazioan aldaketak eta egokitzapenak proposatzeko.

Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Planaren azken ebaluazioa egingo da haren indarraldia amaitzen denean, 2022. urtean. Planean aintzat hartutako jardunen betetze-maila eta inpaktua ebaluatzeaz gain, Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko V. Planak aintzat hartu beharko dituen printzipioak eta oinarritzko jardun-ildoak proposatzea izango da azken ebaluazio horren helburua.

9. Gobernantza: Euskal Autonomia Erkidegoan Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Plana kudeatzeko egiturak

Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Planaren ebaluazioaren arabera, “Planaren muga nagusietako bat eta, hain zuzen ere, neurri ugari garapen eskasa izateko arrazoi bat da lidergo eta sustapen politiko txikia egon direla. Halaber, eztabaida honetan planteatu da Familia Legeak aurreikusten dituen ordezkari-organismoek oso protagonismo txikia izan dutela, eta ematen duela azken urteetan ez dutela bete Legeak egozten dien rola, edo ez behintzat, behar bezala”. Muga horiek ahal den heinean saihesteko, IV. Plan honek gobernantza-, jarraipen- eta ebaluazio-esparru egonkorragoa gehitzen du, Familia eta Haurtzaroaren Aldeko Euskal Itunaren bultzada eta jarraipena Planaren jarraipenari berari lotuta.

Hala, Familia eta Haurtzaroaren Aldeko Euskal Itunean ezarritakoa eta Plan honetan aintzat hartutako jardunak abiapuntu hartuta, Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Plana kudeatzeko eta haren jarraipena egiteko ezarriko diren jardunak eta gobernantza-egiturak hauek izango dira:

- Familia eta Haurtzaroaren Aldeko Euskal Itunaren Jarraipen Batzordea sortzea. Itunean aintzat hartutako konpromisoak beteko direla eta ituna eraginkortasunez hedatuko dela zaintzeaz arduratuko da, eta ituna sinatu duten administrazio guztien ordezkariak osatuko dute. Batzorde horrek, gutxienez bi urtez behin, itunean hartutako konpromisoak eraginkortasunez betetzeko egindako aurrerapausoak jasoko dituen txostena egingo du.
- Familia eta Haurtzaroaren Aldeko Euskal Itunaren Jarraipen Batzordearen esparruan, ituna sinatu duten erakundeen ordezkari teknikoek osatuko duten Batzorde Teknikoa sortzea, xede hauekin:
 - a) Itunean proposatutako esku hartzeko estrategiak garatzeko ekintza egokiak proposatzea eta diseinatzea, eta erabilgarri dauden baliabideen arabera lehenestea.
 - b) Autonomia-erkidegoko eta lurralde- eta udal-esparruetako gobernuko eta gobernuz kanpoko eragileak itunaren printzipioen inguruan sentsibilizatzea.
 - c) Inplikaturako sektore bakoitzetik ituna baliozkotzeko eta harekin konpromisoa hartzeko bi urtez behingo txostena jaulkitzea.
 - d) Itunaren helburuak monitorizatzea, eta plan honen helburu eta jardunen aldaketak eta doikuntzak proposatzea.
- Haurren eta Nerabeen Behatokia eta Familien Euskal Behatokia bultzatzea. Izan ere, ardura hauek esleituko zaizkie:

- a) Familiei Laguntzeko 13/2008 Legean eta Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko Plan honetan aintzat hartutako neurrien aplikazio eraginkorraren eta inpaktu sozialaren jarraipena egitea.
 - b) Haur eta familien arloko adierazleen aginte-taula behar bezala eguneratuta mantentzea.
 - c) Haur eta/edo familien arloko ikerketa-programa espezifiko diseinatzea eta gauzatzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoan Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Planaren tarteko ebaluazioa egitea (2020. urtean egin beharko da):
 - a) Euskal Autonomia Erkidegoko familia, haur eta nerabeen premia nagusiak diagnostikatzea ahalbidetuko duten datuak eguneratzeko.
 - b) Planean aintzat hartutako jardunen betetze-maila eta inpaktua ebaluatzeko.
 - c) Egindako ebaluazioak hala aholkatzen badu, jardunen formulazioan aldaketak eta egokitzapenak proposatzeko.
 - Euskal Autonomia Erkidegoan Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Planaren azken ebaluazioa egitea, haren indarraldia amaitzen denean, 2022. urtean.